goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2012-05-25
EGUBAKOITZA
510. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Mailari eutsi edo ez jokoan du Mondrak | 14

## Mundumira jaia ez da izan gatzagarrek espero zuten bezalakoa | 32




Maiatzaren 31n itxi egingo dute Oñatiko Txopekua jatetxea | 11

Euskeriaren Eguna musika zaparradarekin dator bihar | 22



Fernando Riviere umetxoak aurkitu du hezur-muin emailea | 4

# BITORIANATXOK JANTZI DU MAHOIZKO ZAPIA




Ibarreko jaien denboraldia estreinatuko duten Bergarako Pazkoak gaur hasiko dira | 16

PAZKOAK 2012 ORRIALDE BEREZIAK | 35

Bitorianatxo eta Blanca Narbaiza, aurtengo Pazkoetako Bitorianatxo izango dena. | ARRITXU BARRUSO

# Gutxiagorekin ere argizta daitezke ondo herriak

Kaleetan larregiko argia dago gaur egun, eta neurriz kanpo gastatzen da | 2



Bergarako Irala kalea. | EDU MENDIBIL



## Iñigo Arregi, tailerretik Louvre ondoan erakustera | 15

## "Bildun ezker abertzalearen mezua eta moduak nabarmentzen ari dira"



Jose Luis Garitano
EAJko legebiltzarkidea | 8

## SINADURAK



"Iheslariak" | 6
DIEGO MARTIARTU



12 | Txizagura
HORAZIO ARGARATE



Heriotzaren orduko damuak | 40
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 59 |
TELEBISTA-IRRATIA 60 | EZKONTZAK 61 |
ESKELAK 61 | NON-ZER 62



# Gutxiagorekin ere ondo argizta daitezke herriak

## Kaleetan larregiko argia dago, eta neurriz kanpo gastatzen da; udalak hori txikitzeko lanean dabiltza



Bergarako San Lorentzoko zubia, argiz josita. | EDU MENDIBIL

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Debagoieneko udalek badaroate 10 urte energia gutxiago kontsumitu eta diru gutxiago gastatzeko ahaleginetan, baina gogo handiagoz saiatu beharra dute. Izan ere, oraindik ez da lortu nahi adina aurreztea, eta krisiak horretara behartzen du.

Bergaran, iaz, herriko argi publiko sarean 281.549 euro gastatu zuen Udalak, aurrekontuan zeukan baino 30.000 gehiago; eta aurtengo aurrekontua 270.000 eurokoa izanda, urtarriletik martxora 104.000 gastatu du dagoeneko.

Bergarako Udaleko zenbait arduradunek, Jesus Elortza alkatea buru zutela, jakinarazi zituzten gastua txikitzeko neurri berriak; horien artean, Angiozarren ipiniko duten proiektu pilotu bat, LED lanparez eta norbait inguruan dabilela detektatzeko gailuez. Mota horretako 17 luminaria edo farola ipiniko dituzte. Horien potentzia ohikoaren %10ekoa izango da, eta norbait inguruan detektatzen dutenean, handitu egingo da potentzia.

Horrelako luminariak aukeratu ditu ere Oñatiko Udalak argindarraren faktura txikitzeko. Azken egunotan, hornitzailearekin, Donostiako Luix enpresarekin tratuan ibili da Udala, eta herriko ze lekutan ipini erabakitzea falta da. Udalaren arabera, proba gisa instalatuko dituzte halako lehenengo farolak eta, proba ondo irteten bada, leku gehiagotan ipiniko dituzte.

### Energia garestiago saltzen da

Detektagailuak eta LED luminariak dira argindar gutxiago eta, era berean, herriak argi eta seguru egongo direla ziurtatzeko teknologia berrienak. Horien aurretik beste batzuk erabili izan dira, eta horiek ere emaitza ona eman dute Debagoienean: besteak beste, sodiozko bonbillak sartu ziren orain urte batzuk, betiko inkandeszenteak edo halogenoak baino askoz eragingarriagoak: inkandeszentean, energiaren %5-10 inguru bakarrik bihurtzen da argi, eta gainerako guztia bero bihurtzen da; sodiozkoan, energiaren %65 bihurtzen da argi; baina LED bonbillen kasuan, energia ia guztia bihurtzen da argi: %95, hain zuzen ere. Horrez gain, argia bera hobea da, objektuak eta koloreak sodiozkoa bonbillen argiak baino hobeto apreziatzen uzten duena. Hala, bailarako herri gehienetan, LED motako bonbillak ipintzen joan dira udalak, aurrekoen partez.

Tentsioa egonkortzeko eta bonbillek argi-korronte txikiagoa jasotzeko mekanismoak ere erabili dituzte udalek; modu horretara, lanparak eragingarriagoak izan dira, eta bonbillen bizitza, luzeagoa. Aretxabaletan, 2011 hasieran egin zen hori, eta, inber-


SIROLASER
Kirurgia arinentzako egokia (entziak egokitzea, endodontziak, azkenaginak ateratzea), bisturi barik.
Abantailak:
Sendatze azkarragoa.
Bakterioen eta germenen ezabatzea.
sirona. The Dental Company


HORTZAK ZURITZEA
Phillips-en Zoom White Speed (merkatuko teknikarik berriena)
Abantailak:
Egokia sentsibilitate handia dutenendako.
Esmaltea birmineralizatzea ahalbidetzen du.
%20ko deskontua aplikatzen dugu.



INVISALIGN
Brackets-en ordezkoa
Gardena, kentzeko erraza, erosoa. %20ko deskontua urrira arte.


HARRI ZURI
HORTZ KLINIKA
Ibargarai 21, behea - BERGARA
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72
Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 14:00 - 20:00
Zapatuetan:
09:00 - 13:00
Astebukaeran urgentziaren bat baduzu, deitu lasai mugikorrera!
Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu
•
Medizina erregeneratzailea lantzen dugu (PRGF plasma), zikatrizazio hobea lortzeko eta hobeto osatzeko
•
Kromoterapia eta Shiatsu erlaxatze teknikak erabiltzen ditugu, lasai senti zaitezen

Ondo pasau jaietan!



## 5.000 milioi euro gutxiago

Industria sailburuak eguaztenean esan zuenez, 2020an 5.000 milioi euro gutxiago gastatuko ditu EAEk energian, eta 2008an baino energia gutxiago eta 2007an baino elektrizitate-energia gutxiago kontsumituko du. Euskadiko Energia Estrategiak –3E2020 izenekoa– delako plangintzan jasotzen dira helburu horiek. Energia gutxiago gastatzearen ondorioz, %18 $CO_2$ gutxiago sortuko dela esan zuen Bernabe Unda sailburuak.

**JUAN RAMON GARITANO** | BERGARAKO ARGITERIA ARDURADUNA

## "Industrialdeetatik hasiko gara argi-kontsumoa txikitzen"



ARRITXU BARRUSO

**Ze lortu nahi duzue?**
Udalak diru-sarrerak oso murriztuta dituenez, argindarrean aurrezteko eta bestelako neurriak hartzen gabiltza. Iaz, kalerako argindarrean 281.000 euro gastatu zen, eta aurten 270.000 dugu aurrekontuetan. Aukera bakarra kontsumoa txikitzea da.

**Auzoan argi barik geratuko den beldur egon daiteke inor...**
Gure asmoa da, ahal bada, eta leku bakoitzeko berezitasunak kontuan hartuta, lanpara bakoitzeko bat kentzea. Zorrotzagoak izango gara industrialdeetan, eta errazagoa iruditzen zaigu horietan hastea: bizilagun gutxi ibiltzen da, eta kontsumoa handia da, metro koadro asko daudelako. Baina beti segurtasunari begiratuko diogu. Argi-koadroetan aparailu batzuk ipiniko ditugu. Ea %50 aurreztea lortzen dugun.

**Non dago argi gehien, herrian?**
Herriko alde berrian, Ibargarain, adibidez, gehiegizko argitasuna dago: lanpara mordoa dago, eta asko apaintzeko bakarrik dira. Hor zorrotzagoak izango ginateke. Kontsumo handienak erdigunean egiten dira. Larregizko kontsumoa dago, eta txikitzen hasi behar gara. Gainera, argi-kutsadura sortzen da.

**Industriaguneak eta gero, zer?**
Gero, auzoetara joko dugu, ikusten delako hor ez dagoela kaleko bizitasuna. Baina jendea jakinean ipiniko dugu; herritarrekin batera jardungo dugu.

**Urte askoan larregi gastatu da...**
Nik 10 urte daroat hemen lanean eta, lehen, ez zen eraginkortasunaz hitz egiten. Gero, gauean argiak itzaltzen hasi ziren. Baina luzaroan, neurriz kanpo gastatu da, bai: lehen, luminaria bat ipintzen zen 25 metrotik 25 metrora, eta orain, 3-4 metrora ikusten ditugu.

tsioa handia izan zen arren –herriko 27 koadro elektrikoetako bakoitzean mekanismo hori ipintzea 6.000 euro kostatu zen–, asko aurreztea lortu da: %15 eta %20 gutxiago artean kontsumitzen dute orain farolek. Kontuan hartu behar da gutxiago gastatzea ez dela soilik bonbilla edo teknologia kontua: energiaren salneurria asko handitu da azkenaldian, beraz, kilowatt gutxiago kontsumitzen duten sistemak behar dira.

Horrez gain, azken hamarkadan zehar, bailarako herriotako argikutsadura gero eta txikiago bihurtu da; izan ere, lehengo faroletan, argia gorantz joaten zen, eta farola berriek goialdea estalita dute, argia beherantz joan dadin eta argi guztia aprobetxa dadin, argikutsadura murriztuz.

### Argi goxoaren bila

Antzuolako Udalak 46.000 euro gastatu zuen iaz herriko argietan, nahi baino gehiago. Azterketa batek dio %40 gutxiago gastatzeko modua dagoela. Orain, kaleko argiteria aldatzeko proiektuaren planteamendu-fasean dago Udala, eta finantzaketa bila; izan ere, asmoak aurrera eroateko, 100.000 euro inguru behar izango dira. Udala baikorra da.

Iñaki Iartza Antzuolako Hirigintza zinegotziaren esanetan, baina, dirua ez da kontuan hartu beharreko gauza bakarra: "Ikusi beharra dago ere ze argitasun mota, ze goxotasun ematen duen eta jendeak nola erreakzionatzen duen".

Bergarako Udalak ere herritarrekin landu nahi ditu bere asmoak. Hala ere, Jesus Elortza alkateak bergararrak lasai egon daitezen nahi du: "Ez dugu kale bat bera ere ilunpetan utziko".

### Udal eraikinen kontsumoa

Arrasateko Udalarendako, energia ahalik eta ondoen kudeatzea lerro estrategikoa da. Hala, energia-auditoria enkargatu zuen Udalak iaz, eta horren emaitzen araberako plana ezartzen doaz arduradunak. Honako aldaketak egin dituzte: herri osoan luminaria eragingarriagoak eta kontsumo txikikoak ipintzen joan da, baita semaforoetan ere; farolak ere aldatzen joan da Udala; eta telegestioa ezarri du, herriko argiteria, sektoreka, modu elektronikoan kontrolatzeko. 2009a ezkero, urtero diru-partida bat dago telegestioa herriko gero eta sektore gehiagora zabaltzeko.

Bestalde, udal bulegoetan, kiroldegian eta Kulturaten egiten den gas eta argindar kontsumoa Energiaren Euskal Erakundeak monitorizatzen du egunero, eta horren araberako neurriak har ditzake Udalak, gura baino gehiago kontsumitzen bada.

### Herriko guztiak aldatu

Eskoriatzan, iaz, Kuatruenean, bi beso duten farolen beso bat itzalita izatea erabaki zuen Udalak; Elorretan ere gauza bera egin zuten, eta Olazarreko kale baten ere bai. Gorosarri plazan, LED teknologiako bonbillak ipini zituzten, eta eliza eta museoa argiztatzeko zeuden foku potenteei piztuta egoteko ordu kopurua murriztu zieten.

Bonbilla zaharrak LED motakoekin ordezkatzen 2010eko udan hasi zen Eskoriatzako Udala: orduan, Gaztañadi kalean eta Luis Ezeiza eskola inguruan aldatu zituen. Herriko luminariak pixkana-pixkana aldatzen joateko erabakia hartu zuen orduan, eta betetzen doa urterik urte.

**DATUA**

**%95**

ENERGIA

LED bonbillek erabiltzen duten energiaren %95 bihurtzen dute argi.

**DATUA**

**%50**

DIRU GUTXIAGO

Bergarako Udalaren helburua da argi-faktura %40 edo %50 txikitzea.



# Fernando Rivierek aurkitu du hezur-muin emailea

▶ Bartzelonan egingo diote transplantea, ekainaren 14an edo 15ean

▶ Interbentzioaren ostean bospasei hilabete eman beharko ditu ingresatuta

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Fernando Riviere 10 hilabeteko Aretxabaletako umetxoak lortu du bizia salbatzeko ezinbestekoa zuen hezur-muin emailea, horixe baita duen Leuzemia Mielomonozitikoa sendatzeko bide bakarra. Maiatzaren 11 goizean etxean zeudela telefonoz jaso zuten albistea eta emailea zeukala esan ziotenean zoro baten pare saltoka hasi zen Fernando txikiaren ama. "Oso pozik daude", azaldu du Isabel Kirze Fernandoren izebak.Emailea anonimoa da. Dakiten bakarra da europarra dela eta, garrantzitsuena, %100 dela bateragarria txikiarekin. Hala, alde horretatik ere oso pozik daude Fernandoren gurasoak, "errekuperazioa azkarragoa izango delako", izebak azaldu duenez. Hala ere, luzea izango da, bost edo si hilabete egon beharko da-eta ingresatuta. "Lehen urratsean daude oraindik, baina oso pozik, esan du Isabel Kirzek, "Fernandok orain aukera duelako borrokan egiteko, lehen ez bezala".

**Transplantea Bartzelonan**

Fundacion Carrerasen bitartez, Bartzelonako Valdebron ospitalean ingresatuko dute Fernando txikia transplanterako. Eta egunean bertan aterako diote emaileari hezur-muina eta baita Fernando txikiari sartu ere. Behin hori eginda, hezur-muina zelula berriak sortzen hasteko eta defentsa guztiak gora doazela ikusteko bost edo sei hilabete behar dira eta denbora hori ospitalean emango du umeak. Bien bitartean, familiakoak Bartzelonan egongo dira, fundazioak han duen etxe batean. Denbora horretan, burbuila baten barruan egon beharko da umetxoa, hori da-eta babestuta egoteko modu bakarra. Egoera gogorra izango da, "gurasoendako batik bat, ezingo dutelako besarkatu… baina pasatu beharreko prozesuaren beste urrats bat da", esan du txikiaren izebak. Behin ondo dagoela ziurtatuta, etxera bidaliko dutela azaldu du eta bost urte iraungo duen bigarren fase bat hasiko dela: gaixotzeko arrisku handiko egoeran egongo da hasieran, arrisku ertainekoan gero…

Emaileari dagokionez, esker hitz ugari dute harendako "Fernandori bizia eman diolako eta baita haren familiari ere".

### "Emaile egitea oso garrantzitsua da"

Familiak eskerrik beroenak eman nahi dizkie hezur-muina eman duten guztiei. "Emaile egitea oso garrantzitsua da", esan du Isabel Kirze Fernando txikiaren izebak. Eta emozionatuta gehitu du: "Fernando asko dago. Hortaz, zalantzan zaudetenoi: egin emaile, mesedez, bizitza bat eman dezakezue–eta". Horretarako 943 00 70 00 zenbakira dei daiteke.



Fernandori emailea zuela jakin zutenean egindako argazkia. | GOIENA



Gotzon Arzelus (Batura) eta Joxu Arana (Miguel Altuna). | TXOMIN MADINA

ULMA Servicios de Manutención, S. Coop. Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**DEIA**

**Eguna:** 2012ko ekainaren 1a.
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
**Tokia:** ULMA Taldeko Auditorioa – Oñati (Gipuzkoa).

**GAI ZERRENDA**

1. 88, 72, 90, 71 eta 76 zenbakiko bazkideek aurkeztutako errekurtsoen ebazpena eta, badagokio, 2012ko urtarrilaren 27an Kontseilu Errektoreak hartutako 08/12 erabakiaren berrespena, bazkide horien derrigorrezko bajei buruzkoa.
2. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
3. 2011ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2012ko gestio plana berrestea.
4. ULMA Taldeari buruzko txostena.
5. 2011ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
6. 2011ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
7. 2011ko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena eta kapitalizazioa.
8. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK).
9. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak.
10. POGU III eta ULMA Servicios de Manutención, Koop. Elkarteko Barne Araudi Kooperatiboko 42., 43. eta 46. artikuluak aldatzea, hala badagokio.
11. ULMA Servicios de Manutención, Koop. Elkarteko Barne Araudi Kooperatiboko 27. eta 28. artikuluak aldatzea, hala badagokio.
12. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
13. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena.
14. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
15. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
16. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
17. Ahalmenak eskuordetzea.
18. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Servicios de Manutención, Koop. Elkarteko helbide sozialean Gai Zerrendaren 1. puntuan aipatutako errekurtsoei buruzko dokumentazioa aztertzeko.
Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kanpo auditoriak egindako kontuen gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.
Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Servicios de Manutención, Koop. Elkarteko helbide sozialean, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU Illaren aldaketen testu osoa aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2012ko maiatzaren 18a

## Miguel Altunaren eskaintza smartphonean kontsultagarri

**M.B.** | BERGARA

Bergarako Miguel Altuna institutuak bere eskaintza akademikoa smartphone telefono mugikorrendako egokitzen duen aplikazio berria garatu du Batura Mobile Solutions enpresaren laguntzarekin: *MAIko aplikazio berria*. Smartphonendako egin den garapen berritzaile horrekin, ikastetxearen informazio guztia mugikorrean aurkitu ahal izango da, bai smartphone telefonoendako egokitutako webgune moduan, baita APP formatuan ere. Informazioa euskaraz eta gazteleraz egongo da, eta doan eskuratu ahal izango da bai Google Playn (lehengo Android Market), baita Apple Storen ere. Aplikazioa jaitsi daiteke, besteak beste, institutuko bluetootharen bidez zein QRa erabilita.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

## LABek lanuztea eta mobilizazioak deitu ditu datorren eguenerako

**M.B.** | BERGARA

LAB sindikatuko ordezkariek maiatzaren 31rako lanuztea eta mobilizazioak deitu zituzten martitzenean Bergaran egindako prentsaurrekoan. Zerbitzu publiko unibertsalak eta doakoak eta burujabetza politiko eta ekonomikoa aldarrikatuko dituzte.

Hain justu ere, EAEko lan zentro guztietan langileen batzarrak eta bi orduko lanuzteak egiteko dei egin dute –Nafarroan egun osoko greba deitu dute–, eta Oñati, Arrasate eta Bergarako herriko plazetan 12:00etan egingo diren elkarretaratzeetan parte hartzeko.

LABek salatu zuenez, "Madrildik datozen erreforma estruktural ezberdinek –hezkuntzan, osasungintzan, justizian…– jauzi kualitatibo handia dakarte zerbitzu publikoen eraispenean, gure lan baldintzen okertzean eta enplegu publikoaren suntsiketan". Eta gehitu zuten erreforma horiek apustu estrategiko baten lehen urratsa baino ez direla, "eraso zehatzak estrategia orokorraren barruan: sektore publikoa deuseztatzea, desmantelatzea". Azkenean, jokoan dagoena sektore publikoaren izaera bera dela azpimarratu zuten: unibertsala eta doakoa izatea.

Erasoaldi horren aurrean defentsa bide bakarra "politikoa" dela azpimarratu zuten: "Gure zerbitzu publikoen eredua eta gure lan baldintzak hemen inolako mugapenik gabe nolakoak izan behar duten erabaki ahal izateko eskubidea defendatzearena, alegia".



Agerraldiaren une bat. | M.R.

## Mankomunitateak antolatuko konposta egiteko ikastaroak hilaren 28tik ekainaren 18ra izango dira

Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako konposta egiteko ikastaroen egutegia prest du: maiatzaren 28an, Eskoriatzako Ibarraundin izango da; ekainaren 4an, Elgetako osoko bilkuren aretoan; 5ean eta 12an, Oñatiko kultura etxean; 6an, Aretxabaletako kultura etxean; 9an eta 13an, Arrasateko Kulturaten –9koa gazteleraz izango da, 10:30ean–; eta 11n eta 18an, Bergarako Irizar jauregian. Ikastarook 19:00etan izango dira.

# Fagor Taldeko batzarrak berretsi egin du langileen soldaten jaitsiera

## Fagorreko bazkideek soldatak %5 eta %8,81 artean jaistea onartu dute

**G.A. / L.K.** | ARRASATE

Fagor Taldeko batzar nagusiak berretsi egin du taldeko bazkideek onartutako soldata jaitsierarekin aurrera egitea. Eguaztenean egin zuten batzar nagusia, eta orduantxe eman zioten baiezkoa.

6.250 bazkide ditu egun Fagor Taldeak, eta gehiengo zabalak onartu du soldatak jaistea, %76k, krisiari aurre egiten laguntzeko neurri moduan. Fagor Etxetresna Elektrikoak eta Fagor Elektronika dira taldea osatzen duten zortzi lantegien artetik egoera zailena izaten ari direnak, eta horietan, hain justu, jaso du proposamenak babes handiena: %90,5 eta %87 aldeko boto, hurrenez hurren.

### Egoeraren arabera

Soldata jaitsiera ez da berdina izango lantegi denetan, krisiak gogorren kolpatu dituenetan beherakada handiagoa izango da gainerakoetan baino. Hala, Etxetresna Elektrikoetako eta Elektronikako bazkideek onartu dute euren soldatak %7,57 eta %8,81 jaistea; gainontzekoetakoek (Fagor Arrasate, Fagor Industrial, Fagor Ederlan, Fagor Automation, Copreci eta Mondragon Assembly), %5, 2012ko maiatzetik 2013ko apirilera. Lehendabiziko bietan, 15 eta 2,5 milioi euroko laguntza jasoko dute taldeko beste lantegietatik.

### Elkartasun keinu bat gehiago

Fagor Taldeko iturrien arabera, bazkideek erakutsitakoa "elkartasun keinu bat gehiago" da, izan ere, ez da aparteko ordainsariei uko egitea edo soldatak jaistea onartzen duten lehen aldia. Lantegi batzuk, gainera, nahiko ondo ari dira aurre egiten krisiari eta, horietan soldatak jaistea ezinbestekoa ez bada ere, euren soldatetan ere jaitsiera aplikatzea onartu dute taldeko beste lantegiei laguntzeko helburuarekin.

### Enplegu erregulazioa

Bestalde, Fagor Etxetresna Elektrikoetako langile talde bat (administrazio eta ingeniaritza alorretan dihardutenak, bereziki) enplegu erregulazioko espediente batean murgilduta dago; aurreko hilean hartu zuten erabakia, eta asmoa da irail bukaerara arte egotea indarrean. 80 langile, bestalde, lantegitik irtengo dira, aurretiko erretiroen bitartez.

### 4.000 lanpostu galtzear

Euskal ekonomia ere ez da salbatu: Euskadi atzeraldian dago, eta aurten 4.000 lanpostu galduko dira Gipuzkoan. "Batera boga egin ezean, batera hondoratuko gara", esan du Adegik, Gipuzkoako enpresarien elkarteak asteon. Egoera oso larria da, Adegiren esanetan: "Gero eta enpresa gehiagok, baita lana dutenak ere, itxi egin behar dute edo horren arriskuan daude, dirurik ez dutelako". Horregatik, finantzaketa-neurriak "bat-batean" behar direla esan du.

Bestalde, Elgetan bizi den Eduardo Zubiaurrek Adegiko presidente kargua utzi eta Pello Gibelalde legazpiarra izendatu zuten atzo, eguena, haren ordez.

# Deskargako autobidea, legealdiko "proiektu izarra"

## Oposizioaren kritikapean aurkeztu du Martin Garitanok Diputazioaren Plan Estrategikoa

**G.A./ U.M.** | ARRASATE

Egunotan aurkeztu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak datozen urteotarako egitasmo estrategikoak. Debagoienari dagokionez, Larraitz Ugarte Bide Azpiegituretako diputatuak azaldu du "proiektu izarra 2015eko apirilean inauguratuko den Deskargako autobidea" izango dela. Diputazioaren esanetan, azpiegitura hori garrantzitsua da Gipuzkoako eta Euskal Herriko eskualdeak elkar lotzeko.

Horrez gain, nabarmendutakoen artean, Gizarte Zerbitzuetara aurrekontuaren erdia bideratuko dutela eta hondakinen kudeaketa zikloa errauste planta eraiki gabe itxiko dela adierazi dute, besteak beste. Izan ere, "Gipuzkoa Zero Zabor bihurtzeko erabakia" hartua du Aldundiak. Eta hala, hondakinen kudeaketa eredua aldatzea izango da diputazioaren erronka nagusietako bat, eta "epe laburrean" aurkeztuko dute plan berria.

Bestelakoen artean, foru ordezkariek azaldu dutenez, lehentasunak izango dira: euskara, berdintasuna, aniztasuna, migrazioa, parte-hartzea, giza eskubideak eta memoria historikoa. "Beste Gipuzkoa bat eraikitzea" izango dute helburu eta, horretarako, "beste eredu ekonomiko baten alde" egingo dute. Exekutiba berriaren marka ere aurkeztu dute: *Gipuzkoa Berri*.

### Moduekin, kritiko

Oposizioko alderdi nagusiek kritikatu egin dute Diptuazioaren jarduna: batetik, "beranduegi" landu eta aurkeztu duelako plan estrategikoa (urtebete geroago); eta bestetik, plana Batzar Nagusietan aurkeztu aurretik Pasaian egindako prentsaurrekoan aurkeztu duelako.



MAIALEN REGUEIRO

# Elkarlan akademikoa Brasilekin

Hitzarmena sinatu dute asteon MUren Huhezi fakultateko ordezkariek eta Brasilgo Universidad Federal de Fronteira Sulekoek. Helburua da kooperazio internazionaleko harremanak garatzea, kolaborazio akademiko, zientifiko eta kulturalaren eskutik, besteak beste, Mondragon Taldearen esperientziatik ikasi gura dute.




MAIALEN REGUEIRO

# Mosaikoa zero zaborren alde

Debagoieneko Zero Zabor taldeak dei egin du ekainaren 17an Mosaiko Erraldoian parte hartzera Donostiako Saguesen. Mosaiko koloretsua osatu nahi dute, iraunkortasunarekiko konpromisoa adieraziko duena. Gogora ekarri dute, baita ere, eguaztenero bilera irekiak egingo direla. Oñatin eta Arrasaten 19:00etan eta Bergaran 20:00etan.

## MUren ate irekiak, streaming bidez etxetik ikusi ahal izateko

Mondragon Unibertsitateak maiatzaren 29rako, martitzena, ate irekien jardunaldi berritzailea antolatu du. Izan ere, MUtelebistan emititu eta streaming bidez ikusteko aukera eskainiko dute unibertsitatearen gaineko informazioa, ordubetez nork bere etxetik jarraitu ahal izateko (19:00).

## Bikotekidea kolpatzearren atxiloketa, Gatzagan

Ertzaintzak 28 urteko gizonezkoa atxilotu du Leintz Gatzagan, bikotekidea giltza ingeles batekin kolpatzeagatik. Biktima Arrasateko ospitalean artatu zuten, besoetan zituen ubeldura eta hematomengatik. Ertzaintzak ustezko erasotzailea atxilotu zuen, genero indarkeria delitua egotzita.

**Astelehenean, irabazleak!**




**SPA ZIRKUITUA ETA ASTEBURUKO MENUA**
Debako AISIA hotelean, SPA zirkuitua eta asteburuko menua irabazteko aukera.
aisia HOTELES
943 60 80 52
aisiahoteles.com
deba@aisiahoteles.com




**IZENADUBA BASORAKO SARRERAK**
Bost gonbidapen bikoitz ekainaren 9an edo 10ean, IZENADUBA BASOA, Euskal Herriko lehen parke mitologikora joateko.
Landetxo Goikoa, MUNGIA
94 674 00 61
www.izenaduba.com

**'HIL ARTE BIZI' ANTZERKIRAKO SARREREN IRABAZLEA**
**Izen-abizenak:** Mikel Sarasola Astigarraga
**Herria:** Arrasate

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!
goienakluba 2012
Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*
Urteko kuota: **50 €.**

## ZABALIK

**DIEGO MARTIARTU**
http://goiena.net/iritzia/



# "Iheslariak"

1970etik hona ETAk eragindako iheslariek Hego Euskal Herriko biztanleen artean utzitako "zuloa" 200.000-300.000 pertsona ingurukoa ei da.

Horiek dira behintzat Espainiako komunikabide eta aditu asko bolo-bolo haizatzen ari diren zifrak. Ehunka mila horiei Hego Euskal Herriko hauteskundeetan botoa emateko aukera eman gura diete orain.

Demagun kopuru horiek benetakoak direla. Demagun 250.000 biztanlek alde egin behar izan duela hemendik ETAren erruz. Hego Euskal Herriko lau probintzietan 2.800.000 biztanle dagoela kontuan izanik, ondorioa argia da: Hego Euskal Herriko biztanleen %8,2k alde egin behar izan dute arrazoi politikoak direla-eta iragan 40 urteetan. Portzentaje hori Debagoieneko biztanleriari aplikatuz gero, hona hemen emaitzak: Aretxabaletatik, ETAk eragindako itolarriaren eraginez, 565 lagun joan da kanpora ihesi. Eskoriatzatik, berriz, 360. Bergarako iheslariak, nire kalkuluen arabera, 1.340 izan dira. Antzuolan, berriz, 200 bat herritarrek egin du hanka. Elgetan, 90ek gutxi gorabehera. Aramaion, 135ek. Gatzagan, 25 inguruk. Oñatin, 985ek. Arrasaten 2.000 herritarrek utzi du bere herria ETAren jardunak behartuta. Datu bitxi gisa, kontuan har Arrasateko Bedoña auzotik 9 lagun joan direla ihesi baserriak hutsik eta lurrak sasien mende utzita.

Zeintzuk dira indarkeriak behartuta erbestera ihes egindako milaka debagoiendar horiek? Non daude haiek utzitako zientoka etxe hutsak? Ni Arrasaten bizi izan naiz betidanik eta, despistatu xamarra naizelako-edo, ez dut iheslariotatik inortxo ere ezagutzen. Tira, gogoan dut arrasatear batek alde egin zuela herritik familiarekin, zerrenda batean salataritzat jotzen zutela-eta, baina haiek Donostiara joan ziren…

*Bullshit* ederra sakatu nahi digute, hemendik pasatu diren polizia eta guardazobil guztiek Euskal Herrian botoa eman dezaten.

**"Zeintzuk dira indarkeriak behartuta erbestera ihes eginiko debagoiendarrak?"**

## GUTUNAK

### Aintzane Oiarbideri erantzuna

**Ander Lizarralde Lizarralde**
Oñati

Bilduk ez dituela herriaren gehiengoaren interesak babesten eta inposaketaren bidea hartu duela ulertarazi diguzu zure azken artikuluan.

Beste behin.

Ahaztu al zaizu zure alderdiak (EAJk) Lemoizko zentral nuklearra inposatu zuenean ez zituela herriaren interesak babestu, baizik eta Iberdrolarenak?

Ahaztu al zaizu AHTrekin Udalaitz alderik alde zulatuko duzuenean ez dituzuela herriaren interesak defendatuko, baizik eta Amenabar, Moyua, Altuna y Uria eta abarrenak.

Ahaztu al zaizu Zubietako errauskailuaren obrak inposatu zenizkigutenean ez zenituztela herriaren interesak defendatu, baizik eta FCC eta konpainiarenak?

Herriaren dirua enpresa pribatuentzat.

Bestalde, atez atekoa inposaketa bada bosgarren edukiontzia ere izango da, ezta?

Oñatin oso gogoan ditugu zure alderdikideek bosgarren edukiontzia jartzerakoan esan zituzten hitzak: "Uste dugu materia organikoa biltzeko sistemarik egokiena bosgarren edukiontzia dela…".

Oñatiar gehienek ere hala uste dutela gaineratu zuen alkateak, otsaileko bigarren hamabostaldian 386 herritarri egindako inkesta pribatu bateko datuak azalduz (*Kontzejupetik* aldizkariko hitzak).

Beste alderdikide batek honela justifikatu zuen bosgarren edukiontzia jartzearen erabakia:

"Azken batean, Oñatiko udalbatzak gehiengo absolutuz hartu du erabakia… bakarrik Ezker Batuaren aurkako botoarekin eta Zutik-en abstentzioarekin, eta hori da garrantzitsuena herritarren gehiengoaren adierazle gisa". (*Kontzejupetik* aldizkariko hitzak).

Eta azkenik, esan nahi dizut historiari, etimologiari eta autore klasikoei egiten dizkiezun erreferentziak sobra samar daudela erabiltzen dituzun bezala, nahiz eta ez dizudan adierazpen askatasunik ukatuko.

### Baietz…

**Nerea Madariaga**
Bergara

Firma bilketa bat itxia proposatzen dot, honako galdera honekin:

*Zein dago kokoteraino zaborran inguruan sortzen dabilen polemikiakin?*

Baietz 4.000 sinadura baino gehixau lortu!

### Maiatzaren 28a, Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Ekintza Eguna

**Maipi Urteaga, Lierni Arregi, Isabel Rebollo eta Lurdes Arregi**
(Andraitz Feministaldea)
Oñati

1977an, *Nuestros cuerpos nuestras vidas* liburua argitaratu zenean, aurrerapauso handia egin zen emakumeen osasunaren historian.

Izan ere, liburu horrek emakumeen sexu eta gorputzari buruz hitz egiten du, eta emakumeek idatzitakoa da.

Aurrerapauso izugarria izan zen emakumeen zapalkuntza sexual eta ugaltzearen gainean eraikitako sistema patriarkala desegiteko.

Harrezkero, osasunaren autoezagutzarako ardurak eraman gaitu emakumeoi ikerkuntza klinikoak egitera osasunaren industrian oraindik agintzen duen begirada androzentrikoaren gainetik.

Maiatzaren 28a Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna da. Hego Amerikako eta Karibeko bosgarren batzar feministan kokatu zen data hori.

1987an eta herrialde horietako egutegi feministan egun garrantzitsua da.

Euskal Herrian ez da bereziki nabarmentzen den hitzordua, baina hemendik aurrera indarra ematen saiatuko gara.

Osasunerako eskubidea ez da gaixotasuna edota egonezinaren eza, ongizate fisiko, psiko eta sozial erabatekoan bizitzeko eskubidea baizik.

Nola izan gaitezke eskubide honen titular eta jabe, oraindik gure bizitzaren eta gorputzaren gaineko kontrola izugarria bada?

530.000 emakume hiltzen dira munduan amatasunarekin erlazionatutako arazoengatik, %13 baldintza txarretan egindako abortuengatik.

Nazio Batuen Biztanleria Funtsak dioenez, munduan sufritzen diren gaixotasunen zama globalaren %18k sexu eta ugalketa osasunarekin lotutako arazoekin zerikusia du.

200 milioi emakumek baino gehiagok beren haurdunaldi kopurua bakandu edo mugatu egin nahiko luketela uste da, baina ez daukate familia-plangintzarako zerbitzu eta metodoetara sarbiderik.

2,4 milioi emakume eta neska sexu esplotazioaren biktima dira munduan.

Maiatzaren 27an emakumeen osasunaren aldeko martxa egingo da Donostian lehen aldiz eta parte hartzaileek kilometro bat osatuko dute helburu horren alde (Haurralde Fundazioak deituta).

Euskal Herriko emakumeok eskubideen kartan idatzita dagoen moduan, osasuna eskubidea da:

Emakumeen beharrei erantzungo dion osasun zerbitzu erabatekoa eta publikoa izateko eskubidea dugu.

### Eta beste bi ere bai, merezi du eta

**Cesar Gartzia**
Arrasate

Mikel Aranzabali erantzunez, ba bai, beste urte batez izango dugu Montanier Realean.

Ez da garaia aldaketa egiteko. Konfiantza eman behar zaie entrenatzaileei, harrobiko filosofiarekin segitu nahi badugu. Entrenatzaile larregi izan ditugu azkeneko urteetan. Hortaz, ez gaitezen zoratu.

### ZUZENKETA

**Maiatzaren 11n kaleratu genuen autoen gehigarrian, 4. orrian, bigarren eskuko autoen eskaintzan, Nissan Gaursako eskaintzan, auto baten prezioa gaizki jarri genuen.**

**Nissan Murano Sport autoa 22.900 euro kostatzen zela idatzi genuen, baina autoa Nissan Murano Tekna Sport zen eta prezioa 35.800 euro.**

**Hori dela eta, barkatu eragozpenak.**

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera, bidali: egilearen izena eta abizena, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:**
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:**
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Rosa Sarabia** | Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

# "Obesitateari aurre egiteko irtenbide mediko eraginkor eta segurua da"

## Sarabia doktoreak, Pronokal metodoan espezialista, kontsulta inauguratuko du Arrasaten

Rosa Sarabia doktoreak kontsulta inauguratu du Udalaitz Zentro Medikoan, Arrasaten. Medikuntza estetikoan eta obesitatearen eta gizentasunaren gaineko tratamenduetan esperientzia dauka. Hala, bezeroei Pronokal metodoa eskaintzen die.

Metodo horren gainean konfiantza osoa dauka doktoreak; izan ere, emaitza eraginkorrekin demostratuta geratu da obesitate handia dutenen kasuan eta arrakasta barik askotariko dietak egin dituztenen kasuan. Metodo zientifikoa eta medikalizatua da. Pazientearen dietari, lan multidisziplinarra duen talde batek jarraipena egiten dio hasieratik bukaeraraino; baita bukatu ostean ere. Horrela lortzen da pisua eraginkortasunez galtzea eta, gainera, epe luzean mantentzea.



Rosa Sarabia doktorea, Sarabia klinikako zuzendaria Bilbon eta Pronokal metodoan medikuen formatzailea.

**Sarabia doktorea, zertan datza Pronokal metodoa?**

Medikalizatutako metodo pertsonalizatua da. Proteina oinarri duen dieta bat da eta helburua da, pazienteak galdutako pisua ez berreskuratzea. Gure asmoa da tratamendu hau bizitzan behin egitea eta metodoaren hiru etapak bukaeraraino eramatea. Koipeak eta azukrea murrizten ditugu, baina, gorputzeko masa muskularra gal ez dadin, proteina nahikoak mantentzen ditugu..

**Nori zuzendutako metodoa da Pronokal?**

Pisua galtzeko beharra dutenendako eta protokoloaren deskribapenean kontraindikaziorik ez dutenendako da. Bereziki, gizentasun maila handia dutenendako, eta pisua galtzeaz gain honi lotutako patologiak hobetu nahi dituztenendako: bigarren mailako diabetesa, arterietako hipertentsioa, kolesterola… Horregatik, oso garrantzitsua da proteina dieta jarraitzeko, betiere, medikuaren kontrolpean egitea.

**Sarabia doktorea, zein da zure lana?**

**"Galdutako pisua berriro ez berreskuratzea da helburua"**

Paziente bakoitzaren segurtasuna eta osasun egoera ona bermatzeko ardura daukat. Horretarako, pertsona egokia den erabaki behar dugu metodoarekin aurrera egin ahal izateko: zenbat pisu galdu behar duen eta fase bakoitza zein momentutan gainditu duen ebaluatu behar dugu. Mediku analisian oinarritzen gara, eta pazientearen azterketa fisikoan. Gainera, etengabeko jarraipena egiten diogu, eta, bere dietan gabeziarik egon ez dadin, beharrezko osagaiak errezetatzen dizkiogu.

**Diabetesa dutenendako zergatik da baliagarria Pronokal metodoa?**

Bigarren motako diabetesa eta obesitatea lotuta dauden bi patologia dira. Oso garrantzitsua da diabetesa duen pertsonak bere pisu orekatuari eustea, arazoak eta bihotzeko arriskuak saihesteko. Pronokal metodoa oso eraginkorra da, betiere, medikuaren kontrolpean eta multidisziplinarra den talde batek lagundutako ohitura osasuntsuak jarraitzen badira; luzaroan mantentzea da asmoa. Une honetan, Espainiako hamar ospitaletan Diaprokal izeneko ikerketa egiten ari dira. Proiektu klinikoa, irekia eta kontrolatua. Obesitatea duten paziente diabetikoen tolerantzia eta segurtasuna ebaluatzea da asmoa. Horretarako, proteina oinarri duen dieta kaloria askoko dietarekin alderatzen dute.

**"Eraginkorra eta pertsonalizatua da Pronokal metodoa"**

**Sarabia doktorea, zu medikuak formatzen zabiltza. Zer esan nahi du horrek?**

Mediku batek Pronokal metodoa errezetatzeko, oso kurtso zehatza egin beharra dauka. Oso harro nago nire lagun eta lankide diren medikuei pisua galtzeko aparteko tresna baten berri emateaz; gure pazienteen egoera hobetzeko denok jakin beharreko metodoa dela uste dut. Proteina oinarri duen dietak nire lanbideak eman dizkidan poztasunik handienak eman dizkit. Metodo horrekin 80, 40, 20 kilo... galdu dituzten pazienteak ikusteak, intsulina injektatzeari utzi diotela ikusteak edota metodo horri esker gazteek hondartzara joateari, dantza egiteari berriro ekin diotela ikusteak profesionalki bete eta konpentsatu egiten nau.

**Interesa duen pazienteak nora jo dezake informazio eske?**

Sarabia klinikak doakoa den lehen kontsulta eskaintzen dizue. Bertan, metodo honen gaineko informazio guztia emango dizuegu; betiere, modu pertsonalizatuan eta zientifikoki garatua izango dena. Gure esperientzia zabalaz, pazienteari segurtasun eta eraginkortasun osoa eskaintzen diogu.

Orain Arrasaten
Benetan pisua galdu nahi duzu?


PSE: 37/04
Rosa Sarabia doktoreak kontsulta berria irekiko du:
CMU centro médico UDALAITZ
Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.
PronoKal® metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko
– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia
Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.
Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

**Jose Luis Garitano** | EAJko legebiltzarkidea

# "Bildun ezker abertzalearen mezua eta moduak nabarmentzen ari dira"

- Gobernu sozialistarekin autogobernuari dagokionez atzera egin dugula dio Garitanok
- Lopezen agintaldia agortuta dagoela-eta hauteskundeak aurreratuko direla uste du

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Euzkadi Buru Batzarrak Iñigo Urkullu proposatu du lehendakarigai, eta horren gainean jardun dugu Jose Luis Garitano legebiltzarkidearekin. Lehendakaritza berreskuratzeko hautagai egokia iruditzen zaiola dio. Lopezek hauteskundeak aurreratuko dituen ustea baduela ere esan du. Eta data jartzera ausartu da: "Urriaren 28an izango dira", dio.

**Iñigo Urkullu proposatu du Euzkadi Buru Batzarrak lehendakarigai izateko. Hautagai egokia iruditzen zaizu?**

Bai, jakina! Horretarako propio sortutako batzordeak, alderdikideen proposamen guztiak aintzat hartu ostean, aho batez hartu du erabakia; hortaz, erabaki egokia da, eta ona da, gainera. Orain, batzokietan berretsi egin beharko da erabakia.

**Joseba Egibarrrek publikoki adierazi zuen bere garaian EAJrendako eta, bereziki, aurkariei aurre egiteko, hautagairik onena Ibarretxe dela.**

Ados nago Egibarrek esan zuenarekin. Ibarretxek irabazi zituen azken hauteskundeak, ez dezagun ahaztu hori. Eta daukan esperientzia eta profila kontuan izanda, hautagairik egokiena izango litzateke, baina Ibarretxek berak argi utzi zuen bere garaian, eta orain berretsi egin du, behin betiko politikatik urrundu egingo zela eta hezkuntzara bideratuko zuela bere bizitza profesionala.

**EAJren legebiltzarkide zaitugu une honetan. Errepikatzeko asmorik?**

Ez. Hezkuntzan, Jaurlaritzan, Adegin… jardun dut nire bizitza profesionalean. Orain, nire proiektu enpresariala daukat. Joseba Egibarrek eskatu zidan aurreko hauteskundeetan ea animatuko nintzatekeen, eta halaxe egon naiz legebiltzarkide legealdi honetan. Baina ez dut errepikatuko. Uste dut nire zikloa amaitu dela.

**Zelako esperientzia izan da?**

Oso ezberdina da. Ez dauka zerikusirik kanpotik antzeman daitekeenarekin edota hedabideen islatzen dutenarekin. Oso aberasgarria izan da, batez ere jendartea hobetzeko, politikatik zer egin daitekeen oso gertutik ezagutu dudalako. Konturatu naiz uste baino zailagoa dela eta 24 orduetan lanean egon behar dela, ikuspuntu ezberdinak aztertzen, adostasunera heltzeko ahaleginetan… Ardura handiko lana da. Baina, askotan, hedabideetan zabaltzen den irudia da politikariak lapur hutsak direla. Eta hori ez da horrela.



Jose Luis Garitano martitzenean Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**Urkulluk esan du EAJren helburu nagusia lehendakaritza berreskuratzea izango dela eta ekonomia, bakea eta normalizazio politikoa direla erronka nagusiak. Lopezek ere antzeko helburuak zituen…**

Bai, denok nahi dugu onena jendartearendako… Horretan denok ados. Baina hemen kontua da gauza bat esan eta beste bat egiten dutela askok edo gauza bat egin behar dutela esan arren, egiteko gauza ez direla. Lopezen Gobernuak PPrekin bat egin du, eta hori ez naturala, ika-mikatan dabiltzalako uneoro. Bikote horren helburu bakarra izan da abertzaletasuna geldiaraztea. Lortu dute, hein batean, Jaurlaritzatik kendu gaituztelako. Bestetik, krisi ekonomikoa mundu mailakoa denez, aitzakia moduan erabili dute atzeraldia eta pobretu egin garela justifikatzeko. Hortaz, bakea eta normalizazioa dira lehentasunak, politikan maila berean jardun dezagun denok.

**Eta ekonomia?**

Lehentasuna da, baina prozesu baten ondorioa da orain bizi izaten ari garena. 15 urte egon gara hazkunde etengabean, gehiago irabazi eta gutxiago lan egiten. Eta esango nuke makaldu egin garela. Eta, okerrena dena, balioak galdu ditugu.

**Horiek berreskuratzeko zer proposatzen duzue?**

90eko hamarkadan industriaren eraldaketa prozesuan murgildu behar izan genuen. Gorriak pasa genituen. Madrildik zioten industria politikarik eraginkorrena industria politikarik eza zela. Baina Azua, Ardantza, Ibarretxe eta hauek hemengo industria eraldatzeko politika eraginkorrak eta pizgarriak abian jarri zituzten, eta hor daude emaitzak: krisitik atera ginen indartuta, beste inon baino hobeto. Makina ondo zaindu genuen eta indarrean abiatu zen. Industria sektorea indartu behar da orain ere. Finantzazio motak eskaini, berrikuntza bultzatu eta ez murriztu aurrekontuak. Prestakuntza, langabeziatik irteteko baliabideak eta politikak…

**Inkestek diotenez, Amaiurren eta EAJren artean egongo da Gasteizko legebiltzarrerako lehia estu eta gogorra…**

Ez dakigu ezker abertzaleak zein marka erabiliko duen. Zer gertatuko den Sorturekin. Koalizioan joango den azkeneko hauteskundeetan moduan… Ikusi beharko dugu. Izan ere, Bilduren barruan ezker abertzaleko mezua ideia, metodologia… geroago eta nabariagoa da.

**Irudikatzen duzu Amaiurren lehendakari bat, Gipuzkoan Bildurekin geratu den moduan?**

Politikan edozer da posible. Edozein gauza ikus genezake. Lehendakaria zein izango den ikuskizun dago. Gure helburua da geuk gobernatzea, baina goiz da esateko zer gertatuko den.

**Lerro buru bat ipini beharko bazenio zein jarriko zenioke legealdi eta gobernu honi?**

*Iragarritako porrota.* Helburu garbiarekin etorri ziren, abertzaletasuna ahultzea. Hori lortu dute, besterik ezer. Ikusi non utzi duten EITB.

**Zuek bultzada emango diozue EITBri?**

Bai. Gauza batzuk, gure autogobernuaren bizkarrezurrak direnak, ezin dira zalantzan jarri: Osakidetza, hezkuntza, Herrizaingo saila, hedabideak… Horiek dira gure ikurrak eta zaindu egin behar ditugu.

**Hauteskundeak aurreratuko dira?**

Bai; izan ere, Lopezek ez du legealdia amaituko. Eta data bat esatera ausartzen naiz: urriaren 28an izango dira hauteskundeak. Lopez trankil ikusten dut, buruan badaukalako estrategia finkatuta. Lopez ez da ausartuko datorren urteko aurrekontuak, inoren babesik barik, Eusko Legebiltzarrera eroaten. PP ere gogor ari da egurra ematen…

> "Oparoaldiarekin makaldu egin gara, eta balioak galdu ditugu"

> "Ezin da zalantzan jarri gure autogobernuaren bizkarrezurra"

> "Lopezen agintaldia 'Iragarritako porrot' moduan izendatuko nuke"

bilduma
Sombra






diseinua
Eloy Millán

**Sombra saileko** egongela-jangela. Akaberak euri lakatuan, ardesian eta sumendi matean. **Eclipse** erdiko mahaia. Akaberak sumendi lakatu matean. **Aukera** gehiago Kibuc.com en. Adierazitako neurri eta akaberetarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

**www.kibuc.com** ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en

**gureametsa@kibuc.com**
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 151 681

KIBUC Gure Ametsa

KIBUC
altzariak eta osagarriak
Azkenean etxean


TXALOk aurkezten du
HIL arte BIZI
zuzendaria BEGOÑA BILBAO
IKER GALARTZA
SARA COZAR
JOSEBA USABIAGA
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Eguna: Maiatzak 27, igandea
Ordua: 19:30
Lekua: Amaia Udal Antzokia (Arrasate)
Sarrera salmenta: www.kutxasarrerak.net
Sarrera salmenta
SERVIKUTXA KUTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net

# HERRIAK

OÑATI

# Txopekuako azken menua

▸ Hilaren 31n itxiko dute Oñatiko jatetxea, Kandido Bikuñak erretiroa hartuko duelako

▸ Haren guraso Inazio Bikuñak eta Juliana Madinak zabaldu zuten negozioa, 1927. urtean



Kandido Bikuña, barra atzean, ilobekin, arrebekin, etxekoekin eta langileekin, Txopekua jatetxean. | MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Inazio Bikuñak eta Juliana Madinak zabaldu zuten Oñatiko Txopekua jatetxea 1927an; eta haien seme Kandido Bikuñak itxiko du hilaren 31n. Txopekuako "motorrak, bihotzak" erretiroa hartuko du. "Medikuek esan diote lana utzi behar duela. 81 urte beteko ditu irailean, eta nahiko lan egin du. Gogoz kontra, baina erretiroa hartuko du", esan digu Kandidoren ilobak, Mari Jose Urtzelaik.

Ospakizun berezi barik, hilaren 31n azken menuak emango dituzte Txopekuan. "Ospakizunik ez dugu nahi. Guretzat ere oso gogorra izango da, penagarria. Egun horretan, berdin-berdin egingo dugu lan, eta gero, oporrak", esan digu Urtzelaik.

Kandidoren erretiroarekin, Txopekuaren historiaren zati bat bukatzen da, baina etorkizunean beste historia bat zabal daiteke. "Oraingoz, atsedenerako tarte bat zabalduko dugu. Aurrerago ikusiko dugu jatetxea berriro zabaltzen dugun. Animatzen bagara, badakigu oraingo xarma mantenduko dugula, eta jatetxeak duen itxura ere bai", dio Urtzelaik.

**Sagardoa eta ozpina**

Bikuña-Madina bikoteak sagardotegi izaerarekin zabaldu zuen jatetxea. Etxeko sagardoa egiten zuten, eta barra txiki bat zuten bezeroak atenditzeko. "Barrika gorriak genituen, lau bat 700 litrokoa bakoitza, beste lau barrika txikiagoak eta beste lau 200 litrokoak. Sagardoa ez ezik, ozpina ere egiten genuen. Gaztetan astoarekin jaisten nintzen herrira, 16 litroko alforjarekin, ozpina saltzera", gogoratzen du Basili Bikuñak, Kandidoren arrebak.

Egun jatetxea dagoen tokian animaliak zituzten, eta sagardotegia Txopekuaren kanpoko aldean dagoen iturri ondoko txokoan zeukaten.

**Txopekua eta Zabaleta etxea**

Garai hartan, egungo jatetxearen zati bat Zabaleta Etxea zen. Banaketa baten ondorioz Txopekua bitan banatu zuten. Zabaleta etxekoak hil ondoren, Inaziok eta Julianak erosi zuten zati hura. 1956. urtea zen. Orduan, animaliak zeuden lekuan jangela txiki bat egin zuten. Baina ez zeukan sarbide zuzenik eta bezeroak sukaldetik sartzen ziren jantokira. "Askok, sukaldetik pasatzerakoan, lapikoak zabaltzen zituzten jateko zer zegoen ikusteko", gogoratzen du Basilik.

Txopekuak harrera ona izan zuen herritarren artean. Arantzazura joaten ziren bisitari askok egin zuten geldialdia han, arrautzak txorizoarekin jateko. Etxeko arrautzak eta txorizoa. "Zortzi txerri genituen etxean. Akabatzen genituenean txorizo pila egiten genuen. Txopekuako plater tipikoa izan da arrautzak txorizoarekin, eta baita ziza-nahaskiak", kontatu digute.

Kandidoren bizitza eta lanbidea jatetxea izan da, eta bezeroendako produktu onenak ekarri izan ditu. "Bidaia asko egin ditu, Argentinara, Kanariar Uharteetara...baina jatetxerako produktu gehienak auzokoak eta herrikoak ziren. Bildotsak eta okela Oñatikoak ziren. Aldi berean 18 bildots hiltzen zituen. Arraina, berriz, Pasaiatik ekartzen genuen", gogoan dauka Basilik.

**Haize girotua, 1969an**

Bezero kopurua handitzen zihoala ikusita, jangela handitzea erabaki zuen Kandidok, eta egungo itxura eman zion jantokiari 1969an. Pentsaezinak ziren hobekuntzak ipini zizkion jangelari: berogailua eta haize girotua. "Hobekuntza ikaragarriak izan ziren. Berogailuak buruhausteren bat eman digu, baina haize girotua orduan jarritakoa da. Ez dugu arazorik izan haize girotuarekin",

*20. orrialdean, jarraipena.*



**SORTZAILEAK** Inazio Bikuñak eta Juliana Madinak zabaldu zuten Txopekua jatetxea 1927. urtean, sagardotegi izaerarekin.



**ZEZENAK** San Andres jaiak indartsuak izan dira beti Uribarri auzoan. Zezenak ere egoten ziren Txopekua jatetxearen sarreran.



**DANTZALDIA** Auzoko jaietan dantzaldiak ere egiten zituzten jatetxearen aurrealdean. Auzotar askok parte hartzen zuten.



**ZERBITZARIAK** Horixe da Txopekuak izan zuen lehen zerbitzari taldea; tartean dago Kandidoren arreba Basili Bikuña, argazkiaren erdian.



ARGAZKIAK: MARIA JOSE URTZELAI

**AUZOKO NESKA-MUTIKOAK** 1957ko maiatzaren 5ean Txopekuako iturri aurrean egindako erretratua. Uribarri neska-mutiko taldea ageri da bertan.

# Berrikuntzekin zabalduko dituzte kanpoko igerilekuak, ekainean

## Ekainaren 15-17ko asteburua aprobetxatuko dute udako denboraldiari hasiera eman eta kanpoko igerilekuak zabaltzeko, irailaren erdialdera arte

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Garbiketa-lana egiten dihardute Musakolako kanpoko igerilekuetan; data ezarrita, hiru aste eskas besterik ez dira falta-eta, kanpoko igerilekuak zabaltzeko (ekainaren 15-17).

**'Hondartza' txikituta**

Aurten berrikuntzekin datoz, gainera, Musakolako kanpoko instalazioak: "Igerilekua inguratzen duen hori koloreko eremua (*hondartza* esaten diogu) murriztu egin dugu. Orain arte bost bat metroko espazioa zegoen, eta bi metrora mugatu dugu. Izan ere, iaz debekatu egin genuen *hondartza*n jendea eguzkia hartzen egotea, baina ikusi dugu leku handia geratzen zela alperrik galduta, aprobetxatu barik. Hori ebitatu nahian igerilekuaren bueltan dagoen baranda mugitu eta ahalik eta gehien txikitu dugu igerilekuaren buelta, jendeari eguzkia hartzeko lekua lagatzeko", jakinarazi du Larraitz Sanzberro AUKEAko gerenteak.



Musakolako kanpoko igerilekua, inguratzen duen baranda aldatuta duela. | U.M.

Horrekin batera, kanpoko igerilekura iristeko sarrera aldatu egin dutela ere kontatu du hark. Eta orain arte moduan aldageletatik sartzen ibili beharrean, larrialdi irteera erabilita egokitu dute berdegunerako pasabidea, "aldageletan daudenendako erosoago eta igerilekura doazenendako ere erosoago izan dadin".

**DATUA**

**1.000**

ERABILTZAILE

Arrasateko igerilekuan, berez eta legez, 1.000 lagun kabitzen dira.

**Prezio berriak**

Bestalde, berriak izango dira baita ere, igerilekurako prezioak, iazkoekin alderatuta, %2,8ko igoera aplikatuko dizkietelako (kiroldegiko gainontzeko tasei moduan).

Kopurutan honela geratzen dira: denboraldi osorako bonoa, haurrak: 37,40 euro; helduak: 62,85 eta familiarra: 100,30 euro. Hamar eguneko bonoak: haurrak: 25,50 euroeta helduak 50,90. Eta sarrera arrunta: 3,20 euro haurrak eta 5,65 euro helduak.

Berria ez dena, berriz, ordutegia da; betiko moduan 10:00etatik 20:30ak arte izango dira zabalik kanpoko igerilekuok.

**Barruko igerilekua**

Bukatzeko, gogora ekarri beharrekoa da behin kanpoko igerilekuak zabalduta, barrukoak itxi egingo dituztela. "Obrak egiteko aprobetxatuko dugu, konponketa-lanok egiteko barruko igerilekua hutsik egotea behar genuen -eta", azaldu du Sanzberrok.

### Lehengo eta oraingo kontuak partekatzeko hitzordua egin dute, Musakolako eskola publikoko ikasleendako

Musakolako ikastetxe publikoko 8. mailakoak (8. EGB) orain 25 urte ikasbidaian joan ziren Lloret del Mar-era (argazkia ordukoa da). Eta orain ikasle haiek elkartu (bidaian joan zirenak eta ez zirenak) eta bazkari bat egin gura dute, uztailaren 7an, Arrasaten. Interesa duenak dei dezala: 636 73 54 36 (Raquel) edo idatzi: seijolillo@hotmail.com.



Musakolako 8. mailako ikasle batzuk, Lloreten orain 25 urte . | RAQUEL

### OHARRAK

**HONDAKINEN KUDEAKETA**

Hiri hondakinen kudeaketaren gaineko azkeneko informazio -hitzaldia datorren eguaztenean, maiatzaren 30ean izango da, Kulturateko Loramendi aretoan, 19:00etan. Nekazari-auzotarrendako deialdia da oraingoa.

**LORE SIKUEN IKASTAROA**

Bedoña Batu kultura elkarteak lore sikuen gaineko ikastaroa antolatu du. Loreen bilketa, lore eta hostoak sikatzeko hainbat teknika eta prentsatzeko moduak ikasiko dituzte. Arlo praktikoan, berriz, lore sikuekin apaindutako orri-markatzaileak egingo dituzte. Ekainaren 9an da ikastaroa (10:00 -12:00), baina izenematea ekainaren 2an bukatuko da (688 88 79 09). 10 euro da prezioa (5 euro auzokoendako).

**OSASUNA ETA ELIKADURA**

Dorleta Martinez hematologoak elikadura eta osasunaren gainean Arrasaten emandako hitzaldien apunteak eskuratzeko aukera dago, hona idatzita: *dorletam@hotmail.com*. Lau hitzaldiren gaineko apunteak dira: *gaur egungo elikadura eta haren eragina gure osasunean; osteoporosia, hezurren osasuna elikadura osasuntsuaren bitartez: fibromialgia eta ingurugiroak eragindako bestelako gaixotasunak; zela babestu kantzerrarengandik eta osatzen lagundu.*

### NIRE USTEZ

**HORAZIO ARGARATE**



## Txizagura

Gertakari historikoa. Bi protagonistetako bat oraindik bizirik dagoela.

Donostiako Elizbarrutia sortu berria zela, izendatua izan zen lehenengo artzaina, Jaume Font D'Andreu, Tolosaldeko Gaztelu herriko parrokia bisitatzera joan zen.

Pontifikaleko meza ematen ari zenean, hara eta sekulako pixagura etorri zitzaion.

Aguantatu ezinean zegoela, bertako parrokoari gerturatzeko keinua egin eta komuneko bidea eskatu zion.

Garai hartan (1950ean) herri txikietako eliza eta sakristietan ez urik ez eta komunik ere. Erretore azkar hark zer asmatu zuen? Eliztarrengana zuzendu eta esan zien: "Orain, gotzain jauna Gazteluko eliza kanpoaldetik bedeinkatzera aterako da; guk, bitartean, belaunikaturik, errosario santua errezatuko dugu".

Eta halaxe egin. Gurutze, kandelak, intsentsua, akolitoak eta abar prestatu eta eliz bira egin zuten. Obispoa kalera ailegatu bezain pronto, gonak eta azpiko gonak altxatu eta bere gogoa bete zuen. Elizara bueltatzerakoan, kristau guztiak hantxe ziren zintzo asko zeruari erreguka.

Irakaspena: krisialdi honetan, ekonomiaren eta politikaren agintari batzuk ez ote dabiltza gure buruen gainetik txiza egiten? Gainera, haien ur zikinak ur bedeinkatua balira bezala, gure esker onaren zain daude.

Nahiko da!

**"Agintari batzuk ez ote dabiltza gure buruen gainetik txiza egiten? "**

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Buztantxo eta Arrasate Herri Eskolako txikiak, Amaia antzokian. | U.M.

# Urteurrena dela-eta jai ezohikoa egin dute, ikasturtea agurtzeko

**U.M.** | ARRASATE

Amaia Udal Antzokia ume, gazte eta gurasoen irribarre eta jolasez bete da bi egun hauetan. Ikasturtea agurtzeko, jaialdia egin du Arrasate Herri Eskolak. Urte berezia dutela-eta (10. urteurrena) aukeratu dute Amaia antzokia jaialdirako.

Hala, eguaztenean Bedoñabe eta Musakolako Haur Hezkuntzako (2-6 urte) 310 neska-mutikok jardun zuten antzezlan, kantu eta bestelako ikuskizunak egiten; eta atzo, berriz, Erguin gunean diharduten Lehen Hezkuntzako 395 neska-mutikoren txanda izan zen.

Bi kasuetan, ekitaldi amaieran, maiatz hasieran grabatutako lip duba aurkeztu zuten. Ikasturtea bera, berriz, ekainaren 22an bukatuko dute.

**Paella erraldoia**

Bestalde, 10. urteurrenari dagokion eguna bera ekainaren 2a da. Eta ordurako ere badute ospakizuna gertu: bazkaria. Handi samarra izango da. Martitzenean bukatu zen izenematea, eta momentuko datuen arabera, 300 lagun pasak eman du izena. Bada, bazkari handirako, menu handia ekarriko dutela iragarri dute: paella erraldoia. Garibai aukeratu dute hori egiteko eta enpresa bat kontratatuko dute paella erraldoia prestatzeko.




JAIONE CARPINTERO

# 3.800 sinadura, kontra

Zaborra batzeko atez ateko sistemari kontrakotasuna adierazi zioten hainbat herritarrek eguaztenean Herriko Plazan. *Atez atekoa stop* mugimenduak deituta, kontrako sinadurak batu zituzten. 3.800 dituzte dagoeneko. "Atez atekoaren kontra" egonda ere, "birziklapenaren alde" daudela esan eta bosgarren edukiontziaren erabilera eskatu zuten.

# Arrasateko erretiratuen omenezko jaialdia bihar

"Menu gozoa", opariak eta dantzaldia iragarri ditu antolatzaileak, SUDC elkarteak

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Ohitura onak ez direla galdu behar eta, bide horretan herriko erretiratuei merezitako omenaldia emateko jaialdia antolatu du SUDC elkarteak.

Bihar, zapatua, da hitzordua, Musakolako kiroldegiko kantxan, 14:30ean bazkaltzeko.

850 lagunek parte hartuko dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Ausolanek ekarriko die "menu gozoa", Gardokik dantzaldia eta SUDC elkartekoek opariak, "giltzatakoa izango dute guztiek. Aurten krisiak agintzen du-eta...", aurreratu du Juan Luis Arkauzek, SUDCeko ordezkariak.

**Nagusienak bereziki gogoan**

Erretiratuen omenaldiaren barruan, omenaldi berezia egingo diete nagusienei: lora sorta (emakumeari) eta txapela (gizonezkoari) emango diete . "Ez dugu aurrerratuko zeintzuk diren, grazia galtzen du-eta bestela", dio Arkauzek.

**Autobusak eta anbulantziak**

Bestalde, erretiratuok bazkarira joan-etorria lasai egin ahal izateko, autobusak ipiniko dizkiete antolatzaileek. Hain justu, Garibaitik aterako dira, Iturbide paretik. "13:00etan hasiko dira erratiratuak eramaten, guztiak eraman arte; eta bueltarakoak, berriz, 18:00etan hasiko dira joan-etorriak egiten kiroldegitik herrira. "Horrez gainera, anbulantziak ere egongo dira, zailtasunak dituztenak eramateko", zehaztu du Arkauzek.

**DATUA**

**850**

ERRETIRATU

62 urtetik gorako 850 gizon-emakumek parte hartuko dute omenaldian.

## Arantzazu Isazelaia

Edertu ile-apaindegiko ugazaba eta ile-apaintzailea

# "25 urte daramatzagu lanean, gure bezeroei esker"

San Andresko Foruen plazan dago Edertu. Arantzazu Isazelaiak (Arrasate) eta Hilda Madinabeitiak (Aretxabaleta) irribarretsu artatzen dituzte bezeroak.



> Edertura etortzeko ez da ordurik hartu behar; norberak gogoa daukanean etor daiteke; zerbitzu erosoagoa da bezeroarendako

**E**skarmentu handiko ile-apaintzaileek dihardute Edertun lanean. Arantza Isazelaia ugazabak 30 urteko ibilbidea egin du; Hilda Madinabeitiak, berriz, 15 urte daramatza harekin.

**Zuk (Arantzazu) bide luzea egin duzun neurrian, badaude zurekin bide hori egin duten bezeroak?**

Bai, baditugu bezero fidelak, bai. Eta badaude beste batzuk mugitu egiten direnak. Guztiek egiten dute gure merkatua.

**Zer eskaintzen dio Edertuk bezeroari?**

Kolore asko ematen dugu, ile-mozteak egiten ditugu, jakina; eta esan dezakegu gizakumeak nahiko sartuta ditugula; izan ere, ile-apaindegi mistoa da hau, eta, gainera, adin guztietako bezeroak ditugu: umeetatik hasi eta nagusietarainokoak. Baina, orokorrean, denetik egiten dugu: jaunartzeak, ezkonberriak apaindu, ama pontekoak... Horrez gainera, solariuma ere badugu. Eta berezko zerbitzuez gainera, esan dezakegu sarri psikologo lanak ere egiten ditugula. [Barre]

**Ordutegia?**

09:30etik 12:30era eta 14:30etik 19:00etara; eta zapatuetan 08:30etik 13:00ak arte.

**Itxaron zerrenda luzea izaten duzue?**

Ez; hona etortzeko ez da ordurik hartu behar. Norberak gogoa daukanean etor daiteke, eta listo. Datorrenean jende asko baldin badago, bueltatxo bat ematera bidaltzen dugu eta tera bidaltzen dugu eta lekua egin bezain laster artatzen dugu.

**Zuen ogibidean etengabeko formazioa garrantzitsua izaten da, ezta?**

Bai. Beti gabiltza horretan: Italian, Madrilen... azkenengo aldiz Kursaalen (Donostian) egon ginen, gala batean, ingelesak ikusten.

**Hortaz, pentsatzekoa da merkaturatzen diren produktu berrienekin lan egingo duzuela, ezta?**

Bai; esate baterako, amoniako barik atera den kolore berria aplikatzen gabiltza: Inoa.

**Eskerrak eman nahi dituzula aipatu duzu...**

Bai, 25 urte daramatzagu lanean, eta gure bezeroei eman gura dizkiet eskerrak, eurei esker bizi gara-eta horrenbeste urtean.




25 urtez arrasatearrekin
EDERTU ILE-APAINDEGIA • SOLARIUMA
Foruen plaza 3 • 943 79 04 28 • Arrasate
Eskerrik asko, guztioi, emandako konfiantzagatik

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Abokajarro-Iriztu | **1-0** |
| Sonografos-McAwen | **7-7** |
| Dublin-Dribling | **2-2** |
| Lasagabaster-Iluntz | **6-4** |
| Atsedena: Aldatz | |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| A TALDEA | | P | J |
| **1** | Dribling | **11** | **5** |
| **2** | Sonografos | **10** | **5** |
| **3** | Abokajarro | **9** | **5** |
| **4** | Dublin | **7** | **6** |
| **5** | Iriztu | **6** | **5** |
| **6** | McAwen | **5** | **5** |
| **7** | Aldatz | **3** | **5** |
| B1. TALDEA | | P | J |
| **1** | AT. Betrayer | **9** | **3** |
| **2** | Iluna | **6** | **3** |
| **3** | Portaboleiros 2.0 | **3** | **3** |
| **4** | Fidel & Discipulos | **0** | **3** |
| B 2. TALDEA | | P | J |
| **1** | Lasagabaster | **9** | **3** |
| **2** | Iluntz | **6** | **3** |
| **3** | Aston Birra | **3** | **3** |
| **4** | Ekaitz | **0** | **3** |

**PARTIDUAK**

MAIATZAK 26, ZAPATUA
**11:30** Sonografos-Dribling / **Iriztu**
**12:30** Iriztu-Aldatz / **Sonografos**

MAIATZAK 27, DOMEKA
**12:00** Abokajarro-McAwen / **AT Betra.**
**Dublin:** Atsedena.

### A taldeko azken jardunaldia

Oraingo asteburuan partidu gutxi egongo dira Zaldibarren, baina jardunaldi erakargarria izango da, A multzoko aurreko postuak daudelako jokoan: batetik, lehenengo postuagatik lehia estua duten Sonografos eta Dribling taldeek jokatuko dute zapatu goizeko lehenengo partiduan eta ondoren, azkeneko postua ekidin guran dabiltzan Aldatz eta Iriztu izango dira zein baino zein gehiago.

### Domekan lehia bakarra

B multzoak erabakita dauden honetan –Lasagabaster izan da B multzoko bigarren taldeko irabazlea–, domekarako A multzoa erabakita utziko duen norgehiagoka jokatuko dute Abokajarrok eta McAwenek. Partidu horrekin amaituko da A taldeko fasea.


Aretxabaletaren kontrako derbian.


Aloñaren bisita, Mojategin.


Gol erabakigarria, joan den astean.


Beti Gazteren kontra gola ospatzen.


Ordezkoak eta entrenatzaileak, adi.


Rekarteren debuta. | ARGAZKIAK: J. ARANTZABAL / J. CALLEJA

# Mailari eustea daukate jokoan

▸ Mojategiko sarrera doan izango da bihar (18:00)

▸ Kontrario zuzenek ordu berean jokatuko dute

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mondrak azken urteotako partidu garrantzitsuena jokatuko du bihar Urolaren kontra (Mojategi, 18:00). Oraindik ez da hamarkada bat bete Josu Zubiaren gidaritzapean zuri-moreak mailaz igo zirenetik [Atxabalpen lortu zuten igoera, Soraluzeren kontra 2-1 irabazi ostean, gaur egun entrenatzaile den *Murua*-ren bi golei esker] eta orduan egindako lanari jarraipena eman nahi diote orain, mailari eutsita. Partiduaren garrantziaz jabetuta, zaleak Mojategira erakartzeko sarrera doanekoa izango da.

### Azken ahalegina

Denboraldi luzea izan da jokalariendako, nekagarria, porrot bat bestearen atzetik, eta astelehenero buelta eman behar egoerari, hurrengoa prestatzeko. Baina porrot mingarri horien atzetik etorri dira garaipen garrantzitsuak, eta horri esker lortu dute azken partidura bizirik iristea, mailari eusteko aukerekin.

Hala, biharko partidurako matematikak sinpleak dira: Mondrak irabazi egin behar du, eta Hondarribiak galdu. Eta Mondraren interesendako lagungarria da, baita ere, Hondarribiaren kontrario Tolosa dela jakitea, Hirugarren mailara igotzeko borrikan dabilen taldea.

### Atzera begiratua

Aste barruan Jose Mari Velez de Mendizabalek gogoratu duen moduan, Mondrak urteurren berezian jokatuko du zapatuko norgehiagoka, duela 60 urte lortu zuten-eta zuri-moreek (orduan Juventud Deportiva) kategoriaz igotzea.

Hori bakarrik ez, bi final jokatu zituzten orduan; mailaz igo baziren ere, Velez de Mendizabalek blogean kontatzen duen moduan ligako finalean Elgoibarren kontra Atotxan 0-0 egin ostean, partidua berriro jokatu behar izan zuten. Eta bigarren lehia horretan gol batengatik galdu zuten. Baina, orduko kronikek diotenez: "Sarrailariek euren futbolaren sendotasuna garbi erakutsi zuten". Orduko sendotasuna izan dadila, bihar ere, zuri-moreen ezaugarri.


XABIER URTZELAI

**IKER ZAITEGI**
ENTRENATZAILEA

### "Jokalarien lanari esker iritsi gara azkenera aukerekin"

Mondrak baja garrantzitsuak izango ditu biharko partidura begira; "Baina hamaika jokalari zelairatuko ditugu, ez dago arazorik", erantzun digu taldeko entrenatzaileetako batek, Iker Zaitegik, umorez. Orain artekoak ikusita, baikor dira biharko partidura begira: "Dena galduta izan ostean oraindik aukera batekin iritsi gara bukaerara. Besteak urduriago egongo dira".

**Mondrak ez du bere esku kategoriari eustea, baina ez da egoera txarrena.**

Taldea hartu genuenean gustura sinatuko genuke azken partidura aukerekin iristea, eta halaxe gaude.

**Aurrekoan ere aipatu zenuten, "Gu behetik gora goaz, besteak...".**

Badakigu kalean jendeak aspaldi uste zuela jaitsita geundela, eta normala ere bada. Guk sinisten jarraitu dugu, egia esan ez dakit zergatik, barruan gaudelako, gure lanean sinisten dugulako, jokalariak lanean ikusi ditugulako... Eurei esker gaude oraindik aukerekin, eta zapatuan gertatzen dena gertatzen dela, arro gaude izan duten jarreraz.

arbolapeta
arrasate
beinke

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# Iñigo Arregi, tailerretik Louvre ondoan erakustera

## Hip Gallerie D'art izen handiko galerian irekiko du hilaren 29an; burdinazko 40 bat eskultura izango dira

J. C. / J.B. | ARRASATE

Parisen erakusketa jartzeko aukera izango du datorren astean Iñigo Arregi Arrasateko artistarik ezagunenak. Hilaren 29an, martitzena, zabalduko du erakusketa eta hilabetez egongo da ikusgai. Domekan abiatuko da Arregi Paris aldera eta astelehenean guztia gertu utziko dute, inaugurazioaren egun handirako. Urduri dagoela aitortu digu: "Inaugurazioan dena ondo irtetea espero dut eta horren ostean lasaitu egingo naiz".


Arregi, Arrasateko tailerrean, eramango dituen bi obraren maketekin. | J.BEREZIARTUA

Aurtengoarekin dagoeneko hirugarren aldia izango da haren obrak Frantziako hiriburuan ikusgai izango direla. Baina hirugarrenak ez du aurreko bien antzekotasunik. Oraingoan eskulturak erakutsiko ditu eta batez ere sona handiko Hip Gallerie D'art deritzon galerian irekiko du erakusketa. Burdinazko 40 bat eskultura eta erliebe –hala deitzen die Arregik eskegita jartzen dituen eskulturei– erakutsiko ditu, eta hilaren 29an inauguratu ostean hilabetez egongo da zabalik. Pozik dago Arregi Parisen erakutsiko duelako berriro: "Aukera ezin hobea da nire obrak horrelako galeria batean erakustea, mundu mailan ezagutzera emateko aukera aparta", dio. Artelanak Parisen ikusgai jarritako aurreko bi aldietan margoak erakutsi zituen; oraingoan, ordea, 40 eskulturarekin abiatuko da. Bi sailetan banatutako eskulturak jarriko ditu ikusgai Parisen, batetik erliebeak izenarekin izendatutakoak egongo dira eta bestetik eskultura hutsak, guztiak burdinazkoak. Aukera paregabea da, beraz, Louvre museoaren ondoko galeria entzutetsu baten Arregiren obra betikotzeko.

**Galeria-jabeak gonbidatuta**

Modu bitxian jaso zuen erakusketa irekitzeko gonbidapena. Paristar batek bere obra bat erosi zuen aurreko erakusketaren batean; Hip Gallerie D'art galeria-jabearen lagun batek, hain justu. Galeria-jabeak, bere lagunaren etxean Iñigo Arregiren obra ikusi bezain pronto deitu egin zion, eta obren gainean interes handia erakutsi. Dei hori burutu zenetik hiru egun besterik ez ziren pasa eta galeria-jabea Arrasatera etorri zen, obra guztiak ikusteko eta artista bera ezagutzeko. Bertatik irten zen Hip Gallerie D'arten bere obrak jartzeko proposamena. Artistak, noski, ez zuen denbora gehiegirik eman proposamena onartzeko: "Paris ikono bat bezala da guretzat, eta holako proposamen bati ezinezkoa da ezetz esatea".

Erakutsiko dituen obrak, azken hamar urteotan egindakoak dira, azken urteetako bere prozesua ikusteko asmoz. Lan guztiek dute elkarren arteko lotura nahiz eta obra bakoitzak bere bide propioa jarraitu. Eramango dituen obrak "*acero-cortezkoak*" izango dira, artistak adierazi duen bezala: "Material honekin erabat identifikatuta sentitzen naiz", dio.

Adituek eskultura euskaldunekin parekatzen dituzte Arregiren lanak, euskal abangoardia artistikoetako kide izendatzen dute-eta askok: "Beste proposamen batekin, baina, abangoardia artistiko horren jarraitzailea naiz, sustrai berak ditugu", dio.

### Al Andaluskoen Kultura Astea azken txanpan sartuko da

Al-Andaluskoak Kultura Astearen 23. edizioaren azken txanpan murgilduko dira aste bukaeran. Ekintzen artean, honakoak dira nabarmentzekoak: gaur, haurrendako jolasak eta merienda (18:00); bihar, parrillada (12:30), Al-Andalusko koruaren emanaldia (13:00) eta bazkide zein gertukoendako gala-afaria (21:30); eta domekan, azkenik, Alegria de la Sierra abesbatzaren saioa (13:00) eta Salbe Errozieroa Al-Andalusko koruaren eskutik (19:00).

### Txorbela Errenteriara doa etzi, otxoteen bigarren topaketara

Arrasateko Txorbela otxotea protagonista izango da etzi Errenterian, bigarrenez antolatu den otxoteen topaketan. Lau emanaldi eskainiko dituzte: hasteko, bazkaldu aurretik Juli (12:45), Maite (13:15) eta Desira (13:45) tabernetan ibiliko dira kantuan, eta bapo bazkaldu ostean, amaiera kontzertua eskainiko dute Niessen kultura etxean (18:00). Azken emanaldi horretan Txorbela otxoteak hiru kantu abestuko ditu. 20:00 aldera bueltatuko dira Arrasatera.


HARREMAN

## Elkartasun eguneko tonbola

Maiatzaren 5ean egindako gobernuz kanpoko erakundeen Elkartasun Eguneko tonbolak badu irabazlea: Rafa Fernandez. Quijas (Santander) herriko La Venta ostatuan asteburu bateko egonaldiaz gozatu ahal izango du. Argazkian, irabazlea Marijo Alustiza Eroskiko ordezkariarekin eta Javier Ruiz de Muniain Harremaneko presidentearekin.

## Lezetxiki gizarteratzeko hitzarmena

Lezetxikiko ondarea ezagutzera emateko apustu egin du Udalak, eta, helburu hori beteko dela bermatzeko, hasieratik Lezetxiki ikertzen aritu den Aranzadi elkartearekin hitzarmena sinatu du asteon. Hiru urteko hitzarmena da eta Udalak 18.000 eurorekin laguntzeko konpromisoa hartu du, urtero 6.000 euro emanda.


KATALIN ANTXIA

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

# Iritsi da zapia jantzi eta festan murgiltzeko eguna

Miguel Okinaren suziriarekin eta Blanca Narbaizaren hitzekin hasiko dira diru gutxiagorekin baina gogo berberarekin antolatutako Pentekoste jaiak

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

Mahoizko zapiak jantzi eta kalean gora eta behera ibiltzeko egunak dira. Bada, aurten ere euskararen aldeko mezuak zabalduko ditu Jardunek jaietako zapien bitartez. Jai giroa eta euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin, zapiak eta pegatinak aterako ditu. Zapiak hiru eurotan salduko dituzte San Martin plazan jarriko duten postuan eta zenbait tabernatan. Pegatinak, berriz, doan banatuko dira. Aurten, Eneko Ibañezek irabazi du Jardunek antolatutako lehiaketa.



Eneko Ibañezena izango da aurtengo jaietako zapia. | JARDUN

**Autobus zerbitzu bereziak**

Gaur eta bihar, bergararrez gain, bisitariak ere etorriko dira Pentekosteez gozatzera. Hala, autobus zerbitzu bereziak egongo dira egubakoitzean eta zapatuan. Linea batek Antzuola eta Elgeta arteko bidea egingo du gau osoan, Bergaran gelditua. Beste linea batek, berriz, Eskoriatza eta Eibar arteko ibilbidea egingo du, bidean Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Soraluzen geldituta.

**Barrakak 1,80 euro**

Jostaleku guztietako prezioa gehienez 1,80 euro izango da bidaiako eta zazpi bidaiako bonua 9 eurotan eskuratu ahal izango da. Astelehen goizean eta eguaztenean, egun osoan prezio berezia izango dute.

**BLANCA NARBAIZA** | BITORIANATXO IZANGO DA AURTEN

## "Martitzenera arte jaietan jo eta ke ibiltzeko esan nahi diet bergararrei"


Blanca Narbaiza. | A.B.

Baserritar jantzita, jaietako zapiarekin eta antosinarekin ikusiko dugu Blanca Narbaiza gaur. Bitorianatxo izango da egun batez.

**Kontatu digute oso pozik hartu duzula Udalaren eskaria.**

Bai. Halaxe da. Oso pozik nago. Niretako oparia izan da, benetan. Opari galanta.

**Urduri ipiniko zarela uste duzu?**

Pixka bat bai. Saltsero samarra naiz ni, baina eskatutakoa ondo egitea nahi dute. Mikrofonoa izango dut eskuetan, eta niri mikrofonoak asko gustatzen zaizkit, horrelakoa naiz ni. [Barre]

**Miguel Okina izango duzu aldamenean udaletxeko balkoian?**

Bai, eta oso pozik nago horregatik ere. Miguel oso pertsona kuttuna da Bergaran, jatorra eta artista bikaina. Suziria Miguel Okinak jaurtiko duela jakin nuenean, pentsatu nuen: "Ezin da gehiagorik eskatu".

**Herriko Plaza jendez beteta ikusten duzunean hunkitu egingo zarela uste duzu?**

Ez nuke nahi. Momentuan uste dut tinko mantenduko naizela, baina uste dut guztia amaitzen denean hasiko naizela gertatutakoa barneratzen. Argi daukat gurekin ez daudenak, joan zaizkigunak eta hor zehar dabiltzanak gogoan izango ditudala.

**Zer esango diezu bergararrei?**

Ez dizuet dena esango, baina bergararrei esan nahi diet Pentekosteak ederki pasatzeko eta martitzenera arte jo eta ke ibiltzeko parranda sanoa egiten.

## Aurrekontua %20 jaitsi du aurten Udalak

Jaiak antolatzeko orduan Udalak aurten izan duen zailtasunetako bat aurrekontua izan da. Iazkoarekin alderatuta nabarmen jaitsi da. Aurten 112.000 euro gastatuko ditu Udalak jaietan; iaz baino %20 gutxiago. Hori horrela, esaterako, ez da banderatxo edo apaingarririk ipiniko herriko kaleetan eta Udalak herritarrei gonbita egin die balkoi eta leihoetan koloretako apaingarriak, ikurrinak eta mahoizko apaingarriak ipintzeko.

Diru gutxiagorekin, baina jai alai eta koloretsuak antolatu nahi izan ditu Udalak, eta berritasunik ere egongo da. Martitzenean bingo herrikoia egingo dute Muniben eta gaztetxoenendako DJ jaialdia antolatu dute zapatu gauerako: 22:30ean hasita, DJON Urbieta egongo da Seminarioko zezen-plazan. Aurreko urteetan izandako arrakasta ikusita, bestetik, mantendu egingo dute urtean zehar jaiotako jaioberriei jaietako zapatuan zapia ipintzeko ekitaldia.



Kultura zinegotzi Leire Iruin eta Kultura teknikari Edurne Korta. | GOIENA



Jaixen usaina
lagun izan daizun
eta parranda gogoa
agortu ez daizun,
dantza giroari eutsi!
Familia eta lagunak

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

CLINICA DENTAL
BERGARA
Bidekurutzeta 36 behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 05 77
ZERBITZU INTEGRALA
Behar duzun espezialitatearen araberako lantalde profesionala.
- Odontologia orokorra
- Protesiak
- Inplanteak
- Endodontzia
- Hortz-estetika
- Ortodontzia (Doako azterketa)
- Periodontzia

ESTREINATU IRRIBARREA
Inplante tratamendua:
• Azterketa eta aurrekontua doan.
• Inplante unitario osoa, gehienezko prezioa 112 €/ hilabeteko*
* Urte bateko finantzaketa
ASEGURUAK
DKV / Previasa • Aegon • Mapfre • Sanitas
Adeslas / IMQ / Iquimesa • Santa Lucia
Previsora Bilbaina • Ocaso
Mutuak
PADI Haurren hortzak zaintzeko Osakidetzaren programa
Hirugarren adinekoentzako deskontu bereziak!
PSE 99/94

Zare fruta denda
Ondo pasau jaixak!

Irizar Pasealekua 3 • BERGARA • Tel.: 943 76 38 83

# Leire Iruin zinegotziaren dedikazioak ekarri zuen eztabaida osoko bilkuran

EDU MENDIBIL | BERGARA

Leire Iruin zinegotziaren dedikazioak ekarri zuen eztabaida Udal Gobernuaren eta oposizioaren artean asteleheneko udalbatzan. Iruinek zinegotzi kargua 2/3eko dedikazioaz betetzea onartu zuen udalbatzak, Gobernuaren aldeko botoekin eta EAJ eta PSE-EEren kontrako botoekin. Jesus Elortza alkatearen arabera, Iruinek hainbat hilabetetan musutruk jardun du lanean eta oraingo aldaketak ez dio gasturik ekarriko Udalari. Iruini Bilduko dirutik ordainduko zaiola zehaztu zuen alkateak. EAJren partetik, Juan Jesus Alberdik eta Aintzane Oiarbidek hartu zuten hitza. Gaurko krisi egoerarekin Udalean hiru lagun zatika liberatuta egotea gehitxo iruditzen zaiola adierazi zuen Alberdik. Eta etorkizunari begira erabakiak Udalari kostuak ekarriko ote dizkion zalantzan jarri zuen: "Ekonomia egoerara bolkatu beharko lituzke ardurak Gobernuak, ez ingurunera edo atez ateko sistemaren ezartzera". Oiarbidek, berriz, urtetan Udalean liberatu bakarra egon dela gogoratu eta horrenbesteko lana nondik sortu den galdetu zuen.

Alkateak, berriz, egoera ekonomikoarekin aspaldi kezkatuta daudela gogoratu zuen eta zailena dirurik ez dagoenean kudeaketa egitea dela esan zuen: "Diruarekin gestionatzea erraza da, dirurik ez dagoenean datoz komeriak. Eta berriro diot erabakiak ez diola gasturik ekartzen Udalari". Mozioan jasotzen denez, gastua Bilduk jasotzen duen ekarpenaren murrizketari esker finantzatuko da eta soldata eguneraketarako, berriz, udal langileen sistema erabiliko da.

## Seme-alaben elikadurari buruzko ikastaroa Angiozarren ekainaren 2an

E.M. | BERGARA

Angiozarko Haizeberri zentroak antolatuta, seme-alaben elikadurari buruzko ikastaroa izango da ekainaren 2an. Ikastaro teoriko eta praktikoa izango da, 10:00etatik 17:00etara. Elikadura osasuntsua eta orekatua jorratzea da helburua. Ikastaro egunean landutako jakiak dastatuko dituzte partaideek ekainaren 2ko saio horretan.

**Izen-ematea zabalik**

Ikastaroaren prezioa 50 euro da eta izen-ematea ondoko telefono zenbakietan egin daiteke: 662 34 78 04 (Anton Otaola) edo 676 63 89 07 (Inmaculada).



Jon Olivares auzo alkatea –eskuinean– eta osintxuar talde bat auzolanean.

# Auzolanean Osintxun, garai bateko ohiturari eutsita

### Joskintza ikastaroa iragarri dute ekainerako

E.M. | BERGARA

Osintxuko Herri Batzarrak deituta, auzolanean jardun zuten auzotarrek hilaren 12an: belar eta sasiak moztu, iturri inguruak garbitu, paretak garbitu, biltegia txukundu eta bestelako lanetan jardun zuten. Urtero gutxienez auzolan bat deitzea da asmoa, "antzinako ohitura on hau berreskuratu eta herritarren arteko elkarlana bultzatzeaz gain herria txukuntzeko". Maiatzaren 12ko deialdiak izandako erantzunarekin pozik azaldu ziren Osintxuko Herri Batzarkoak.

**Mendi buelta eta ikastaroak**

Ekainaren 9rako, berriz, bi urtetik behin egiten den Osintxuko mendi buelta iragarri dute; zazpi ordu inguruko ibilbidea izango da, eta amaitutakoan bazkaria izango da. Era berean, bi ikastaro antolatu dituzte: batetik, maiatzeko eguaztenetan postregintza ikastaroa egiten ari dira Osintxun. 20 emakume inguruk dihardute. Ez da gizonezkorik apuntatu ikastaro horretan. Partaideek azpimarratu dutenez, hainbat herrialdetako jendea etorri da azken urteotan Osintxura, eta, horri esker, hango eta hemengo postreak lantzeko aukera izan dute ikastaroan. Gustura dihardute.

Bestetik, Udalak, Osintxuko Herri Batzarrak eta Bizikasik antolatuta, joskintza ikastaroa izango da Osintxun ekainaren 5ean hasita. Izen-ematea (10 euro) Osintxun bertan, Euskalduna tabernan edo Txuringon egin daiteke. Edozelan ere, edozein argibidetarako Bizikasira (943 76 93 94 telefono zenbakia) jo dezakete interesatuek.

## OHARRAK

**IBILGAILUEN ZERGA**

Udalak aditzera eman duenez, ibilgailuen zerga ordaintzeko epea maiatzaren 31n bukatzen da eta egun horretan kargatuko dira kontuan erreziboak (helbideratuta daudenak). Hurrengo egunetik aurrera bide exekutiboari ekingo zaiola gogoratzen du Udalak.

**PINTURA ESKOLAK**

Beart elkarteak 6-13 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako pintura eta marrazketa ikastaroa antolatu du uztailaren 2tik 27ra, aste barruan, 10:30etik 12:30era. Izen-ematea eta argibideak: 653 71 53 82 edo 635 71 32 69.

**ODOL ATERATZEAK**

Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, ekainean, hilaren 6an eta 20an egingo dituzte hurrengo odol ateratzeak anbulatorioan, ohiko ordutegian, 18:00etatik 20:30era.

**UDALEKUAK**

Udaleku irekietarako, hasiera batean, zozketa egiteko asmoa zegoen, baina, izena eman dutenen kopurua ikusita, ez da zozketa beharrik egon, guztiendako lekua dago -eta. 2000-2009 artean jaiotakoei zuzenduta, uztailaren 2tik 20ra izango dira udalekuak.

**MAKILLAJE IKASTAROA**

Jardunek antolatuta, Igaro dendako Ihintza Orbegozok makillaje ikastaroa eskainiko du kultura etxean. Bi saio izango dira ekaineko bi zapatutan, 10:30etik 12:00etara. Argibideak: 943 76 36 61.

JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

**LANBIDE ETORKIZUNAK:**
- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentroetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

**AURREMATRIKULA:**
Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra (biak barne)

**MATRIKULA EGITEKO EPEA:**
Uztailaren 5tik 11ra (biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
Santa Barbara bidea z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxa: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es


BKE

## Kopako finalera Bergara KErekin

Bergara KEk kopako finalerako egindako zozketan 5.752 izan da saritutako zenbakia eta Jesus Joakin Balzategi izan da irabazlea. Ez da sari makala: Athletic eta Barcelonaren arteko gaurko finalerako bi sarrera eta 400 euro. Argazkian, sariduna saria jasotzen Pedro Ricok Bergara Kirol Elkarteko presidentearen eskutik.


E.M.

## Laskurainen koadro bat zozketan

Luis Laskurain margolariak koadro bat eman dio dohaintzan Musika Eskolari, *Peter Pan* musikalaren finantzazioan laguntzeko. Zozketarako txartelak euro baten truke daude salgai. Laskurain bi koadro daude ikusgai Biltokin, eta horietatik bat eskuratuko du irabazleak. Ekainaren 9ko Udaberriko Kontzertuan egingo dute zozketa.

# Bergara Hiria lehiaketako argazkiak Aroztegin

### Jorge Murgiondo, Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga, sarituen artean

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak ikusgai izango dira gaurtik Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Zuri-beltzean Luis Pontijas astigarragarra eta koloretan Andres Indurain irundarra izan dira irabazleak, hurrenez hurren, *Dunas* eta *La hora de comer lanei* esker. Bigarren saria zuri-beltzean Jorge Murgiondo bergararrak eskuratu du, *Egurra eta gameluak* argazkiarekin, hirugarren saria Josu Garai legazpiarrak eta herriko onena Agustin Gurrutxaga izan da.

Koloretan, Manu Barreiro beasaindarrarendako izan da bigarren saria, hirugarrena Benito Canterok irabazi du *Urbia* izenburuko lanagatik eta, azkenik, herriko onenari zegokion saria Jorge Murgiondok eskuratu du, *Laida* lanagatik.

**40 argazki erakusketan**

Guztira, 273 argazki jaso dituzte lehiaketaren 28. ekitaldian, 120 zuri-beltzean eta 153 koloretan. Aroztegiko erakusketan 40 argazki onenak izango dira ikusgai, ekainaren 25era Ohiko ordutegian izango da zabalik Barrenkaleko aretoa: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeka eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara.Sari banaketa gaur, egubakoitza, egingo dute, 19:30ean.


Andres Indurainen *La hora de comer*, lehen saria koloretan.


Luis Pontijasen *Dunas* lanak eraman du lehen saria zuri-beltzean.

### Bergara Hiria txapelketako finalak martitzenean

Altuna-Imaz gazte mailan eta Bilbao-Uzkudun senior mailan saikatu ziren martitzenean Bergara Hiriko finaletarako. Martitzenean, 19:30ean Altunak eta Imazek Ortiz- Ibarrondo bikote izango dute aurrean eta senior mailakoan Jaka eta Peñas izango dira Bilbao -Uzkundunen kontrarioak.

### Herriko kultura taldeekin bilera ekainaren 5ean

Udaleko irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei, 2012. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako dirulaguntzak emateko oinarrien nondik norakoak azaltzeko bilera baterako dei egin diete. Bada, ekainaren 5ean izango da aipatutako bilera, kultura etxean, 18:00etan hasita.

### Txapa jaia datorren zapatuan, ekainaren 2an, gaztetxean

Txapa jaia iragarri dute hurrengo zapaturako, ekainaren 2rako. Gaztetxean izango da, 23:00etan, eta bertan, besteak beste, karaokea izango da. Era berean, irratsaio askotariko kideak musika jartzen izango dira eta sorpresa gehiago egongo direla aurreratu dute.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Mujika gozotegia
Gozogintzan nahi duzuna
Eskatu artisautza eta tradizioa.
Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

SUBIJAI
0 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat arropa
QUIKSILVER 3pommes Timberland confetti absorba lottum paz Rodríguez
Irizar Pasealekua 1 - BERGARA
Tel.: 943 76 42 41
Ondo pasau Pazkoetan!




GIZARTE INTEGRAZIOKO
Goi Mailako Teknikaria

- %84,6ko Lan munduratzea
- PRAKTIKAK Europan egiteko aukera
- Plaza mugatuak

AURREMATRIKULA:
maiatzaren 29tik
ekainaren 8ra




HAUR HEZKUNTZAKO
Goi Mailako Teknikaria

- %100a Lanbideratzea
- PRAKTIKAK Europan egiteko aukera
- Plaza mugatuak

Mariaren Lagundia
Ikastola
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net

Profesionalak gertatzen 1976-tik

# Txopekuako azken menua

*11. orrialdetik dator.*

esan digu Basilik. Orduko itxura dauka jangelak egun: harrizko paretak, egurrezko habeak, leiho handiak... Aldatu duten bakarra gortinak, aulkiak eta mahaiak izan dira. Paretak ere noizean behin garbitu egin dituzte. Besterik ez. Txopekuak hasierako xarma berbera mantentzen du ordutik.

Eta horregatik, bezero fidelak izan ditu beti. "Astelehen, martitzen eta eguazten guztietan etortzen ziren bezeroak ditugu. Guk pena handia hartuko dugu, baina eurek ere hutsunea izango dute", diote.

**Txikitatik, sukaldean**

Kandido Bikuña izan da Txopekuako motorra, baina harekin eta Basilirekin batera ikasi du Mari Jose Urtzelaik. "Hemen jaio nintzen eta beti egon naiz sukaldean sartuta. Txikitan, aulki batera igotzen nintzen platerak eta edalontziak garbitzeko. Amama Julianari postreak egiten laguntzen nion. Eta gogoan daukat sagardoa egiten genuen garaian zenbat botila garbitzen genituen...", kontatu digu Mari Josek. Azken urteetan hura eta haren senar Jesus Mari Arsuaga izan dira Basilirekin Txopekuako jarduna antolatu dutenak; Kandidoren begiradapean.

Txopekuako txikienak Irati dauka izena. Mari Joseren eta Jesus Mariren alaba da. 18 hilabete ditu.

Ekainetik aurrera, Txopekuan gertatutako hamaika bizipen, hamaika istorio kontatuko dizkiote etxekoek Irati txikiari.

**ESANAK**

**"Jangelak ez zuen aterik, eta sukaldetik sartzen ziren bezeroak"**

**"33 urtean etxeko sagardoa zerbitzatu genuen"**

BASILI BIKUÑA
TXOPEKUA JATETXEKOA



Sagardoa egiteko makinaren zati bat. | M.B.

## Etxean egindako sagardoa edateko

Sagardotegia zabaldu zutenean, etxeko sagardoa zerbitzatzen zuten. Oraindik gordetzen dute sagardoa egiteko erabilitako makina. Etxeko sagarrondoak erabiltzen zituzten, eta baita Asturias eta Astigarragatik ekarritako sagarrak ere. 1979. urtera arte etxeko sagardoa erabili zuten Txopekuan. "Etxeko sagardoaren hondarra oso preziatua zen hasieran. Gero, sagardo garbia nahiago zuten bezeroek", esan digute.



Txandako sarien irabazleak opariekin Mendizabal kirol-dendan. | OIHANA ELORTZA

# Mineralen jolaseko sariak eta minerala banatu dituzte

M.B. | OÑATI

Txanda elkarteak eta Arrikrutzek antolatutako mineralen jolasak baditu irabazleak. Mineralei buruzko galderak zuzen erantzutearren lepokoa irabazi dute 430 oñatiarrek. Haiek, gainera, Txandak emandako hamar sariren eta Arrikrutzen ikusgai zegoen amatista erraldoiaren zozketan parte hartu zuten. Txandak emandako sarien irabazleak hauek izan dira: Martin Lazkanoiturburu (6 urte), Unai Gartzia (9 urte), Jone Miren Izura (42 urte), Ander Gartzia de Kortazar (11 urte), Maialen Jauregi (2 urte), Laura Rezabal (9 urte), Jon Bartolome (11 urte), Ainhoa Redin (10 urte), Julen Agirre (11 urte) eta Sara Mateos (12 urte).

Azkenik, Naiara Olaldek (10 urte) irabazi du Arrikrutzeko mineral handia. Zorionak!

# Udaletxeko teilatua Corpus jaien ondoren konponduko dute

### Itoginak eta apurtutako teilak konponduko ditu Ugarte enpresak 59.000 euroren truke

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Udaletxeko teilatuak eraberritzeko premia dauka, eta apirila bukaerako tokiko gobernu batzarrean lanak egitea adostu zuten. Ugarte enpresak egingo ditu lanak 59.000 euroren truke, eta hilabeteko epean. Teilatuko erretenak eta teilak konpontzeko aldamioak jarri beharko dituzte udaletxearen bueltan.

Corpus jaietarako eraberritze lanak bukatzea oso zaila denez –prozesioa ekainaren 10ean egingo da–, atzeratzea erabaki dute. Aldamioak plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean ipiniko dituzte, eta horiek, traba egingo lukete prozesioaren ibilbidean eta aurreko egunetan.

Hortaz, teilatua eraberritzeko lanak Corpus jaien ondoren egingo dituzte.

**Euriarekin, arriskutsu**

Udaletxeko teilatuak eraberritzea behar duela aspaldiko kontua da. Itoginak ditu leku askotan eta erretenak eta teila asko apurtuta. Horiek guztiak konponduko ditu Ugarte enpresak.

Lanak hasita, hilabeteko epea izango du eraberritzea egiteko, baina halako lanetan eguraldiak zeresan handia dauka, eta atzerapenak egon daitezke. Teilatuan euriarekin ibiltzea labainkorra eta oso arriskutsua da, eta ateri egiten duen egunetan egingo dituzte lanak.

## 'Zure ziztada behar dugu' kanpaina abian jartzeko batzarra

Oñatiko Berriaren lagunen taldeak bilera irekia egingo du hilaren 29an, 19:00etan, kultura etxean. *Zure ziztada behar dugu* kanpaina abian nola jarri eztabaidatuko dute. Herritar guztiak gonbidatu dituzte batzarrera. "Guztion ekarpenak beharrezkoak dira", esan dute batzarra deitu dutenek.

## Emakumeen osasunari buruzko pelikula eta eztabaida

Hilaren 28a emakumeen osasunaren aldeko nazioarteko eguna delako, Andraitz emakume feministen taldeak pelikula bat emango du kultura etxean *Mi vida sin mi*. Hilaren 29an izango da, 19:00etan. Emakumeen osasunari buruzko pelikula da. Ondoren, gai horren inguruko eztabaida egingo dute parte-hartzaileen artean.



## Heriotzarik gabeko arrantza ikastaroa antolatu du gaztelekuak ekainerako

M.B. | OÑATI

Gaztelekuak heriotzarik gabeko arrantza txapelketa antolatu du ekainerako. Hain justu ere, ekainaren 1ean eta 2an egingo dute, Urkulun edo Oñatin, eguraldiaren arabera.

Lehen egunean, parte-hartzaile bakoitzak arrantzaren gainean dituen ezagutzak ikusi eta ur gezatan erabiltzen diren modalitateen gaineko informazioa emango dute: amu naturala, eulia, jaurtiketa, heriotzarik gabeko arrantza... Hurrengo egunean, arrantzan egingo dute, eta, horretarako, beharrezkoa den guztia emango diete parte-hartzaileei.

**Leku mugatuak**

Bada, arrantza ikastaroan parte hartu gura dutenek gaztelekuko Gazte Informazio Puntuan eman behar dute izena, eta leku mugatuak daude.


MIKEL MANTXOLA

## Infantil mailako neskak, txapeldun

Nesken infantil mailako Aloña A taldeak Orion jokatutako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen, Ereintza A taldeari gailenduta: 24-23. Jon Ander Osinagak eta Irene Anduagak zuzentzen duten taldeak partidu lehiatsua jokatu zuten. Bada, datozen bi asteetan Euskadiko txapelketa jokatuko dute Bizkaiko eta Arabako txapeldunen kontra.


Goitibeherak Larrain Gainetik Errekaldera jaitsiko dira. | GOIENA

# Errekaldeko jaiak hasteko, sagardo dastatzea gaur

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

San Isidro jaien ondoren, Errekaldekoak ospatuko dituzte aste bukaeran. Gaur hasita, askotariko ekitaldiak egingo dituzte ume eta helduendako.

19:00etan etxafuegoak botata hasiko dituzte festak. Ondoren, Errekaldeko plazatxoan, txorizo eta sagardo dastatzea izango da, txorimaloek auzoari buelta ematen dioten bitartean. 20:00etan garagardo festa egingo dute eta 21:00etan hasita, rock kontzertua: Sex Museum, Sharon Stoner, Arkada, Gas eta The Capaces taldeak.

Zapatuan, 11:00etan, hiruko saskibaloi txapelketa egingo dute, eta 16:00etan, III. goitibehera jaitsiera, Larrain Gain elkartetik Errekaldera. Haurrendako puzgarriak ipiniko dituzte (16:30). Rock kontzertuaren aurretik (23:00etan, Miren, Agur eta Gorka, eta Los Zopilotes Txirriaos) poteoa egingo dute triki-txaranγarekin.

**Auzo bazkaria eta meza**

Domekan, hildakoen aldeko meza, Oñatzekoen emanaldia, auzo bazkaria eta mus txapelketa egingo ditutze. 19:00etan Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldekoek emanaldia egingo dute. Jaiak 00:00etan bukatuko dituzte etxafuego jaurtiketarekin.

## Askotariko ekintzak egingo dituzte Elkar Hezi egunean

Elkar Hezi eguna ospatuko dute gaur. DBHko eta Batxilergoko ikasleak Iturrigorrira joango dira, eta askotariko ekintzak egingo dituzte han: herri kirolak, pintxo lehiaketa, *Altxorraren bila...* 18:30ean jaialdia egingo dute. Puzgarriak ipiniko dituzte, dantzak eta antzerkitxoak egin eta bertsoak kantatu.

Eguna bukatzeko, afari-merienda egingo dute Santa Marina plazan. Sagardo kupela eta ogitartekoak egongo dira guztiendako.

## Ekainaren 5ean hasita, haur danborradako entseguak

Irailean San Migel jaietan egingo dute haurren danborradako entseguak ekainaren 5ean hasiko dituzte. Ikastetxeetan oporrak hartu aurretik sei entsegu egingo dituzte: ekainaren 5ean, 7an, 12an, 14an, 19an eta 21ean. Errekaldeko lokalean batuko dira martitzenetan eta eguenetan, 19:00etatik 19:45era. Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako umeek parte hartuko dute. Oporren ondoren, irailean, beste hainbat entsegu egingo dituzte.

**DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA**

**BERGARAN:**



IEPS Miguel Altuna GLHBI Bergara
Ibargarai 1. Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40
Ate irekiak: Maiatzak 19, 11:00etan

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Mekanizazioa
  - Administraritza kudeaketa
  - Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Diseinua fabrikazio mekanikoan
  - Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
  - Automatizazioa eta robotika industriala
  - Administrazioa eta finantzak
  - Mekatronika industriala
- **Espezializazio Graduondokoa:** Hotzeko estanpazioa
- Sarbide frogarako prestaketa kiaseak
- Eskaintza Partziala: Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Lanerako formazioa langile eta langabetuentzat ikastaroak
- Eskaeren araberako formakuntza

**OÑATIN:**



RM Zuazola-Larraña Institutua
San Lorentzo z/g - 22 pk. Tel.: 943 78 21 50
Ate irekiak: Maiatzak 30, 18:00etan

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Mekanizazioa
  - Mantenu-lan elektromekanikoa
  - Natur ingurunean kirol ekintzen gidaritza
- **GM sarbiderako prestaketa kiaseak:**
  - Euskara, Matematika eta Ingelesa
- **Langile eta langabetuentzat ikastaroak:**
  - Mekanizazioa, Mantenu lan Elektromekanikoak, Energia Berriztagarriak, Soldadura eta Kirol Ekintzetako Gidaritza
- **Praktikak Europan egiteko aukera**

**ARETXABALETAN:**

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarria auzoa z/g - 22 pk. Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
Ate irekiak: Maiatzak 24, 18:00etan




- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Erizaintzako zaintza osagarriak
  - Mekanizazioa
  - Soldadura eta galdaragintza
  - Karrozeria
  - Ibilgailuen elektromekanika
  - Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta (*A ereduan*)
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak:**
  - Metal eraikuntzak (*A/D ereduan*)
  - Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa (*A ereduan, arratsaldez*)
- **Langile eta langabetuentzat ikastaroak**

*"ate gehiago irekitzen dizkizugu"*

ikasLAN Gipuzkoa

**AURREMATRIKULA:** Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra. ● **MATRIKULA:** Uztailaren 5etik 11ra.

# Euskeriaren Eguna musika zaparradarekin dator bihar

- Herri bazkaria izango da plazan eta ondoren jokoak egingo dituzte
- 'Busti Hadi!' leloarekin herriko musikarien emanaldia dago iluntzean

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Ohi baino beranduago baina maiatza bukatu baino lehen dator Loramendi Elkarteak antolatutako Euskeriaren Eguna. Herri inguruan egingo duten ibilbide historikoarekin hasiko dute eguna eta poliki-poliki jai giroa joango da nagusitzen antolatutako ekintzei esker: umeen tailerrak; gazteendako jolasak; trikitilariak; bertsolariak; eta txalapartariak. Herri bazkaria plazan izango da elkarteek gertatuta: entsalada, okela gisatua eta ijito besoa.

Bazkalostean jokoak egingo dituzte bertan eta umeek *Munduan Berbena* ikuskizuna izango dute. Bolatokian, ostera, bolo txapelketa jokatuko dute eta iluntzean Larrin dantzaren txanda izango da plazan. Bestetik, Hiruatx gobernuz kanpoko elkarteak eta Okila taldeak postuak jarriko dituzte.



Herriko trikitilari gazteak Euskeriaren Eguna girotzen. | M.A.

**'Musika Zaparrada'**

Aurtengo Euskeriaren Eguneko berrikuntza *Musika Zaparrada* da. Loramendi Elkarteko Sustapen Taldeko kideek antolatu dute, eta herriko musikari ezberdinak, euskaraz kantatuta, batuko dituen "kontzertua" da. Horrekin, kontzertuak eta orokorrean aisialdia euskaraz egin daitekeela erakutsi gura dute: "Musikan edo kantuan jarduten duten aretxabaletarrak euskaraz kantatzera animatu ditugu eta herritarrei erakutsi nahi zaie euskaraz kantatzea ez dela zaharkituta geratu eta euskara musika mota, estilo eta adin ezberdinetan erabili daitekeela", azaldu dute Sustapena Taldekoek.

Hala, 16 musikari nahiz talde animatu dira 18:00etan hasi eta gauerdia arte aretxabaletarrak girotzera: "Girotu, berotu eta musika mota ezberdinez zipriztinduko gaituzte". Musika sortzaileak, gainera, adin guztietakoak dira; estilo, erritmo eta martxa desberdinak lantzen dituztenak; eta "denak ilusioz eta gogotsu" ibili dira emanaldia prestatzen. Bakoitzak ordu laurden inguruko tartea edukiko du.

"Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, egile nahiz entzule izango direnei, euskara dakigunok, gure hizkuntzaren etorkizunean pieza estrategikoa baikara, eta kasu honetan euskaraz kantatu eta musika egiteaz eta entzuteaz harro sentitu behar gara. Euskararen etorkizunean geurea da giltza!", gaineratu dute antolatzaileek. Era berean, kartelaren diseinua egin duen Jon Campo eskertu gura dute.

## BIHARKO EGITARAUA

**10:00** Herriko ibilbide historikoa (82. kilometroan hasita).

**11:00** Umeendako tailerrak.

**11:30** 12 urtetik gorakoendako jolasak, gaztelekuko kideek antolatuta.

**12:00** Trikitilariak herriko kaleetan.

**13:00** Bertsolariak eta txalapartariak plazan.

**13:20** Bertso-triki poteoa.

**14:30** Herri bazkaria plazan; ondoren jokoak.

**17:00** Umeendako *Munduan Berbena* ikuskizuna plazan.

**18:00** Bolo txapelketa bolatokian (elkarteen arteko olinpiadetarako puntuagarria).

**18:00-00:00** Musika zaparrada: *Busti Hadi!* Mitarte kalean herriko musikarien eskutik.

**19:00** Larrain-dantza plazan.

---

**Iker del Teso** | Areto futboleko jokalaria eta entrenatzailea

# "Zaleen berotasuna eskertuko genuke Oreretako finalean"

- Bihar da partidua (15:00), eta autobusa dago
- Irabaziz gero 2. mailako txapeldunak izango dira

**M.A.** | ARETXABALETA

Taldeko jokalari beteranoetakoa da del Teso eta entrenatzaile lanak ere egiten ditu. Pozik dago igoerarekin eta biharko finalerako animatu gura ditu zaleak.

**Zorionak, lortu duzue zuen helburua! Baina igoera ez da etorri ustekabean, ezta?**

Ez; aurreko bi urteotan ere aurrean ibili gara eta azkenean lortu dugu.

**Zelakoa izan da denboraldia?**

Orokorrean nahiko ona; beheralditxo bat izan genuen lau edo bost partidu galduta, baina aurrera egiten asmatu genuen. Hortaz, gustura bukatu dugu.

**Eta bihar lehenengo geratu den Bilkoin Legorretaaren aurka finala.**

Bai, halaxe da; gu itxaropentsu gaude. Nahiko parekatuta ibili gara elkarren aurka jokatu izan dugunean; guk 3-2 irabazi genien etxean eta gero eurek ere 3-2 irabazi ziguten Legorretan.

**Hortaz, zaleen berotasuna eta indarra eskertuko dituzue, ezta?**

Bai, horixe. Oreretan da partidua, kantxa neutralean, eta zaleak bertaratzea eskertuko genuke. Badakigu Euskeriaren Eguna dela hemen baina... Autobusa jarri du UDAk eta 13:00etan irtengo da Azbeko geltokitik; partidua 15:00etan da eta 19:00ak inguruko bueltan izango gara.

**Eta irabaziz gero bigarren mailako txapeldunak izango zarete?**

Bai, halaxe da; sari polita denboraldia borobiltzeko.

**Areto futboleko taldea nahiko berria dela esan daiteke, ezta?**

Bai, orain dela zazpi bat urte sortu zuten. Herri batzuetan areto futboleko tradizioa dago, Eskoriatzan esaterako, baina gurea nahiko proiektu berria da.

**Zelan sortu zen, futboletik etorritako jendearekin behar bada?**

Bai, futbolarekin apur bat nekatuta zegoen jendeak jarri zuen abian, lagun talde eta koadrila berekoak gehienak; gero, poliki-poliki, jende gehiago joan da sartzen talde sendoa osatu arte.

**Datorren denboraldian, lehenengo mailan, asko aldatuko da kontua?**

Bai; maila handiagoa dago eta ez da denboraldi samurra izango. Horregatik taldea indartzea gura dugu eta gainerako taldeen parean ibiltzea da helburua.



Iker del Teso aretxabaletarra. | M.A.

## "Areto futbolaren inguruko proiektu bat osatu gura dugu harrobia sortzeko"

**Taldea indartzearekin fitxaketak egongo direla esan gura duzu?**

Bai, pare batek, neu tartean, utzi egingo diogu jokatzeari eta beste batzuk sartu gura ditugu, taldea indartuko duten jokalariak.

**Eta zelan da posible entrenatzailerik ez izatea?**

Guztion artean lan eginda moldatu izan gara beti. Baina hemendik aurrera derrigorrez behar dugu taldea gidatuko duen norbait, eta formalidade apur bat jarri.

**Gainera, kantxa berria estreinatuko duzue lehenengo mailan.**

Bai, kiroldegi berrian jokatuko dugu. Hala ere jakin oso gustura egon garela Almen ikastetxeko kiroldegian, zaleen berotasuna oso gertu igartzen genuelako.

**Kantxa herrian bertan egotea areto futbola ezagutzera emateko ondo etorriko da, ala?**

Bai, hori bai. Gainera, areto futbolaren inguruko proiektu bat sortu gura dut: hirugarren mailan talde bat eratu, lehenengo mailarako jokalariak gertatzeko; gazteen taldea sortu; gaztetxoekin lanean hasi; eta nesken taldea ere gurako nuke.

**Proiektu potoloa dirudi horrek...**

Bai, baina egingarria dela uste dut. Jendea animatuz gero egingo dugu aurrera. Era berean, orain arte bidelagun izandakoak eskertu gura ditut: zaleak eta ikusleak; Arizmendi; eta Haizea taberna, babesle izan dugulako.

# Jateko produktuen gaineko hausnarketa egin dute ikasleek

Eskola Agenda 21 barruan landu dute, eta astean udal ordezkariei aurkeztu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Astean elkartu dira Kurtzebarri eskolako ikasleen ordezkariak Ana Bolinaga alkate eta Lore Martinez ingurumen zinegotziarekin elikaduraren gainean egindako lanaren berri emateko. Eskola Agenda 21 barruan landu dute eta herri mailako azterketa egin ondoren jasotako emaitzak aurkeztu dituzte.

**Erosketak supermerkatuetan**

Elikagaien biodibertsitatea, bertako produktuen garrantzia, elikadura eta osasunaren arteko lotura eta beste hainbat kontu azterti dituzte Kurtzebarriko 423 ikaslek. Batetik, eskolako diagnostikoa egin dute, eta bazkaria ekartzen dien Ausolan enpresari elikagaien gaineko informazioa eskatu diote; gainera, edukiontzi ezberdinak jarri dituzte geletan hondakinak sailkatzeko.

Eta bestetik, herri mailako diagnostikoa osatu dute azterketa ezberdinak eginda: bertan ekoiztutako produktuen gainean galdetu; herritarren kontsumo ohituren gainean aztertu eta produktu ekologikoak non erosi behatu; sukaldari lanetan jardun; Basherri kontsumo taldea ezagutu; produktu transgenikoak ezagutu eta horiek identifikatzeko etiketak aztertu; eta munduan dagoen elikaduraren gaineko arazo larriaren gainean hausnartu.

Jaso dituzten ondorioen artean daude herritarrek supermerkatuetan egiten dituztela erosketa gehienak, haragia izan ezik; janariaren jatorria beti ez dela ezagutzen baina ez zaiola garrantzirik ematen horri; baserritarrei gutxi erosten zaiela; etxean produktu transgeniko ugari ditugula; eta herriko dendetan produktu ekologikoak lortzea zaila dela.

**Konpromiso eskaera**

Ikasleek hainbat konpromiso hartu dituzte tartean, bertako eta garaiko produktuak kontsumitzea eta azoka eta denda txikietan gehiago erostea. Eta eskolak ere hartu ditu konpromisoak horien artean gurasoendako hitzaldiak antolatzea.

Gainera, Udalari hainbat proposamen egin dizkiote: azokak eta denda txikiak bultzatzea; herritarrei ortuak lantzeko aukera ematea; Basherri kontsumo taldea bultzatzea eta talde gehiago sortzen laguntzea; informazio eta hausnartze kanpainak egitea adibidez transgenikoen gainean, bertako produktuen gainean eta baserritarren egoeraren gainean; laguntzak ematea bertako produktuak lantzen dituztenei…

Alkateak eta zinegotziak egindako lana eskertu diete eta eskaerak aztertuko dituztela esan.



Kurtzebarri eskolako neska-mutikoak udaletxeko osoko bilkuren aretoan alkatearekin eta Ingurumen zinegotziarekin. | M.A.



Leizarra dantza taldeko dantzariak Durana kalean. | M.A.

# Haur Dantzarien Egunean 250 bat dantzari gurean

Sei dantza taldetako kideak elkartuko dira; kalejira egin eta alardea eskainiko dute goizean

M.A. | ARETXABALETA

Domekan, hilak 27, Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute, gurean, Leizarra dantza taldeak (Leizarra musika eskola) antolatuta eta Udalaren laguntzarekin. Azken urteotan legez, sei dantza talde elkartuko dira, eta txistu doinuekin eta dantza alaiekin girotuko dituzte herriko bazterrak.

**Alardea eguerdian**

Aretxabaletako Leizarrakoekin batera bost talde elkartuko dira: Oñatz (Oñati), Lore Gazteak (Arrasate), Txikitxu (Arrasate), Urrats (Soraluze) eta Oinarin (Antzuola). Herriko txistularien dianak emango dio ongietorria egunari, eta ondoren (10:30), dantza taldeetako kideei harrera egingo diete Herriko Plazan. Kalejira egingo dute gero dantzariek herriko kaleetan (11:00-12:00), eta bukatutakoan, plazan elkartuko dira berriro: alardea eskainiko dute (12:30-13:30). Goizeko ekitaldia bukatutakoan, etxeetara joango dira dantzari guztiak bazkaltzera (13:30).

Arratsalde partean, Herriko Plazan elkartuko dira berriro eta dantza emanaldia eskaini bertan (16:30); talde bakoitzak dantza saio bat egingo du aurtengo Haur Dantzarien Eguna agurtzeko.

## Maria Eugenia Arrizabalaga EAJko kideak hiri hondakinen gainean jardungo du eguaztenean

EAJko legebiltzarkide eta Antzuolako zinegotzi Maria Eugenia Arrizabalagak hiri hondakinen kudeaketa sistemaren gaineko berbaldia eskainiko du datorren eguaztenean, maiatzak 30, Arkupeko Zaraia aretoan (19:00). Aretxabaletako EAJ alderdiak antolatu du, eta, hain zuzen ere, interesa duten herritar guztiei zabalik dagoela jakinarazi dute.



M.A.

# Jai giroa Nagusilanekoen eskutik

Nagusilan elkarteak antolatuta jai giroa izan zen nagusi GSR zaharren egoitzan, eguaztenean. Aretoa goraino bete zen Jose Mari Soroa musikariaren kantuak eta kontuak entzuteko; askok egin zioten lagun kantuan eta dantzan ere bai bakar batzuk. Egoiliarrek bertako langileak eta Nagusilan elkarteko kideak, zortzi gurean, izan zituzten lagun.

## Odol ateratzeak egingo dituzte astelehenean osasun etxean

Udaberriko odol ateratzeak hasiko dituzte astelehenean, hilak 28, Arabako Odol Bankuko kideek. Osasun etxera etorriko dira (16:30-20:00), eta odola eman gura dutenak pozik hartuko dituzte. Beste bi astelehenetan ere etorriko dira, ekainaren 4an eta 11n.

Bestalde, ekainaren 10ean, domeka, Aretxabaletan ospatuko dute Arabako Odol Emaileen Eguna. Bazkaria egingo dute Iturrigorri pilotalekuan, eta, horretarako, txartelak elkartearen bulegoan (Gasteizko Santiago ospitalea, 09:30-11:30) hartu behar dira (28 euro); azken eguna maiatzaren 30a da.

## ATXABALTA LEHIAKETA

**Hartu parte eta irabazi hainbat sari !** Loramendi

**23.** Aretxabaletako Galartza auzoko Naparrena baserriaren alboan *Zahar potzu* izeneko putzua dago. Ze berezitasun ditu?
a) Ura edan edo azalean ematen da, azaleko gaitzen sendagarri gisa.
b) Metal ura da bertakoa eta ondo gorrituta uzten ditu inguruak.
c) Bertan pilatutako urak ekartzen duen lohia oso ona da orturako.
d) Bertatik hartzen dute etxean edateko ura.

**24.** Zer esan nahi du esamolde honek? *Beti **illetia joten** dabil.*

**Erantzunak eta zure datuak** (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo *lehiaketatxabalta@gmail.com*.

23:___ 24:___
Izen-abizenak:___ Tel.:___
**Azken eguna: ekainaren 1a.**

**Aurreko galderen erantzunak:**
21: Eskoriatzako Ganuza familia.
22: **b)** garbatu.

# Printzea ez dela beti urrea erakutsiko du Amuskak

Zapatuan estreinatuko dute antzezlana, 22:00etan, unibertsitatean

**OIHANA ELORTZA** | ESKORIATZA

Printzearekin ezkontzea da askoren ametsa, baina desio hori amesgaizto bihur daitekeela erakusten du zapatuan Ausartak taldeak aurkeztuko duen *La Cenicienta que no quería comer perdices* antzezlanak.

**Bederatzi emakume aktore**

Eskoriatzako bederatzi emakumek osatzen dute Amuska elkarteko antzerki tailerrean sorreran duen Ausartak izeneko antzerki taldea. "Duela bi urte egin genuen antzezlan hau lehendabiziko aldiz, baina orain berritasunekin dator: batetik, orduan ez zeuden aktore batzuek parte hartzen dute orain; eta bestetik, eguneratu egin dugu pixka bat gidoia", azaldu du Amuska elkarteko Maribi Carrilok.

Gaztelu bat, taberna bat, dantza egiteko areto bat eta plaza bat dira antzezlan horretako agertokiak. "Agertoki asko ditu lanak eta dena muntatzen Arrasateko Amaia antzokiko teknikari batek lagunduko digu", jarraitu du Carrillok.

**Antzerki tailerretik**

Urrian hasi eta ekainera bitartean irauten du Amuska elkarteak antolatzen duen antzerki tailerrak, eta hortxe sortu zen Ausartak taldea. Ikasturtea bukatzear dute, eta urte osoan prestatu duten antzezlana erakutsiko dute zapatuan. "Hilabete bakoitzean bi zapatutan elkartu gara, entseguak egiteko, eta aste honetan ere bai", dio Maribi Carrillok. Prestatutako lana bihar taularatuko dute, 22:00etan, unibertsitatean. Sarrera bi euro da.



Ausartak taldeko aktoreak, eguazten iluntzean. | AMUSKA

Bestalde, 17:00etan, *Démeter y Perséfone* antzezlana egongo da toki berean, eta domekan, zazpi elizateetako martxa egingo dute, 07:00etan abiatuta.



Era guztietako produktuak egongo dira domekako azokan. | ESKORIATZAKO UDALA

## 18 postu domekan plazan egingo duten bigarren eskuko azokan

**O.E.** | ESKORIATZA

Domekan egingo dute joan den asteburuan egitekoak ziren bigarren eskuko produktuen azoka. Joan den domekan ziren egitekoak, baina bertan behera gelditu zen, eguraldi txarragatik, euriagatik, eta asteburu honetan egingo dute.

**18 postu**

Bigarren eskuko produktuen azokan 18 postu egongo dira, gutxienez, eta denetariko produktuak izango dituzte: arropak, jostailuak, liburuak, eta abar. Bigarren eskukoak izango dira denak, erabiliak, baina egoera onean daudenak, berrerabiltzeko modukoak. Izan ere horixe da azoka horrekin Udalak bidali gura duen mezua, produktuak berrerabili egin daitezkeela, alegia.

**Bailara osotik**

Eskoriatzan egingo da azoka, baina postuak jarriko dituztenak ez dira herrikoak bakarrik izango. Izan ere, azokak indarra hartu du sortu zenetik hona, eta inguruko herrietakoak ere interesatu dira. Hain zuzen ere, Aretxabaletako eta Arrasateko postuak ere egongo dira. Oraindik, baina, badago tokia gehiagorendako, eta interesa duenak helbide elektroniko honetara idatzi behar du: *kultura@eskoriatza.net*. Bigarren eskuko hirugarren azoka domekan egingo dute, plazan.

## Atez ateko sistema bertatik ezagutzeko irteera egingo dute bihar Antzuolara

**O.E.** | ESKORIATZA

Atez ateko sistema bertatik bertara ezagutzeko irteera egingo dute bihar, zapatua, Antzuolara. Atez atekoa zertan datzan eta sistema horren inguruan edozein herritarrek dituen kezkak zuzenean azaltzeko aukera izango da. Antzuolara egingo dute bihar irteera, hori guztia gertutik ezagutzeko, eta, handik bueltan, kale agerraldia egingo dute Eskoriatzan, *Eskoriatza ere 0 zabor norabidean* lelopean. Biharko irteerarako autobusak antolatu dituzte eta izena emateko bideak hauek dira: telefonoz 943 71 54 53 zenbakira deituta eta e-mailez *ingurumena@eskoriatza.net* helbidera idatzita.

## Haurren danborrada antolatzeko deialdi berezia egin du Udalak

San Pedro jaietan egin ohi den haurren danborrada antolatzeko deialdi berezia egin du Udalak. Lehen bileran jende gutxik parte hartu du eta danborrada kolokan egon daiteke, horiek ez direlako nahikoak antolatzeko. Bigarren bilera martitzenean da, 18:30ean, kultura etxean.




JULIO CALLEJA

## 400 sinadura kaleratzeen aurka

Gipuzkoako Stop Desahucios taldeak 400 sinadura batu zituen, zapatuan, Eskoriatzan etxeetatik kaleratzearen kontra. Gipuzkoan hilean bi familia gelditzen ei dira etxerik gabe, eta horren inguruko kezka ere azaldu zuten herritarrek. Bailara osoan dute asmoa sinadurak batzeko. Gaur, egubakoitza, Bergaran izango dira.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

# Jauregi: "Odola emateko desiratzen egoten naiz"

## Maiatzean egin du 100. odol ateratzea Luis Mari Jauregi antzuolarrak; bazkaria eginda ospatuko dute

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Lizarraga hiribideko etxean hartu gaitu Luis Mari Jauregik. Orain dela 45 urte inguru hasi zela odola ematen kontatu digu 69 urteko antzuolarrak. Joan den astean, 100. odol ateratzea egin zuen. "Orain dela 45 urte beharra zegoen, eta, horren erraza denez odola ematea, ez nuen bi bider pentsatu. Guk berehala errekuperatzen dugu, gainera!", azaldu digu Jauregik.

Baina egun, 100. odol ateratzera iristea, ordea, ez da horren erraza. "Antzuolan hasieran bi ateratze egiten ziren urtean, eta ondoren, hiru egitera pasatu ginen; gizonezkook, ordea, urtean lau bider ateratzeko aukera dugunez, Donostiara ere joan izan naiz odola ematera; bestela, ez nintzen-eta ehunera iritsiko".



Luis Mari Jauregi, oroigarria eskuan daukala. | MAIDER ARREGI

### Emaile nagusia

50. eta 75. odol ateratzeak ere gogoratzen ditu. Etxeko egongelan ditu hori ziurtatzen dituzten agiriak, koadroan sartuta. "1998an 50. odol ateratzea egin nuen, eta Arraten eman zidaten oroigarria; baita 75. ateratzea egin nuenekoa ere. Ehungarren ateratzea ospatzeko, urteko bazkaria egingo dugu". Espainiako Odol Emaile Elkarteak emaile nagusi izendatu du Jauregi. "400 mililitro ateratzen digute aldiro; betiere, dena ondo dagoela ikusteko analisiak egin ostean. Inoiz ez naiz odola ematera joan eta mariatu edo eman ezinda geratu", dio antzuolarrak. Etxean anaiak eta ilobak odola ematera joateko ohitura ere badutela kontatu digu. "Etxean hiruk eman izan dugu odola, anaiak, ilobak eta hirurok. Ohitura izan dugu beti", gaineratu digu. Odola emateko desiratzen egoten dela dio Jauregik, eta gazteak ere animatu gura ditu: "Herritarrek badakite zer egin behar duten, odola eman. Garrantzitsua da, baina gazteak ez dira askorik animatzen. Azken odol ateratzera oso gazte eta herritar gutxi joan zela esan zidaten, pena da".

Bada, odola emateko adin tartea aldatu egin dute; orain, 70 urteko nagusiek ere eman dezaketela azaldu digu Jauregik: "Lehen, 65 urte zen muga; orain, berriz, 70era arte luzatu dute, odol emaileak falta direlako-edo".

*O* positiboa darama zainetan, eta, hain zuzen, norbaitek ezetz esan artean odola ematen jarraituko duela kontatu digu.

### Marisol Abreu ipuin kontalaria gaur Torresoroan

Oihulari Clown taldearen eskutik, helduendako ipuin kontaketa saioa izango da gaur gauean, 22:30ean, Torresoroan. Marisol Abreu ipuin kontalari venezuelarrak eskainiko du ipuin saioa.

Bestalde, Oihulari Clown taldeak beste ikastaro bat antolatu du Antzuolako Laskurain baserrian. Ekainaren 3an izango da ipuin tailerra. Informazio gehiago eskuratzeko, deitu 943 76 97 90 edo 607 20 45 03 telefono zenbakira.

### 'Euskaraz bizi nahi dut' lelopean, ekintzak antolatzeko bilera

Kontseiluak antolatuta, irailaren 22an *Euskaraz bizi nahi dut* lelopean lasterketak egingo dira Euskal Herriko hainbat udalerritan. Hala, Antzuolan lantaldea osatzeko bilera egin zuten astelehenean. "Taldetxo bat elkartu ginen; jendea prest dago. Nahi duenak ekarpenak egin ditzake hurrengo bileretan, egitaraua zehaztu gabe dago-eta", azaldu digu Lierni Legorburuk, Euskara teknikariak. Hala, hurrengo bilera ekainaren 4an izango da, udaletxean, 19:00etan.

## Argazki lehiaketako irabazleak

Iker Aizkorberen *Dantza bat baino gehiago* lanarendako izan da lehen saria, 250 euro. Bigarren saria *Laskurain Txiki, gorriz dagoen hariztitik* erretratuarendako izan da; Juanjo Etxezarreta da egilea eta 150 euroko saria eskuratu du.



JUANJO ETXEZARRETA



IKER AIZKORBE

# Betiko jolas eta jokoen topaketak: elkar ezagutzeko eta ederto pasatzeko

## Sokasaltoan, txapa jokoan, diaboloarekin eta zibarekin ikusi ditugu gazteak

**T.M./M.A.** | ANTZUOLA

Goi Eskolak antolatutako Debagoieneko XI. Jolas eta Joko Tradizionalen Topaketa izan da Antzuolan. DBHko laugarren mailako 275 neska-mutiko inguruk hartu dute parte topaketan, Debagoien osokoak.

Helburua herri ezberdinetako ikasleek elkar ezagutu eta ederto pasatzea dela azaldu zigun Onintze Azpeitiak, Antzuolako Herri Eskolako irakasleak.

Goizean zehar betiko joko eta jolasak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera izan zuten neska-mutikoek; herri kirolak, aldiz, arratsalderako utzi zituzten; bazkaldu eta indarrak hartu osterako, alegia.



Eskolako patioan batu ziren 275 neska-mutiko. | TXOMIN MADINA

Sokasaltoan, txapa jokoan, diaboloarekin eta ziba botatzen, besteak beste, ikusi genituen gaztetxoak. Betiko joko tradizionalak dira horiek, gure aitaita -amamen garaitik datozenak eta Antzuolako eskolako patio estalian protagonista izan zirenak Goi Eskolak antolatutako Debagoieneko XI. Jolas eta Joko Tradizionalen Topaketan.

Neska-mutiko batzuentzat ezagunak ziren jolas eta joko tradizional horiek; beste batzuentzat, aldiz, jolas horietan ibili diren lehen aldia izan dela kontatu ziguten. Aurretik ezagutu edo ez, ederto pasa zuten, baina, guztiek ere. Hala ere, jolas garaian zertara jolas egiten diren galdetuta, futbola eta saskibaloia izan dira, batez ere, jaso ditugun erantzunak. Dena den, topaketaren erantzuna ikusita, egongo da, akaso, ohiturak aldatuko dituenik.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



Hainbat ekintza egingo dituzte, tartean eskulanak. Irudian, iazko jaian egindako paperezko lore erraldoia. | AIZPEA AJURIAGERRA

# San Martin eskolaren jaia bihar, familia giroan ondo pasatzeko

Laugarrenez ospatuko dute jaia aurten, guraso, ikasle eta irakasleak batzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Egun handia izango da biharkoa San Martin eskolakoendako. Aurten laugarrenez, ikasturtea agurtzeko jaia ospatuko dute. Eskolaren jaia, urtean zehar egiten diren beste hainbat ekintzen antzera, guraso eta irakasleek elkarlanean antolatzen dute. Jaiaren helburua da, Aizpea Ajuriagerra antolatzaile lanetan dihardruen gurasoak azaldu duenez, guraso, irakasle eta ikasleak egun batez elkartzea, eta "ondo pasatzea, noski!".

Askotariko ekintzak izango dira, arratsaldean hasita: haur zein gurasoendako tailerrak –sukaldaritza tailerra, kasu–, tirolina, partaide guztien artean gozatzeko jolasak, karaokea, afari-merienda, erromeria... Haurrendako ekintzak bereziki, baina familia giroan egun ederra pasatzea ahalbidetzen dutenak. Hala, antolatzaileek dei berezia egin diete herritar guztiei jaiarekin bat egin dezaten: "Edonor dago gonbidatuta, baina batez ere gurasoak, halako ekitaldietan gehiago kostatzen zaigu-eta partе hartzea. Ederto pasako dugu!".

**Elkarlana eta harreman ona**

Esandako moduan, guraso eta irakasleen elkarlanari esker antolatzen da jaia. Ajuriagerrak dioenez, guraso elkarteko kideen eta irakasleen arteko harremana "oso ona" da: "Oso giro polita dago", dio.

Bestalde, ekintza guztiak eskolako patioan egingo dira eta euria egiten badu bigarren aukera da ekintzok pilotalekuan egitea.

**ESKOLAREN JAIKO EGITARAUA**

**16:00** Ongietorria.

**16:00-17:30** Tailerrak: eguzki–loreak, zibak, aurpegi–margotzea, txalaparta, homa–irudia, sukaldaritza (gurasoendako), patata–tortilla pikea...

**17:30-18:00** Tirolina.

**18:00-19:00** Jolasak: aulkiak, besarkada, musika...

**19:00** Karaokea.

**20:30** Afari–merienda eta ondoren erromeria Al DJarekin.

## 'Oporrak Bakean' programarekin bat egin du Udalak

*Oporrak Bakean* programaren barruan aurten Saharako 410 haur ekarri gura dituzte EAEra, 2012ko ekainaren 30etik 2012ko abuztuaren 30era bitartean. Jaurlaritzako Osasun Sailak haurren osasun laguntza bere kargu hartuko du eta erantzukizun zibilari eta istripuei aurre egiteko aseguru pribatua izango dute. Era berean, Aramaioko Udalak bere gain hartuko ditu haurraren bidaiaren gastuak. Programaren gaineko argibide gehiago, udaletxean.

## Rock doinu gogorrak bihar Andra Marin: Eguzkierripa Rock

Gazte Asanbladaren ekimenez, Eguzkierripa Rock jaialdiaren laugarren edizioa ospatuko dute bihar Andra Mari ermitan: 12:30ean, musikaz girotutako txikiteoa egingo dute Ibarran, eta 14:30 aldera hasiko da bazkaria. Kontzertuak 20:00 aldera hasiko dira. Bost talde guztira, arabarrak guztiak, eta Aramaioko bi talde: El Exterminio de la Raza del Mono eta Gorroto. Gainerako hiru taldeak, Eskean (Arratia), Zirkinik Bez (Arratia) eta Astalapo (Izarra).

## Aramaio protagonista izan da eskola arteko bertso txapelketan

**J.B.** | ARAMAIO

Bertsolari aramaioarrak protagonista izan dira beste behin Arabako eskola arteko bertso txapelketan. Legution jokatutako finalean, haurren mailan Oier Iñurrieta gasteiztarrarekin batera Unai Etxenausia aramaioarrak ordezkatuko du Araba Euskal Herriko txapelketan. Gazteen mailan, bestalde, bertsolariek gogoz heldu zioten saioari. Guztiek hiruna bertso abestu behar izan zituzten zortziko handi eta txikian. Bakarka, aldiz, bina puntu erantzun eta hitza izan ziren egin beharreko lanak. Paula Amilburu aramaioarra nabarmendu zen: puntuazio altuena lortu ostean (172, 5 puntu) Euskal Herriko eskola arteko txapelketa Arabako ordezkaritza osatuko du Iñaki Tenarekin (162 puntu) batera. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, Amilburu ederto ibili zen: "Aipatzekoa da bakarkako lanetan bertsolari gazteek erakutsitako maila. Amilburuk beldurrari botatako bertsoa, esaterako, goitik beherakoa izan zen".



Eskola arteko txapelketa irabazleak; tartean Amilburu, txapelarekin. | ABTX



BLANCA MENDIALDUA

## Papargorri abesbatza 'Arabatxo' kantaldian

Arabako haur abesbatzen federazioak kontzertua eskaini zuen joan den domekan Gasteizko Kontserbatorioan eta Aramaioko Papargorri abesbatzakoek ez zuten hutsik egin. Abesbatzako eskolania aurreko eta eskolaniako haurrek abestu zuten, guztira sei abesti. Eta abestutakoen artean, Michael Jackson–en, Leonard Cohen edota The Beatles taldearen abestiak. Kontzertua Youtube–n dago ikusgai; bideoa ikusteko webgune horren bilatzailean *Arabatxo 2012* idatzi behar da.

## Kostata, baina horra 1.000 piezako puzzlea

San Martin eskolako bost urteko 17 neska mutikok erronka ederra hartu zuten duela bi hilabete: 1.000 pieza dituen puzzlea egitea, hain justu. Kostata, baina helburua bete dute eta emaitzarekin pozik atera dute argazkia. Zorionak!



SAN MARTIN ESKOLA

ELGETA

# Lurjabeekin kontrastatu gura du Udalak herri-bideen inbentarioa

Ekainaren 8ra arte dago zabalik zuzenketa edo erreklamazioak egiteko epea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako udalak herri-bideen inbentarioa egin du, eta prest du herriko 61 bide jasotzen dituen dokumentua. Orain, lurjabeen parte-hartzea behar du inbentarioan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko. Garrantzitsua da lurjabeak udaletxetik pasatzea; inbentarioan jaso diren datuak ondo dauden egiaztatzea eskatzen zaie, izan ere, dokumentua bideen mantenua nori dagokion zehazteko erabiliko dute, besteak beste. "Auzolanean garbitzen ditugu herri-bideak eta gertatzen da lagun gutxi agertzea. Asmoa da bideak auzolanean garbitzera etortzerik ez duten erabiltzaileei diru kopuru bat kobratzea", esan du baserritarren batzordeko burua den Patxi Basaurik.



Nerea Villa eta Patxi Basauri Elgetako herri-bideen inbentarioarekin. | L.Z.

### Lurjabeen inbentarioa

Azaroan hasi zen Nerea Villa elgetarra herri-bideen inbentarioa egiteko lanetan. Foru Aldundiaren *Gipuzkoako Landa Bideen Inbentarioa* eta *Mendi Nekazaritzaren Plana* erabili ditu oinarrizko dokumentazio moduan, baina ez da nahikoa izan, eta bide gehienetara joan behar izan du informazioa osatzera.

Argazkiak atera, bideen luzera, zabalera eta azalera neurtu, GPS koordenadekin kokapena zehaztu... bulegotik kanpoko lan handia eskatu du inbentarioa egiteak, eta ondotik etorri da bide horien guztien erabiltzaileen zerrenda egin ahal izateko artxiboko lana.

Lurjabeen inbentarioa den bigarren dokumentu hori ere gertu dute udaletxean; partzela ezberdinen lurjabeen izen-abizenak jasotzen ditu. Udalak, orain, interesatuen parte-hartzea eskatzen du datu horiek guztiak kontrastatzeko.

### Bide zaharrak desagertzear

Elgetako herri-bideetan hainbeste denbora eman ostean datu kurioso ugari batu ditu Villak eta informazio hori guztia osatzea gustatuko litzaioke. Desagertuta edo desagertzear dauden elizbideak, gurdibideak eta oinbideak zerrendatu ditu. Momentuz 33 dira eta Villak informazio hori osatzeko laguntza ere eskatzen die herritarrei.

# Eibar-Elgeta taxibus zerbitzuak 298 erabiltzaile lehen hilabetean

L.Z. | ELGETA

Apirilaren 16a ezkero dago martxan Eibar eta Elgeta lotzen dituen taxibus zerbitzu berria. Balorazio ofizialik ez badago ere, datua esanguratsua da: 298 erabiltzaile izan ditu zerbitzuak lehenengo hilabetean.

Maiztasuna handitu izana izan daiteke herritarrek emandako erantzunaren arrazoietako bat; aste barruko egunetan zazpi zerbitzu daude Eibartik Elgetara eta beste zazpi Elgetatik Eibarrera. Zapatu eta jaiegunetan, berriz, lau zerbitzu ditugu gora eta beste lau behera. Orain, gainera, erabiltzaileak ez daude zerbitzua aldez aurretik eskatzera derrigortuak.

Hasiera batean, planteamendua zen beharrezkoa zela Lurraldebus txartelaren jabe izatea, eta zerbitzua 24 orduko aurrerapenarekin eskatu behar zela telefonoz.

### Elgeta-Bergara zerbitzua

Eibar-Elgeta taxibus zerbitzuak erabiltzaileak dituela ikusita, pentsatzekoa da laster iritsiko dela herritarrek Diputazioari eskatutako beste taxibus zerbitzua; Elgeta eta Bergara lotzen dituena, alegia.

Udalak herritarrekin batera landutako ordutegi proposamenaren berri badute Diputazioan. Foru Aldundiak du orain azken hitza.

## Lapurrak gaztetxean astebetean bi aldiz sartu eta gero, gaztetxea bakean uzteko eskatu dute gazteek

Bariku eta zapatu artean eta astelehen eta martitzen artean sartu dira lapurrak Elgetako gaztetxean. "Ez dute askorik eraman; likore batzuk. Ez dago besterik eramateko", azaldu dute gaztetxetik. "Lapurtu duenak ez du egin inondik inora beharra zuelako, eta hain balienteak badira lapur diezaiotela larregi daukanari eta ez daukan gutxia lortzeko esfortzu handia egin behar duenari", adierazi dute, haserre.

## Ikasturteko azkeneko saioa egingo dute 'Herrixa dantzan' ekimenekoek: txokolate jana prestatu dute

Berezia izango da domekako *Herrixa dantzan* saioa Espaloian. Ohikoa denez, 18:00etan hasiko da haurrendako eta gurasoendako saioa, eta 18:45ean txokolate-jana egingo dute. Helduendako saioa 19:00etan hasiko dute: "Xut fanfarreak argitaratu berri duen CDko pieza batzuk dantzatuko ditugu", esan du Patxi Monterok. Aurrerantzean ere egongo da dantzarako aukera Elgetan; ekainaren 2ko Koadrila Egunean eMePebo5t taldea izango da plazan, eta jaietako barikuan Jainaga eta Narbaiza.

# Frontenisa erabakita, bolo txapelketa dago jokoan



Frontenis txapelketako finalistak garaikurrekin. | L.Z.

L.Z. | ELGETA

Markagailuan alde nabariarekin erabaki dira aurten frontenis txapelketako bi finalak. Elkoro anai-arrebek 25-13 irabazi zioten Idoia Serna-Asier Osoro bikoteari, eta gizonezkoen txapelketan Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro bikotea 25-09 nagusitu zitzaion Iban Retolatza-Xabier Ubera bikoteari. Hortaz, bi txapel jantzi ditu Enrike Elkorok.

### Hiru txirlo txapelketa

Bestalde, jokoan segitzen du Gipuzkoako hiru txirlo txapelketak. Zapatuan Elgetan jokatutako jardunaldiaren ostean, Rikardo Albizuri da sailkapenean Elgetako lehenengo ordezkaria, 14. postuan. Geaxi Ezpeletak, berriz, bigarren segitzen du emakumezkoen sailkapenean.

## OHARRAK

**ELGETA ZERO ZABOR**
Zero zabor taldea osatzeko batzar irekia deitu dute gaurko, 19:00etan, kultura etxean.

**INTXORTAKO LEHOIAK**
Gaur, 19:30ean, Athleticzaleen txikiteoa Bolatokitik abiatuta.

**MENDI IRTEERA**
Kantsatzekek antolatuta irteera Gorbeiara bihar, 08:00etan.

**BISITA GIDATUA**
Domekan, 10:00etan, bisita gidatua egingo dute Intxortako gerra eremura. Interesatuek 943 71 89 11 telefono zenbakira deitu behar dute.

**UMEEN EGUNA, ATZERATUTA**
Bergarako jaiekin batera dela -eta, gaztetxeak ekainera atzeratu du aste bukaeran egitekoa zuen Umeen Eguna.

LEINTZ GATZAGA

# Hondarribira joango dira herriko erretiratuak ekainaren 7an

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Toki Eder elkarteko erretiratuek ekainaren 7rako, eguena, gertatu dute udaberriko irteera, eta, ohi bezala, kostaldera joango dira, Hondarribira, hain zuzen ere: "Udaberrian kosta ingurua dugu gustuko eta udazkenean barrualdea, Nafarroako parajeak. Aurretik ere egonda gaude Hondarribian, baina beste bueltatxo bat ematea pentsatu dugu", jakinarazi du elkarteko presidente Pedro Mari Elkorobarrutiak.

Izena emateko epea zabalik dute maiatzaren 31ra arte; Tere Aranburuzabala eta Joxe Gorosabel batzordeko kideengana jo dezatela interesa dutenek. Bazkide ez direnak ere joan ahal izango direla jakinarazi dute; horretarako, urteko bazkidetza (9 euro) ordaindu beharko dute aurretik.

### Lesaka eta Bera aldera

09:00etan aterako dira Gatzagatik, eta hamarretakoa egiteko iritsi Hondarribira. Lesaka eta Bera inguruak ezagutzera joango dira gero, eta Hondarribira itzuli bazkaltzera. Arratsalde partean, etxera bidean, Zumaia inguruan geratzeko asmoa dute, eta beste bueltatxo bat eman.

# Mundumira jaialdia baloratzeko bilera egingo dute gaur udaletxean

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Mundumira, munduko kulturen jaialdia, pasatu ondoren haren gaineko balorazioa egin gura dute Udal ordezkariek. Horregatik bilera deia egin dute gaurko (19:00); udaletxean elkartuko dira eta zeresanen bat duen herritarrak bertan izango du aukera horren berri emateko.

### Eguraldiak lagundu ez

Eguraldiak ez zuen asko lagundu joan den aste bukaeran, baina herritarrek buru-belarri jardun zuten lanean bai egunean bertan, baita aurreko asteetan ere, inolako arazorik sor ez zedin jaialdiak iraun bitartean. Orain egindako lana eta jaiak emandakoa baloratzeko tartea hartuko dute.

FUTBOLA

# Ibarreko Athleticzaleak, Europako finaleko kolpea gainditzeko asmoz

Guztiak bat datoz: Athleticek aurpegi onena erakusten badu, aukerak izango ditu gaur

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Denboraldi ona egin ostean, lortutako bi sarietako azkena jokatuko du Athleticek gaur gauean (22:00). Lehenengo sariak zapore garratza izan zuen, eta, askoren kasuan, motz geratuko gara esaldi horrekin, Europako finala Atletico Madril taldearen kontra galtzeak –galdu zuten moduan– zapore txarra baino askoz gehiago eragin zuelako, aspaldiko atsekabe handiena, askoren kasuan: "Bizi osorako disgustua geratu zait niri, zalantza barik. Sekulakoa hartu nuen, eta ea Errege Kopa hau irabazita gorputz txarra baretzen zaidan apur bat", onartu digu zintzo Madrilera abiatu aurretik Intxortako Lehoiak taldeko presidente Felix Irizar elgetarrak.

Haritz Gallastegi ere Madrilera abiatu aurreko bezperan harrapatu dugu, eta Euskadi Irratiko esatariak eztarria urratzeko asmoz hartu du Espainiako hiriburuko bidea, Athleticen golak ospatuz, noski. Europako finala galdu arren, baina, Gallastegik ez du talde zuri-gorria egiten dabilen denboraldia aspaldian ahaztuko: "Badakigu gurean dena dela zuria edo beltza, gris koloreak ez du lekurik. Finalak irabazten ez badira, badirudi ez dugula urtean zehar ezer egin, eta nik uste dut Athleticek sekulako denboraldia egin duela. Iaz urte polita egin genuen sailkapenari begiratuta, Europan sartu ginen, baina Athleticen jokoa erabat aspergarria zen. Eta futbolean garrantzitsuak emaitzak badira ere, Bielsak lortu du talde zuri-gorriak bikain jokatzea, ilusioa errekuperatzea. Athleticzalea ez denak ere aurten gustura ikusi talde zuri-gorria, niri Mostovoiren eta Karpinen Celtarekin gertatzen zitzaidan gauza bera".

> ESANAK
>
> **"Athleticek eskatu beharko luke Madrilen final gehiago ez jokatzea, han ez gara-eta ongietorriak"**
>
> FELIX IRIZAR | ELGETA


Amorebieta eta Ibai Gomez, Messi geratu nahian. | ELDIARIO MONTAÑES

### 'Espe', motorrak berotzen

Gaurko finalak beste osagai batzuk ere baditu, futboletik haratagokoak. Eta batzuk arduratu dira aste barruan horiek berotzeaz; tartean, Esperanza Agirre: "Ea Madrilen ez den istilurik egoten eta ez garen probokaziotan erortzen", diosku Felix Irizarrek. "Athleticek eskatu beharko luke Madrilen berriro finalik ez jokatzea, han ez gara -eta ongietorriak". "Politikariek, gutxienez, zuhurtziaz jokatu beharko lukete, eta berba egin aurretik gauzak birritan pentsatu", dio Gallastegik. "Lehen ez dakit txistu egingo nukeen", dio Arnaitzek: "Baina sekulako gogoak sartu zaizkit orain".



**FELIX IRIZAR**
ELGETA

"Tituluren bat irabazten ez badugu, denboraldia pattal geratuko da. Athleticek Europan egin duena galanta izan da, sortu duen ilusioa, izan duen joko maila... Baina titulua lortzea beste gauza bat da ".



**BEÑAT ARNAIZ**
ARETXABALETA

"Disgustu galanta hartu genuen, eta uste dut oraindik taldeak eta zaleok ez dugula gainditu. Finalari begira, jokalariengan baino gehiago, entrenatzailearengan dut konfiantza".



**HARITZ GALLASTEGI**
ELGETA

"Finalak ez dira egunero jokatzen, eta Athleticek denboraldian zehar izandako maila erakusten badu, aukerak izango ditu. Dena dela, talde zuri-gorriak aurten egin duena demasekoa izan da".



**PELLO GARITANO**
BERGARA

"Gaurko finala baino esperantza handiagoak nituen aurreko finalean. Bartzelona da faborito, eraginkortasun handia dute, baina Athleticek denboraldian zehar erakutsi duen mailan jokatzen badu, argi".



**ANTON ELORTZA**
OÑATI

"Atsekabeak ahaztu egin behar dira; Bucaresten Municheko Bayernen kontra jokatu izan bagenu, beste kontu bat izango zen. Taldeak ondo jokatzen badu, seguru izango dituela partidua irabazteko aukerak".

PILOTA

# Bergarako eta Arrasateko pilotariak herri artekoan




X.U. | ARRASATE

Asteburuan nahi beste pilota izango dugu, pilotari profesionalekin eta domekan jokatuko dituzten Debarroko txapelketako finalekin batera –Bergarako jaietako gehigarrian informazio gehiago– herri arteko txapelketan burubelarri ibiliko dira-eta Arrasateko eta Bergarako pilotariak.

### Arrasatekoak gaur Uarkapen

Gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita, Arrasateko pilotariek Hernanikoen kontra jokatuko dute bigarren kanporaketa, Uarkapen. Joan den astean Amezketa kanpoan utzi zuen Arrasatek, eta horrek pilotariei konfiantza eman badie ere, ondo dakite gaurko kanporaketa gainditzea zailagoa izango dela, Hernani faborito da-eta. Kadetetan Markel Moron eta Joseba Garate lehiatuko dira, gazte mailan Markel Prieto eta Oier Arregi eta seniorretan Aritz Zuazua eta Ibai Bolinbaga.


Herri artekoan dabiltzan Arrasateko pilotariak. | ARRASATE PILOTA TALDEA

Bergarak, berriz, gaur egingo du herri artekoan debuta, 19:30ean, Zestoaren kontra. Kadetetan Ander Aristi eta Pello Etxaniz, gazte mailan Mikel Gallastegi eta Dani Diez eta nagusietan Mugurutza lehengusuak izango dira Bergarako ordezkariak.

MENDIA

# Ander Elortondo: "Aiba! mendi martxak 300 irabazle izaten ditu"

## Ekainaren 3an egingo duten mendi zeharkaldian izena eman daiteke oraindik

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Aiba! mendi martxako bosgarren edizioa egingo dute datorren asteburuan, eta eguenean amaituko da, hilak 31, izen-emate epea (*www.kirolprobak.com*). Hala, azken urteotan bezala, antolatzaileek aurreikusten dute bete egingo dela 300 laguneko gehienezko kopurua: "Udalatx eta Anboto inguruak ez dira jende mordoa batera bidaltzeko moduko lekuak, horregatik jartzen dugu muga hori", diosku antolatzaile lanetan dabilen Ander Elortondok.

Aurtengo edizioak bat egingo du Euskal Herrian distantzia luzeko proba ezagunenarekin, Hiru Handiak probarekin. Eta, joan den astean bertan egin zuten nazioartean sekulako ohiartzuna duen beste mendi lasterketa bat, Zegama-Aizkorri: "Nik uste dut halako probetan jendea txunditua geratzen dela inguruan dauzkagun parajeekin, askotan etxean duguna ez dugulako horrenbeste baloratzen".



Aiba! mendi martxako aurreko edizio bat. | GOIENA

**Lasterketa ez, martxa**

Bi proba horiekin alderatuta, baina, Aiba!-k ez dauka lehiakortasunerako grinarik: "Hain zuzen, paraje eder hauetaz gozatzeko guk nahiago dugu hitzordu lasaiagoa proposatu, laguna atzean utzi baino gehiago lagunartean egiteko pentsatuta dagoen martxa".

Aurten ere *Mari* (43 km) eta *Azpiko* (36 km), bi ibilbide ezberdin izango ditu Aiba!-k, bakoitzaren mailaren arabera. Besaide mendi elkartearen webgunean duzue informazio guztia (*www.besaide.org*).

ESANAK

**"Lagunartean egitekoa da, eta ez laguna atzean uztekoa"**

ANDER ELORTONDO | ANTOLATZAILEA

TXIRRINDULARITZA

### Domeka goizean egingo dute Pentekoste saria

Amateur mailako ziklistak lehiatuko dira domeka goizean Bergaran, Pentekoste sarian (09:30). Ziklistek 120 kilometro izango dituzte aurretik, eta gehienak bailarako errepidean egingo dituzte. Aurrekoetan moduan, 106. kilometro inguruan Asentzioko maldek erabaki dezakete proba.

TXIRRINDULARITZA

### Bergarako hiru ziklista Gipuzkoako erlojupeko txapelketan izango dira

Iaz bezala, aurten ere Lokatza Ziklismo Eskolako hiru txirrindulari izango dira Gipuzkoako erlojuaren kontrako txapelketan. Julen Irizar, Beñat Etxabe eta Jokin Etxabe izango dira parte hartuko duten txirrindulariak. Ohi bezala, Gipuzkoako erlojupekoa Aizarnazabalen jokatuko dute.

MENDI DUATLOIA

### Argider Isasti garaile Los 10.000 del Soplao proban, Kantabrian

Joan den astean egin zuten Kantabrian Los 10.000 del Soplao lasterketan Oñatiko Argider Isasti izan zen azkarrena. Probak hainbat modalitate izan zituen, eta Isastik mendiko bizikletarekin eta korrika egin beharreko proban irabazi zuen. Eguraldiak izugarri baldintzatu zuen proba.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**ERREGIONAL OHOREZKO M.**
Behobia-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Gal.
Bergara-Real Union
Zapatua. 17:30. Agorrosin.
Trintxerpe-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Don Bosco.
Mondra-Urola
Zapatua. 18:00. Mojategi.

**OHOREZKO GAZTEAK IGO.**
Bergara-Aloña Mendi
Gaur. 18:30. Ipintza.

**OHOREZKO GAZTEAK KOPA**
Elgoibar-Mondra
Zapatua. 16:00. Mintxeta.

**OHOREZKO KADETEAK, KOPA**
Aretxabaleta-Orioko
Zapatua.12:00. Ibarra.
Aloña Mendi-Anaitasuna
Zapatua. 12:00. Azkoagain.
Hondarribia-Bergara
Zapatua. 12:00. Ondartza.

**ARETO FUTBOLA**

**BIGARREN MAILA**
Legorreta-Aretxabaleta
Zapatua. 15:00. Errenteria.

**ESKUBALOIA**

**GIPUZKOAKO KOPA**
Usurbil-Ford Mugarri Arrasate
Gaur. 20:00. Oiartzun

**LEHEN LURRALDEKO KOPA**
Izarraitz Aloña-Soraluce BKE
Gaur. 20:30. Labegaraieta.

**BIGARREN LURRAL. KOPA**
Talleres Ondo-Arrasate
Zapatua. 16:15. Legazpi.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Atez Ate Usurbil-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Usurbil.

**SASKIBALOIA**

**GAZTEAK, PARTAIDETZA**
Urola-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Urretxu.

**KADETEAK GIZ. PARTAIDE.**
Ayma Goierri-MU A
Zapatua. 12:15. Urretxu.
Soraluce BKE BKL A
Gaur. 18:00. Bergara.
Zast zarautz-MU B
Zapatua. 16:00. Antonianos.
Zast Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Antonianos.
Triki Take-Soraluce Bergara
Zapatua. 10:30. Tolosa.

**KADETE EMAKUMEZKOAK**
Soraluce Bergara-Comercial
Zapatua.16:15. Bergara.
Arizmendi Esko.-Andraitz
Zapatua. 10:30. Eskoriatza.
Soraluce Bergara 3-Take Urkizu
Zapatua. 12:00. Bergara.

**INFANTIL GIZONEZKOAK**
LEK Ointxe-Easo
Zapatua.10:30. Musakola.
LEK Arrasate-Txikierra
Zapatua. 10:30. Iturripe.
Aloña Mendi-LEK 2. urtea
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**INFANTIL EMAKUMEZKOAK**
Soraluce Bergara-LEK Eskoriatza
Zapatua. 10:00. Mariaren Lagu.

**PILOTA**

**HERRI ARTEKO TXAPELKETA**
Arrasate-Hernani
Egubakoitza. 19:00. Uarkape
Bergara-Zestoa
Egubakoitza. 19:30. Udal pilota.

**DEBARRO TXAPELKETA**
Finalak
Domeka. 10:30. Bergaran:
Arrasate-Deba
Arrasate-Bergara
Elgeta-Bergara.

**PROFESIONALEN JAIALDIA**
Pentekoste jaien barruan
Martitzena. 17:00. Bergaran
Olazabal-Merino vs Mendizabal-Cecilio
Titin-Merino vs Gonzalez-Barriola

**GOITIBEHERAK**
Domekan, 15:30. Bergaran, San Martzialgo bidean.

**HERRI KIROLAK**

**PENTEKOSTE JAIEN BARRUAN**
Martitzena. 12:00. San Martin plazan.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

**GIPUZKOAKO FEDERATU ETA ESKOLA ARTEKO A MAILAKO TXAPELKETA**
Zapatua. 10:00etan eta 17:00etan. Labegaraieta.



GOIENA

**GOITIBEHERAK BERGARAN** Azken urteotako arrakastari eutsita, aurten ere goitibehera lasterketa egingo dute Pentekoste jaietan Bergaran (domekan, 15:30ean).




ERREGE KOPAKO FINALA

Aupa, Athletic!

ANTTON TABERNA OÑATI

BERANGO DEKORAZIOA, SUKALDEAK ARRASATE

Arraindegia EGUREN Arrasate-Eskoriatza

OÑATI TABERNA Oñati

TOKI ONA BODEGOIA Bergara

LARREA TABERNA ANTZUOLA

**HOTEL JATETXEA SANTA ANA** ★★★

Uribarri 37 (Udala bidean) • ARRASATE • Tel: **943 79 49 39**
*www.santaanamondragon.com*

## *Paraje ezin hobea, eta uda giroarekin... zer hobe!*

## *Goza ezazu gurean...*







## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa Eusko Labelarekin.

Larrinetxe
JATETXEA

## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**
- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

**Martitzenetan itxita.**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**
- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.

KULTURA

# Oñatitik Europara eta Ameriketara Azpiazutar Josebaren talentua

Oñatik izan duen musikari handienetakoa domekan omenduko dute, Santanan, 19:30ean; Baranzano gitarra-jotzaile uruguaiarrak Azpiazu zenaren gitarra joko du

MAIDER ARREGI | OÑATI

Bihar mendea beteko da Jose de Azpiazu gitarra-jotzaile eta musikaria jaio zela, 1912ko maiatzaren 26an jaio zen-eta. Europan eta Amerikan ospea lortu zuen, bai gitarra-jotzaile moduan eta baita gitarraren pedagogian egindako lan apartagatik ere.

6 urterekin parrokiako abesbatzan hasi zen, eta hortik jaio zitzaion musikarekiko zaletasuna. Anjel Iriarte bandako zuzendaria zuen osaba. Iriartek gitarra zuen etxea; Oñatin zegoen gitarra bakarrenetakoa, ziurrenik. "Joxeri horixe gustatu zitzaion, eta liluratu egin zen. Iriartek irakatsi zizkion lehen akordeak", azaldu digu Xabier Ugarte musikari eta gitarra-jotzaile oñatiarrak.

**Autodidakta**

Musika eta solfeoa ikasi zituen, baina gitarra partitura bidez ikasi zuen. Donostian, Sanchez Granada gitarra-jotzailea ezagutu eta orduan piztu zitzaion Azpiazuri bere benetako bokazioa. Hala ere, haren lan arloa ikerkuntza izan zen –Europako hainbat liburutegi eta artxibo arakatu zituen partitura bila–. Pieza asko transkribatu zituen eta gitarraren arloari nolabaiteko berrikuntza eman zion. Konposizioa, baina, ez zuen alde batera utzi; besteen ereduak hartuz lan egiten zuen. Metodoan eta lan pedagogikoan murgildu zen. Hala, argitaletxe propioa sortu zuen eta milatik gora partitura jaso zituen bertan, gehienak transkripzioak. "Lan pedagogikoak asko arduratzen zuen, ez zen sorkuntza hutsean oinarritu; lan handiena sorkuntzan, eskaintzetan eta omenaldietan dago", dio Azpiazuren lana gertutik ezagutzen duen Xabier Ugartek.

**Ametsen bila**

Gerra ostean, musikatik bizi izatea utopia zen. Hala, 1950ean Suitzara, Genevara joatea erabaki zuen. Bertan, Andres Segovia gitarra-jotzaile handiaren semea ezagutu zuen, eta, haren gomendioz, Genevako Kontserbatorioan eskolak ematen hasi zen. Hala sortu zuen munduko bigarren gitarra katedra, Madrilgoaren ostean. Gitarra lantzeko metodo iraultzaileak argitaratu zituen eta mudu osoko ikasleak izan zituen: AEB, Japonia eta Norvegia. Interprete moduan sona handia lortu zuen, Europan eta Amerikan barrena. Zortzi disko grabatu zituen, eta Genevan hil zen 1986ko abenduaren 27an.

Bada, Oñatiko Musika Eskolak *Jose de Azpiazu* izena hartu zuen herriko musikari handi haren omenez. Eta Donostian, berriz, Azpiazuren izena duen gitarra lehiaketa egiten da urtero.

ESANAK

**"Pedagogian eta sorkuntzan lan handia egin zuen Azpiazuk"**

XABIER UGARTE | GITARRA-JOTZAILEA



Jose de Azpiazu gitarra-jotzailea 40ko hamarkadan. | 'JOSE DE AZPIAZU' BIOGRAFIA

## Omenaldi hunkigarria

Domekan, Azpiazuk konposatutako piezak izango dira entzungai Eduardo Baranzano gitarra-jotzaile uruguaiarraren eskutik eta Aida Briceno sopranoaren eta Lucia Gomez mezzosopranoaren ahotsen laguntzarekin. Omenaldiak musikariaren bost etapa islatzen ditu: gaztaroa, ikerkuntza aroa, sorkuntza garaia, euskal musikan izandako unea eta egindako eskaintzak eta omenaldiak. Anekdotak, berriz, Xabier Ugarte gitarra-jotzaile eta musikariak kontatuko ditu.

## Jose de Azpiazuren bizitzako pasarte esanguratsuak; betiere, gitarra eta musikarekin lotutakoak



LUPE DE AZPIAZU

**KONTZERTU KLANDESTINOA.** Oñatiko EAJko idazkaria zen Azpiazu, eta gerra zibila lehertu zenean, frankistek bi urterako Martuteneko kartzelan sartu zuten. Gitarraz obsesionatuta, puro kaxa eta zotzekin gitarra egin, eta gauean, presoei kontzertu klandestinoa eskaini zien.



'JOSE DE AZPIAZU' BIOGRAFIA

**FANNY JONES.** Mundu mailako ahots garrantzitsuenekin eman zituen kontzertuak Azpiazuk. Tartean, Fanny Jones abeslariarekin. Andres Segoviaren semearen gomendioz, Genevako Kontserbatorioan sartzea lortu zuen eta munduko bigarren katedra sortu zuen.



LUPE DE AZPIAZU

**LUPEREKIN BIKOTEKIDE** 1964tik aurrera, alabarekin osatu zuen bikotea Azpiazuk. 15 urterekin hasi zen emanaldiak egiten Lupe alaba; Europan eta Amerikan barrena ibili ziren biak. Aitarengandik jaso du musikarekiko zaletasuna Lupek; oso gazte hasi zen, gainera, gitarra ikasten.




LUPE DE AZPIAZU

**ARTE EDERRAK.** Ofizioz pintorea zen eta bokazioz, gitarra-jotzaile. Azpiazuk Arte Ederretako ikasketak egin zituen Donostian. Hala ezagutu zuen Sanchez Granada gitarra-jotzailea. Artearen dotorezia, neurri batean, egiten zituen partituretan antzeman daiteke.



Iazko Beste Bat! egunean atera zuten argazki erraldoia, Biteri plazan. | DIRK MORENWEISER

# Dena gertu dago Beste Bat! eguna bigarrenez ospatzeko

## Beste Bat! lagunartea Alemaniako St. Pauli klubak 100 urte bete zituenean sortu zen, 2010ean

MAIALEN REGUEIRO | ARRASATE

Bihar ospatuko dute, bigarrenez, Beste Bat! eguna Arrasaten, eta dena gertu dago. Aurten bigarren urtez egingo dute jaia: haur, gazte zein helduendako jolasak eta musika egongo dira, eta herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera. Eguna Iluntz eta Beste Bat! taldeen arteko areto futbol partiduarekin hasiko da, eta gaztetxean amaitu, Dirty Brothers eta Arkada Socialen kontzertuarekin –5 euro da sarrera–.

**Beste Bat! taldearen filosofia**

Hanburgoko St. Pauli klubaren filosofiaren bat egiten duen lagunarte horretako kideendako egun berezia izaten da. 1910ean sortu zen St. Pauli, portu ondoan kokatutako auzo txiki eta langile batean. Auzo umila, ikasle eta etorkinez josia, 1980ko hamarkadan Alemaniako mugimendu alternatiboaren ikur bihurtu zen auzoa, *Hafenstrasse* deritzon okupazio mugimenduaren ildotik. Hala, futbol taldeak berak estatutuetan jaso zituen orduan defendatzen zituzten ideiak: faxismo, arrazakeria, sexismo eta homofobiaren aurkakoak, hain justu. Ideia horrekin bat eginez sortu zuten duela bi urte Beste Bat!, mendeurrena aitzakia hartuta. Eta lagunartea bera ezagutzera eman eta ondo pasatzeko helburuarekin, Besta Bat! eguna ospatu zuten iaz lehenengoz.

Beste Bat! lagunartean adin askotariko jendea dago, guztiak St. Pauli futbol taldearen jarraitzaileak. Egun 55 kide ditu lagunarteak Dirk Morenweiser kidearen arabera, "taldearen helburua ez da zerbait aldarrikatzea. St. Pauli taldea jarraitzen duen lagunarte bat besterik ez gara eta talde horren jarraitzaile askoren estatutuak partekatzen ditugu; Hanburgotik izan beharrean, Arrasatetik".

**Jaia, "ondo pasatzeko"**

Iaz ospatu zuten lehenengoz Beste Bat! eguna, eta, Morenweiser -en arabera, "jai hartan parte hartu zuten guztiek egun polita pasa zuten, txiki zein heldu". Jendeak horrelako beste egun bat antolatzera animatu ditu antolatzaileak, eta haien animoekin Beste Bat!-en bigarren eguna egitea erabaki dute. Iazko harrera ikusita bihar ere jende askok parte hartzea espero dute antolatzaileek. Izan ere, adierazi dute jaiaren "helburu nagusia ondo pasatzea" dela, "familian edo koadrilan bada ere".

Horrez gain, egun hori ospatzearekin batera, jendearen atentzioa erakarri nahi dute. Hau da, St. Pauli futbol taldearen berezitasuna agerian utzi gura dute eta, nola ez, Beste Bat! lagunartea herri osoan ezagutzera eman. Izan ere, aurrerantzean ere hainbat ekintza egiteko asmotan dabiltza, eta, beraz, jendearen parte-hartzea oso garrantzitsua izango da haiendako.

### BESTE BAT! BIGARREN EGUNA

**10:30** Areto futbol partidua, Iturripen.

**12:30** Triki–poteoa.

**14:30** Herri bazkaria, Biteri plazan.

**16:30-19:30** Umeentzako jolasak, Biteri plazan.

**17:00** Xabi & Petti, Biteri plazan.

**18:15** Argazki erraldoia.

**18:30** Los Galerna, Biteri plazan.

**22:30** Dirty Brothers eta Arkada Social, gaztetxean.

# Era guztietako kontzertuak Errekalde auzoko jaietan

M.R. | OÑATI

Gaur emango diete hasiera Errekalde auzoko jaiei, 19:00etan, etxafuego jaurtiketarekin. Bi ordu geroago, rock kontzertuak hasiko dira. Aurten bost talde gonbidatu dituzte antolatzaileek: Gas eta Sharon Stoner oñatiarrak, Arkada Social arrasatearrak, The Capaces bartzelonarrak eta Sex Museum madrildarrak.

Eta bihar ere kontzertuak egongo dira Errekalde auzoan, baina bost izan beharrean bi talde gonbidatu dituzte: alde batetik, Los Zopilotes Txirriaos talde iruindarrak rantxerak eskainiko ditu; eta beste alde batetik, trikiti doinuak entzungai egongo dira Miren, Agur eta Gorka oñatiarren eskutik.

**Sex Museum**

Talde madrildarra 1985ean sortu zen, nahiz eta lehen diskoa bi urte geroago kaleratu. Lau mutilek eta neska batek osatzen dute taldea. Bada, iaz kaleratu zuten azken lana, eta, guztira, 13 disko atera ditu taldeak. Azken diskoaren izena *Again&Again* da eta 11 kantuk osatzen dute.

**The Capaces**

Talde horrek ere eskainiko du kontzertua Errekaldeko jaietan. Bartzelonatik datoz, eta 1998an sortu zuten taldea. Punka, hardcorea eta rock -and-rolla batzen dituzte. Sorreratik hiru disko kaleratu dituzte eta azkenekoa 2007an atera zuten. Bada, talde horrek beste talde askorekin partekatu du agertokia; besteak beste, Poison Idea eta Varukers taldeekin.

# Who The Bitch taldeak eskainiko du Kooltur Ekintzako azken kontzertua

## Maiatzaren 31n amaituko da aurtengo Kooltur Ekintzaren ikasturtea

M.R. | ARRASATE

Kooltur Ekintzak eguenean, hilaren 31n, emango dio amaiera aurtengo ikasturteari. Horretarako, ekintza horretako antolatzaileek Who The Bitch talde japoniarra gonbidatu dute kontzertua eskain dezan. 22:00etan joko dute, Arrasateko gaztetxean. bada, kontzertu horretaz gozatu nahi dutenek 5 euro ordaindu beharko dituzte.

Talde japoniar hori bi neskak eta mutil japoniar batek osatzen dute. Talde *gitarreroa* da eta Arrasatekoa Europan emango duten lehenengo kontzertua izango da.

**Kootur Ekintza**

Kooltur Ekintzaren azken eguena izango da honakoa. Izan ere, urrian hasi zen ikasturteari amaiera emateko garaia iritsi da.

Ekintza horren bigarren urtea izan da aurtengoa eta Arrasateko Kooltur Ekintza taldea ibili da eguneroko kontzertuen programazioa egiten. Urrian hasita, eguenero egon da aukera kontzertu bat ikusteko Arrasateko gaztetxean, 5 euroren truke. Aurten, aurreko urtean bezala, mota guztietako musika egon da entzungai; besteak beste, rock -and-rolla, flamenkoa, folka eta punk-rocka. Hain zuzen ere, Kepa Junkerak, Xabier Amuritzak eta Zea Maysek eskaini dituzte kontzertuak, besteak beste. Adin eta gustu askotariko proposamenak egon dira, horietako batzuk Euskal Herrikoak eta beste batzuk atzerrikoak.


Who The Bitch, Ishinomaki herrian (Japonia). | EBICKY

# Joan den aste bukaeran egindako Mundumira jaia ez zen esperotakoa izan gatzagarrendako

▶ Gatzagako Udaleko ordezkariek salatu dute ez zela etorri antolatzaileek agindutako postu kopurua

▶ Herritarrekin batu ostean bilera egingo dute antolatzaileekin, gertatutakoaren inguruan hitz egiteko

ARRITXU BARRUSO | LEINTZ GATZAGA

Aurten, lehen aldiz, bi udalerriren artean banatu da Mundumira jaia: Leintz Gatzaga eta Eskoriatza. Bada, astebete igarota, eta atzera begira ipinita, herri bateko edo besteko bizilagun eta udal ordezkariek ez dute balorazio bera egiten; izan ere, gatzagarrak haserre daude, Mundumira ez zen esperotakoa izan.

**"Ez da agindutakoa bete"**

Gatzagako Kultura zinegotzi Iñaki Agirreurretak adierazi du eguraldi txarra ez zela izan herria hutsik egotearen errudun bakarra: "Eguraldiak ez du lagundu, baina uste dugu hori ez zela benetako arazoa izan. Herria hutsik egon zen. Gure kexa argia da: ez ziren agindutako postuak etorri, eta, agindutako guztiak etorri izan balira ere, ez zen herria beteko; eta herria postuz beteko zutela agindu ziguten. Horrelako jaialdietan postuak ardatza direla uste dugu. Gainera, jaialdia baino hamabost egun lehenago jakin genuen zenbat postu etorriko ziren. Esan behar dut lagata sentitu garela".

Agirreurretak azaldu digu, gainera, udal ordezkariena bakarrik ez, herritarren sentsazioa orokorrean berdina izan dela: "Herritarrengandik aste bukaeran jaso genituen iritziak eta komentarioak ere zentzu berekoak izan ziren. Gatzagarrak ez daude pozik".

**Gainontzeko ekintzekin pozik**

Gatzagako Udalak, dena den, argi utzi nahi izan du haserrea herrian ipinitako postu kopuruarekin lotuta dagoela, nagusiki. "Momentu batzuetan herria bete egin zen. Irrien Kluba, adibidez, oso ondo egon zen eta jende mordoa erakarri zuen eta Slow Food mugimenduaren gaineko hitzaldia ere benetan interesgarria izan zen. Horren harira, ez daukagu kexarik, baina ekintza horiek bukatzean jendeak alde egiten zuen posturik ez zegoelako".

**Antolatzaileekin bilera**

Gatzagako Udalak gertatutakoa argitu nahi du, eta erantzukizunak eskatu. "Ez dute hitza bete, eta nork bere erantzukizuna hartu beharko du. Datorren astean bilera egin nahi dugu antolatzaileekin: Mankomunitatearekin, *Euskal Herria* aldizkariarekin eta Ginmusica ekoiztetxearekin".

Aurretik, baina, Gatzagako Udala herritarrekin batuko da gaur, egubakoitza, 19:00etan. "Udalak badaki gutxi gorabehera zer eskatu antolatzaileei, baina herriari ere hitza eman nahi diogu, haiek ere festaren parte izan zirelako".

Mankomunitateko Turismo batzordeko arduradun Josu Lizarraldek adierazi du gertatutakoa aztertu egin behar dela. "Gatzagako Udalak uste badu hitzartutakoa ez dela bete, argi dago hori aztertu eta argitu egin beharko dela".

**Antolatzaileen balorazioa**

Ginmusika enpresa da Mundumiraren antolakuntzaz arduratu den enpresa, eta adierazi dute eguraldi txarrak eragin handia izan duela aurtengo edizioan; dena dela, aitortu dute produkzio akatsak ere izan zirela: "Eguraldiagatik zein produkzio akatsengatik postu askok kale egin zuten. Eskoriatzan 61 postutik hamaseik kale egin zuten eta Gatzagan hamazortzitik seik. Eguraldia hobea izan balitz, seguruenik balorazioa beste bat izango zen. Bestetik, lehenengo aldiz jaialdia bi herriren artean banatu da, eta hori ere ez da erraza izan", adierazi du Ginmusik enpresako arduradun Sergio Cruzadok. Horrez gain, adierazi dute prest daudela Gatzagako Udalarekin eta Mankomunitatearekin batzeko eta gaia eztabaidatzeko.



Umeendako jolasak egon ziren Gatzagako pilotakeluan. | JULIO CALLEJA

**ESANAK**

"Ez dute agindutako hitza bete eta lagata sentitu gara"
IÑAKI AGIRREURRETA
GATZAGAKO ZINEGOTZIA

"Eguraldiagatik zein produkzio akatsengatik kale asko egon ziren "
SERGIO CRUZADO
GINMUSICA

Nahi baduzu,
Gasteizen bizi zaitezke Sartu eta aukeratu!






SALBURUA
Toni Morrison kalea
BOE bat baino pixka bat gehiagogatik, etxebizitza libreak. Hiru logela, garajea eta trastelekua **199.000** eurotik aurrera (33.110.814 pzta.).
Atikoak **205.000** eurotan (34.109.130 pzta.).
Informazio gehiago ›

ZABALGANA
Cambridge bizitegia
Eraikuntza berriko etxebizitza libreak, bi eta hiru logelarekin eta terraza handiekin. Garajea eta trastelekua barne. **168.000** eurotik aurrera (27.952.848 pzta.).
Informazio gehiago ›

BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK
Gasteizko gune guztietan bigarren eskuko etxebizitzen eskaintzarik onena eta zabalena.
Informazio gehiago ›

FUEROS ERAIKINA
Gasteizko erdialdean
Hirigunean, etxebizitza berrian bizi izateko azkeneko aukera. Bi, hiru eta lau logelarekin. Atiko ikusgarriak. **248.218** eurotik aurrera (41.300.000 pzta.).
Informazio gehiago ›

TRINOSA Servicios Inmobiliarios
**TRINOSA** Servicios Inmobiliarios
San Pudentzio, 1 - San Antoniorekin izkina
01005 Vitoria-Gasteiz
trivinsa.com
Egunero gehiago eskaintzen dizugu
945 15 15 15

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
Faxa: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# PAZKOAK 2012




JULIO CALLEJA













*Pentekoste Jaiak 2012*

*BERGARA*

*Maiatzaren 25, 26, 27, 28 eta 29an*

Ondo pasau jaixetan!

**Kayak • Sirimiri • Azpeitxi • Etxagi • Zunbeltz**
**Irish Pub Galways • Bule • Euxebio II • Toki Ona • Bodegoia**
**Usoa • Infernukua • Ariznoa • Agirrebeña • Kai • Iraho**

AGURRA



**JESUS ELORTZA**
Bergarako alkatea

## Jaiez gozatu eta ondo pasatu

Kaixo, bergararroi eta 2012ko Pazkoetan Bergarara hurbilduko zareten guztioi:

Ia urtebete da, iazko Pazkoetan bete-betean geundela, Bergarako alkate izendatu nindutela. Ohore handia, zalantzarik gabe. Orduan, aurreko gobernu-taldeak antolatutako jaiez gozatzeko aukera izan nuen.

Aurten, berriz, guri egokitu zaigu jaiok antolatzea, eta gogotsu egin dugu, guztion gustukoak izango direlako esperantzan. Kalean bost eguneko jai-giro alaia ikusiko dugulako ilusio bizia dugu.

Urte gogorra izan da denontzat, aspaldion bizi dugun -eta defendatzen ez dudan gizarte-eredu baten emaitza den- krisiak eraginda. Gutxi izango dira Bergaran krisi honen ondorioak jasaten egongo ez diren familiak.

Krisialdi honek, jakina, izan du bere eragina, utzi du bere arrastoa, jaien antolaketan. Honela, mingarria gertatu bazaigu ere, jaien antolaketarako aurrekontuak %20ko murrizketa izan du. Jai-batzordea zoriondu behar dut; izan ere, egoerara moldatu eta, murrizketak murrizketa –iaz baino baliabide ekonomiko gutxiago izan dute–, jai-programa zoragarria prestatu dute.

Bihoakie, beraz, lerro hauetatik gure eskerrik eta zorionik beroenak jaiak antolatzen jardun duten guztiguztiei. Baina, ondo dakizuenez, edozein jaitako osagai nagusia bertako partaideak dira. Hala, beraz, bertan parte hartzera animatzen zaituztet. Atera jaietako brusak armairu zokoetatik, eta irten kalera, kantu eta dantza, jaiaz gozatzera. Horrela lortuko dugu aurten ere Pentekoste jaiak bergarar guztion jaiak izatea.

Horixe da nire nahia: zuek, guztiok, jai-batzordeak antolatutako programaz gozatzea.

Jaiez gozatu eta ondo pasatu.

Ondo pasatu geure buruaren jabe garela. Bizi dezagun jaia aske eta elkartasunean. Errespeta ditzagun geure burua, besteak eta ingurua. Horixe nire nahia eta gonbita.

Ez ditut ahaztu nahi egunotan, euren eta gure borondatearen aurka, gure artean egongo ez direnak.

Eurentzat eta zuontzat, agur bero bat.

# Jaietako egitaraua



Goitibeherak lasterketarako prestatzen, iaz. | JULIO CALLEJA

## EGUBAKOITZA 25

**14:30** IKASLEEN BAZKARIA eta sorpresa.

**19:30** Bergara Hiria argazki-lehiaketako SARI-BANAKETA, Aroztegi aretoan. Oharra: argazkion erakusketa Aroztegi aretoan izango da, ekainaren 24ra bitartean. Ordutegia: martitzenetik barikura: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30 eta domeketan: 12:00-14:00.

**20:00** BITORIANATXOREN JAITSIERA San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA herriguneko kaleetan San Martin plazatik irtenda. Iluntzean Matxiategin BARRAKAK IREKITZEA, eta Bideberrin TXOSNAK IREKITZEA.

**20:30** Txosnak irekitzea.

**22:30** Kontzertuak Bideberrin: DIRTY BROTHERS, ANAI ARREBAK, FIACHARS eta GOIENETXE ANAIAK.

**23:00** DANTZALDIA, Aire Aire taldearekin, San Martin plazan.

## ZAPATUA 26

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

**10:00** DIANA: Bolutik Aritz alustiza eta Itxaso Arantzabal Bergarako trikitilariak; Labegaraietatik Elgoibarko dultzaineroak eta Oxirondotik Udal Txistulari Banda. Ondoren herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

**10:00:** GIMNASIA ERRITMIKOA: Gipuzkoako Federatu Amateurren eta A mailako Eskolarteko Txapelketako kadete, gazte eta senior mailako finala. Labegaraietako kiroldegian.

**10:00** XXXII. HAUR ETA GAZTEEN PLASTIKA SARIKETA, Beart Bergarako Arte elkartearen laguntzarekin, San Martin plazan..

**11:00** Elkarteendako BAKAILAO LEHIAKETA, San Martin plazan. Sukaldarientzako lapiko eta amantlak: Lacorrek emandakoak. Herritarrentzako mokadua etxe hauei esker: Konde Okindegia, Comercial Miner, Lope Ojeda (Atxega), Manso Hermanos SA, Txomin Zubeldia SA eta Giokelako harakinak (Ion Leturia eta Urzelai anaiak).

**12:00** Jaioberriei ONGIETORRIA emateko ekitaldia. Iazko Pentekoste jaietatik hona jaio diren bergarar txikitxoei Pentekoste jaietarako ongietorria ematea, osoko bilkuren aretoan.

**13:30** Bakailao lehiaketako SARI-BANAKETA, San Martin plazan.

**13:45** Plastika lehiaketako SARI-BANAKETA, San Martin plazan.

**14:30** BERTSO BAZKARIA: Miren Amuriza eta Aitzol Barandiaran.

**17:00** GIMNASIA ERRITMIKOA: Gipuzkoako Federatu Amateurren eta A mailako Eskolarteko Txapelketako kadete, gazte eta senior mailako finala. Labegaraietako kiroldegian.

**18:15** Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK, San Martin plazan.

**18:30** Bergarako ERRALDOIEN KONPARTSAKO KALEJIRA. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon M. Lili, Ibargari, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herri Lagunak, D. Irala, Barrenkalea, San Martin plaza.

**18:30** ERREKORTADORE ESKOLA, 16 urtetik beherakoentzat. Gero ERREKORTADOREEN IKUSKIZUNA, Seminarioko zezen-plzan. Sarrera 2 euro.

**19:00** ROCK MARATOIA: Lord Witch, Katabatik eta Turboshit, Kruz Gallastegin.

**20:30-21:30** BERBENA Trikizio taldearekin San Martin plazan.

**22:30-00:30** DJON URBIETA, Seminarioko zezen-plazan.

**22:30** Kontzertuak: TRUTH TROUGH FIGHT; CRIATURA; HARDFLIP; MALAKATON eta DJ MAKALA.

**23:30** BERBENA Trikizio taldearekin, San Martin plazan.



Erraldoiak Ibargari kalea zeharkatzen, txistulariek lagunduta. | JULIO CALLEJA

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Gorosabel doktorea

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologiarekin
- Aho zirugia.
- Ortodontzia.
- Odontologia orokorra.
- Ahoko eta aurpegiko estetika plasmarekin.
- **Estetika eta hortzen zuritzea teknika bereziarekin.**

ondo pasau jaixetan!

**Aseguruak: PADI** (Osakidetza), AEGON

Tel. : 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

20 urte baino gehiago zuekin Bergaran, eskerrik asko danoi!

## DOMEKA

# 27

**08:00** ALBORADA, Udal Txistulari Bandarekin.

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

**09:30** LXXVII. PENTEKOSTE TXIRRINDULARI-LASTERKETA, Lehendakari txapelketa. Irteera eta helmuga: San Antonion. Antolatzailea: Lokatza Ziklismo Eskola.

**10:30** PILOTA PARTIDUAK: Debarroko finala, Udal Pilotalekuan. Antolatzailea BKEko Pilota Saila.

**10:30-14:00** URETAKO BOLAK, San Martin plazan.

**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoloian.

**15:30** GOITIBEHERA TXAPELKETA. San Martzialgo bidean.

**17:00** APAR FESTA, Munibe plazan.

**17:30** XXXV. EUSKADIKO DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA. 16 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan, Moiazpi dantza-elkarteak antolatuta.

**18:00** BALTSA JAITSIERA.

**18:30** EUSKAL HERRIKO ERREKORTADOREEN IKUSKIZUNA zezen-plazan. Sarrera 3 euro.

**19:30** Kontzertuak: AZKAITER PELOX & THE ROAD BAND ETA ADABEGI. Eta film laburren emanaldia eta sari-banaketa.

**23:00** DANTZALDIA Luhartz erromeria taldearekin, San Martin plazan.



**Umeak apar festan gustura. Aurten ere izango dute aukera.** | JULIO CALLEJA

## ASTELEHENA
## KOADRILEN EGUNA

# 28

**11:30** TABERNEN ARTEKO HERRI KIROLEN TXAPELKETA, Zezen-plazan, Xapre eta Zarra trikitilariek eta Incansables txarangak animatuta.

**12:30** DANTZALDIA Nuevo Talisman orkestrarekin Espoloian.

**14:30** HERRI BAZKARIA: PAELLA ERRALDOIA San Martin plazan, Xapre eta Zarra trikitilariek, Incansables txaranga, Elvis Caino eta Angie DJen animazioarekin. (Euria egiten badu Labegaraietako Kiroldegian. Autobus zerbitzua egongo da Oxirondo azoka ondotik irtenda). Antolatzailea: Pikupe Produkzioak eta Bergarako Udala.

**18:30** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA ZEZENTXOEKIN zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

**19:30** BERGARA HIRIA PILOTA PARTIDETAKO FINALAK, udal pilotalekuan. Antolatzailea BKEko pilota saila.

**20:00** LAKET berbena taldea.

**22:30** Kontzertuak, FLY SHIT; WILLIS DRUMMOND ETA ZOPILOTES TXIRRIAUS, txosnetan.

**23:00** DANTZALDIA, Lisker taldearekin San Martin plazan.

**23:00** CAMP DANTZALDIA, Nuevo Talisman taldearekin, Espoloian.



**Bikotea lehian, dantza solte txapelketan.** | JULIO CALLEJA

## MARTITZENA
## UMEEN EGUNA

# 29

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

**11:00-14:00** HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Auto txikiak, zezen mugikorrak, goming...

**12:00** HERRI KIROLAK San Martin plazan hiru aita-semerekin: Iñaki Perurena eta Inaxio Perurena; Zelai II.a eta Ioritz Zelai eta Bihurri eta Hodei Ezpeleta.

**12:30-14:00** ALMA NAVARRA jota eta abesti latindarren emanaldia Domingo Irala kalean.

**17:00** PILOTA JAIALDIA. Lehenego partidua: Olazabal-Merino I / Mendizabal-Cecilio. Bigarren partidua:Titin-Merino / Gonzalez-Barriola. Kantxako sarreraren prezioa, 30 euro.

**17:00-20:00** HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA, Ipintza II-ko patioan.

**18:00** BINGOA Munibe plazan (euria eginez gero Udal Pilotalekuan). Sari bikainak izango dira

**18:30** ERREKORTADORE ESKOLA ZEZENTXOEKIN zezen-plazan, Incansables txarangak alaituta.

**19:30-21:00** *Herrixa Dantzan* ERROMERIA, Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin eta Patxi Montero dantzariarekin, San Martin plazan.

**22:30-24:00** DJ FESTA Oihan Vegarekin San Martin plazan.

**24:00** BITORIANATXOREN IGOERA, Incansables txarangarekin San Martin plazan.

**24:15-01:30** DJ FESTA Oihan Vegarekin San Martin plazan.


IparProject
www.iparproject.com
info@iparproject.com

Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala
Altzariak eta merkatuko lehen markak



BERGARA
Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraieta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44

AZPEITIA
Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel.: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16

Ford
FORD GARAJE BERRIA
Amillaga kalea 49
943 76 22 43
ondo pasau jaixak!

**Miguel Okina** | Txupina jaurtiko duena

# "Saloura joan barik, herria zaintzen geratu naiz"

Miguel Okina margolariak emango die hasiera aurten Pentekosteei



Miguel Okina, estudion dituen koadroen artean. | ARRITXU BARRUSO

ARRITXU BARRUSO | BERGARA
Pentekoste jaietako egubakoitzean udaletxeko balkoian ikusiko dugu Miguel Okina margolaria. Aurten hark jaurtiko du jaiei hasiera emango dien suziria. Modu horretan, Bergarako Udalak Miguel Okina bera eta Espainiako gerra sufritu zuten guztiak omendu nahi ditu. 87 urte dituen arren, sasoi betean dago Okina, eta oso pozik hartu du Udalaren enkargua.

**Alkatea eta zinegotzi bat joan zitzaizkizun etxera eskaria egitera. Zer pentsatu zenuen?**
Ezustean harrapatu ninduen. Pozik egingo dut Udalak eskatutakoa; baietz esan nien segituan, baina ezustean harrapatu ninduen.

**Uste duzu urduri egongo zarela?**
Ez dut uste. Nik ez dut hitzik ere esan behar. Etxafuegoari su eman eta joan dadila urrutira. Erraza izango dela uste dut.

**Herriko Plaza jendez beteta egongo da.**
Bai. Halaxe da. Dena dela, dagoeneko guztiek dakite etxafuegoa botako dudala. Jaietako programan ere agertu naiz, eta kalean denek gelditzen naute.

> **"Baietz esan nien segituan, baina ezustean harrapatu ninduen eskaerak"**

**Blanca Narbaitzak egingo du Bitorianatxoren papera. Ezagutzen duzu?**
Ezagutuko ez dut ba... Oso emakume *salada* da, eta asko balio duena, gainera.

**Udalak Espainiako gerra sufritutakoak omendu nahi ditu. Zuk hamabi urte zenituen orduan, baina ondo gogoratzen dituzu garai haiek.**
Bai. Garai gogorrak izan ziren haiek. Oraindik gogoratzen dut frankistak lehenengo aldiz Bergarara nola sartu ziren. Guztiak beldurrez geunden. Gero, Intxorta hartzen ahalegindu zirenean, italiarrak, mairuak eta alemanak etorri ziren. Familiako kideak ditut gerran ibilitakoak, batzuk alde batean eta beste batzuk bestean, eta denak familia berekoak. Hori da hori. Tamalez, horixe izan zen gerra zibila. Tristea izan zen, baina zer egingo diogu ba...

**Gerra kontuak alde batera utzita, kontu alaiagoez hitz egingo dugu. Nola gogoratzen dituzu gaztea zineneko Pentekoste jaiak?**
Ez ziren gaur egungo jaien modukoak. Gogoratzen naiz urtero-urtero Espoloian egiten zen bandaren kontzertura joaten ginela. Horrez gain, dantzaldiak eta zinema emanaldiak egoten ziren. Eta garrantzitsuena, txikiteoa; hori postre moduan. [Barre].

> **"Gogoratzen dut lehenengo aldiz frankistak Bergaran nola sartu ziren"**

**Azkeneko urteetan, baina, jaietan, herritik alde egin izan duzu.**
Bai. Urte askoan Saloura joan izan naiz, baina aurten Bergaran gelditu beharko dut; askotan esaten den moduan, herria zaintzen geratuko naiz.

**Ze asmo duzu jaietarako aurten?**
Nire adinarekin, lasai hartuko ditut jaiak, beste erremediorik ez dago. Hemen nagoenez, Espoloiko kontzertura joango naiz, hori bai. Gainontzean, lasai-lasai. Egunez bueltatxo bat emango dut, eta goiz etxera. Adin honekin, egunez ibiltzen gara gauez baino gehiago.

ELUSU ERAIKUNTZAK
K21 KALITATEA
Arruriaga 5 BERGARA • 943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45
Zorionak, bergarar guztioi!
- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
Lokal komertzialak
Teilatuak
Sukaldeak
Bainuak
Fatxadak
- Baserri eta jauretxeen erreformetan eta txaleten eraikuntzan espezializatuak
- Gremioen koordinazioa
- Proiektuak



PESCADERIA JOXAN ARRAINDEGIA
Orain, Super Amaran ere bai!
Ondo pasa Pazkoetan!
Ibargarai 24 Bergara
Tel.: 943 76 70 29

# Zezenzaleendako atsedenik ez jaietan

## Zapatu arratsaldean Bergararen eta Arabaren arteko errekortadore desafioa jokatuko da zezen-plazan


Zenbaitetan, ez da erraza bigantxei driblinga egitea. | JULIO CALLEJA

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Zezenzaleek ez dute jaietan atsedenik izango. Hasteko, errekortadoreen ohiko ikuskizuna izango da zapatuan Seminarioan jarriko duten zezen-plazan: gaztetxoen arteko lehian 14 urtetik beherakoek jardungo dute, tartean Julen Murgiondo bergarar gaztetxoak. Neskendako txapelketa ere jokatuko da baina han ez da bergarararrik izango: Nafarroatik etorritako hiru neskatila arituko dira. Eta jarraian, nagusien saioan, Bergarako eta Arabako errekortadoreen arteko desafioa izango da. Bergararren partetik Iker Agirre *Txili*, Unai Arana *Xurra*, Aitor Jaso eta Blas Cruz arrasatearra aterako dira zelaira. Eta Arabatik Sergio Urrutikoetxea, Sergio Valle, Imanol Diaz eta Juan Gandarias etorriko dira desafiora. Errekorte artistikoak egin eta bigantxei uztaiak ipini beharko dizkiete parte hartzaileek zapatuan.


Errekortadoreen ikuskizunak zapatuan eta domekan egongo dira. | JULIO CALLEJA

Domekarako, berriz, Euskal Herriko errekortadoreen ikuskizuna iragarri dute. Goian aipatutakoez gain, Felipe Gascon zornotzarra, Zumarragagoko Ander eta Jokin Rodriguez eta Dulantziko Oier Gastamintza etorriko dira Bergara. Zapatuan zein domekan sarrerak 3 eurotan izango dira eskuragarri.

### Bigantxak hiru egunetan

Bergarako Zezenzaleak taldearen eskaintza ez da amaituko hor baina. Esate baterako, zapatuan, domekan eta martitzen goizean bigantxak egongo dira zezen plazan, zaleendako... eta *gaupasero* ausartenendako. Aipatutako egunetan 2 euroko sarrera ordaindu beharko dute plazara joaten direnek. Egunotan izan dira zezen plaza jartzeko lanetan eta guztia gertu dago honez gero.

> **Errekortadoreen eskola ibiltaria jarriko dute bi egunean**

Bigantxen saioak 09:00etan hasiko dira. Azken urteotan egin bezala Seminarioa izango da zezenzaleen bilgune, zalantzarik ez. Baina ez hori bakarrik; musikarako tartea ere egongo da zezen plazan: Jon Urbieta DJak saioa eskainiko du Pazkoetako zapatuan, 22:30etik aurrera, gazteak dantzan jarriz.

### Eskola ibiltaria

Bestalde, Zezenzaleak taldeko Iñigo Almortza azpimarratzen duenez, harrobia zaintzea da herriko zezenzaleen arduretako bat eta hori dela eta errekortadore eskola ibiltaria jarriko dute astelehenean eta martitzenean, 18:30etik aurrera.

Maisuen laguntzaz errekortadoreen *sekretuak* ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek.

### Herri kirolak astelehenean

Azkenik, astelehenean, tabernen arteko herri kirolen txapelketa jokatuko da zezen-plazan eta koadrilek bigantxen aurrean abilezia erakutsi beharko dute hainbat probatan. Ustekaberik ez izateko zezen-plazan, errekortadore lanetan, esperientzia dutenen gomendioak jasotzea izango da onena...

comercial BRUNET



3,60 kilo

ECHO
Europan salduena
Etorri ikustera



sasi-garbitzeko makina, pizte errazarekin

Telleria kalea 2, Labegaraieta industrialdea - BERGARA - Tel.: 943 76 31 52 - *brunett@telefonica.net* - *www.comercialbrunet.com*

ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

*Aratzek jai zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei!*

Zurradero 6, behea
Tel.: 943 76 70 67 Poltsikokoa: 607 48 71 19



Ondo pasa Pazkoetan!

WiFi GUNEA

Jean Louis David

Ibargarai 43 · 20570 Bergara · 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com
Astelehenetik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30
Ostirala: 09:30 > 18:30
Larunbata: 08:30 > 12:30



SMS SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

blum FRANKE GRUMAL LOGISIETE KESSEBÖHMER

**BERGARA**
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
**LEZO**
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com



## ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK



**Garbigailu integragarria, AWM 129**
- A klasea
- 7 kiloko karga
- 1.200 b/min

Prezio garbia, RAEE barne: **447,65€**



**Ontzi-garbigailu integragarria, LFTA 2164 (60 cm)**
- A/A/A+ klasea
- Zarata maila: 47 db ½. • Karga automatikoa

Prezio garbia, RAEE barne: **410,80€**



**Combi EBQH 20223 F –No Frost totala–**
- A+ klasea
- 200x60x65,5 (AlxZabxFon)

Prezio garbia, RAEE barne: **685,20€**



**Labe pirolitikoa –Newstyle linea–**
- A klasea
- Pirolitikoa

Prezio garbia, RAEE barne: **425,86€**



**Indukzio-plaka, Kic 631 TB –biselatua–**
- 3 zona, zona hirukoitza Booster 4000 w-rekin, Touch Control
- (TB biselatua)

Prezio garbia, RAEE barne: **345,80€**



**Mikrouhin-labea, MIC 201 EX**
- 20 litro, 32 zm-ko hondoa,
- Altzairu herdoilgaitza, arrastoen aurkakoa

Prezio garbia, RAEE barne: **175€**

# Lehenengo egunetik, umeak pozik

## Barrakak, ur bolak, plastika sariketa eta eskaintza gehiago izango dute umeek jaietan


Etzi, domeka, apar festa izango da Munibe plazan. | JULIO CALLEJA

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Txikienek mota askotako aukerak izango dituzte Pendekoste jaietan ondo pasatzeko.

Gaur, hilak 25, irekiko dituzte Matxiategiko barrakak eta, urtero bezala, eskaintza berezia izango da, bai barraka aldetik, bai prezio aldetik ere.

Hala, Udala egun hauetan da erabakitzekoa zein izango den aurtengo barraka bitxia edo berritzailea. Dagoeneko pare bat urtean egin dute hori: urteroko eskaintzaz gain, zerbaitegatik deigarria edo berezia den barrakaren bat ekartzen du Udalak. Izan daiteke aurretik sekula etorri ez den bat, eraiki berria dena… Bada, horretan buelta bat ematea 2,50 euro izango da, eta bost bidaiaren bonoa, 10 euro.

Beste barraka guztien prezioa hauxe izango da: gehienez, 1,80 euro bidaia bakoitzeko; zazpi bidaiako bonoa, 9 euro; eta, umeen ferien kasuan, sei bidaiaren bonoa, 7 euro. Bidaia bakoitza bi minutukoa izango da, gutxienez.

Bestalde, hilaren 28an, astelehena, goizean eta hilaren 30ean, eguaztena, egun osoan, barrakek prezio berezia izango dute: bidaia bat, euro 1; eta jostaleku bitxiak edo berritzaileak, bi bidaia, 3 euro.

**Bihar, marrazteko aukera**

Umeendako eskaintza honako beste ekintzekin osatzen da aurten: bihar, zapatua, herriko ume eta gaztetxoendako ohitura bihurtu den plastika sariketa izango da, aurten 32. edizioa, Beart elkartearekin batera antolatua. San Martin plazan izango da, 10:00etan, eta sariak 13:45ean emango dituzte. Gero, 18:15ean, plazan ere, bonba japoniarrak izango dira eta, segidan, erraldoien konpartsarekin gozatzeko aukera.

Etzi, domeka, goizetik, uretako bolekin jolastera gonbidatuta daude herriko ume eta gaztetxo guztiak. Plazan da hitzordua, 10:30etik 14:00etara arte. Eta arratsaldean, 17:00etan, Munibe plazan, apar festa egingo dute.

**Jolasparkea, egun osoan**

Umeen eta Helduen Eguna ospatuko dute herritarrek martitzenean, maiatzak 29. Egun horretan, umeendako jolasparkea irekiko dute Ipintza II.-eko patioan. Auto txikiak, zezen mugikorrak, goming… jolas egiteko aukera batzuk bakarrik dira horiek. Goiz eta arratsaldez izango da zabalik.

### Ehun bergarar berriri ongietorria

Iaz lehenengo urtez egin zuten eta, izan zuen arrakasta ikusirik, aurten ere iazko Pentekosteak ezkero jaiotako ume bergararrei ongietorria egingo diete udal ordezkariek. Bihar, hilak 26, izango da hori, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 12:00etan. Esandako epean jaiotako umetxoak, 100 bat, gonbidatzen dituzte. Bertan, eurendako propio egindako jaietako zapia ipiniko diote jaioberri bakoitzari.


Iazko argazkian, zinegotzia umetxoari zapia ipintzen. | ASIER ALKORTA

GOKI ERREFORMAK, S.L.
Teilatuak, fatxadak, igogailuak, sukaldeak, bainugelak.
Ondo ibili jaixetan!
Irizar Ibilbidea 1 behea
BERGARA
Tel.: 943 76 53 42
Faxa: 943 76 52 16
bergara@gokierreformak.es

Sastrería Mujika
ondo pasau jaixetan
Presta zaitez ezkontzetarako!
Trajeak neurrira egiten ditugu
Argazki gehiago Facebooken: ttiki.com/35686
Barrenkale 1 • Tel.: 943 76 29 91 • BERGARA



# Zezentxoak partaide herri kiroletan

## 16 urte baino gutxiago dutenek ezin izango dute herri kirolen txapelketan parte hartu

**MAIALEN REGUEIRO** | BERGARA

Bergarako Pentekoste jaietako Koadrilen Egunean, alegia, maiatzaren 28an, herri kirolen txapelketa egingo da zezen-plazan. Herri kirolen txapelketa hori Xapre eta Zarra eta Incansables txarangak animatuko dute. Betizu Zezenzale Elkarteak antolatu du txapelketa hori, eta elkarte horren ordezkari Iñigo Almortzaren esanetan, "txapelketa honen helburua herri kirolak bultzatzen jarraitzea eta herriko jendeari jai giroa piztea litzateke".


Koadriletako kideak zezentxoarengandik ihesi. | JULIO CALLEJA

### Herri kirolen txapelketa

Txapelketa horretan edozein lagun taldek har dezake parte, baina horretarako maiatzaren 23a baino lehen izena eman beharko du Bergarako kultura etxean. Antolatzaileek bi baldintza jarri dituzte egun horretarako: alde batetik, parte hartzaile guztiak 16 urtetik gorakoak izatea; eta beste alde batetik, parte hartzaileek kamiseta berdinarekin joan beharko dute taldekideak identifikatzeko.

Herri kirol txapelketa horretan joko tradizionalak egingo dira; harria jasotzea eta txingak eramatea, besteak beste. Hala ere, antolatzaileek beste jolas batzuk prestatu dituzte. Horietako batzuetan, parte hartzaileek konpainia berezia izango dute zezen-plazan. Zaku lasterketan, adibidez, parte hartzaileek zezenaren presentzia izango dute. 11:30ean hasiko da txapelketa eta antolatzaileek ordu eta erdi edo bi ordu iraungo duelakoan daude. Gainera, irabazten duen taldearentzat 300 euroko saria egongo da.

> **Txapelketako irabazleek 300 euroko saria jasoko dute**

### Betizu Zezenzaleen Elkartea

Elkarte hori 1991. urtean sortu zen talde moduan, nahiz eta baimenak urte batzuk geroago lortu. Bada, sortu zenetik, talde hori izan da jaietan zezenen kontua eraman duena; alegia, zezenen eta errekortadoreen hitzorduak antolatzeaz arduratu dena. Hala ere, herri kirolen txapelketa beste talde batek antolatzen zuen: "Duela hiru urte hasi ginen txapelketa hau antolatzen", dio Almortzak. Aurtengo txapelketa txosnagunekoak hasi ziren antolatzen, baina, azkenean, eurek antolatu dute.

Talde horrek gustura antolatzen ditu horrelako txapelketak, baina, betiere, bi baldintza jartzen ditu: alde batetik, txapelketak zezen-plazan egitea; eta beste alde batetik, jolas batzuetan zezenak ere protagonista izatea. Hala ere, horiek ez dira arazo izaten bergararrentzat, eta urtero jende asko animatzen da txapelketa horretan parte hartzera.

---

**IÑIGO ALMORTZA**
ANTOLATZAILEA

### "Herri kirolak eta jai-giroa bultzatzea dira gure helburu nagusiak"


GOIENA

Iñigo Almortza Betizu Zezenzaleen Elkarteko ordezkaria da eta aurten ere Bergarako jaietako herri kirolen txapelketa antolatzeaz arduratu da.

**Zein da txapelketa honen helburua?**
Bi helburu nabarmenduko nituzke: batetik, herri kirolak bultzatzea; eta beste alde batetik, parte hartzaileei jai giroa sortzea. Horretarako, argi daukagu zezenak eta zezen-plaza erabiliko ditugula.

**Zer espero duzue?**
Urtero geroz eta jende gehiagok hartzen du parte, nahiz eta askok beldurra izaten duten zezenen presentziagatik. Era berean, parte hartzaileentzako leku erosoa da, ez baitute minik hartzen. Gainera, jende asko joaten da txapelketa ikustera eta oso gustura egoten dira denak.

GRUPO GOITU
ETXEEN SUSTAPENA ETA ERAIKUNTZA
PABILIOIAK
ZAHARBERRITZEAK
URBANIZAZIOAK
PROIEKTUAK
BERGARA
943 76 11 23
Goitu eraikuntzak . S.L.
Maztarreka 14-16, BERGARA
Tel. 943 761123 • Fax. 943 763041
goitu@grupogoitu.com
www.grupogoitu.com

Fruteria Cruz Hnos Fruitategia
Pazkoa jai zoriontsuak
08:30etik - 20:30era zabalik
Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92

**Edurne Korta** | Kultura teknikaria

# "Bingo herrikoia antolatu dugu jaiak borobiltzeko"

## Aurtengo nobedadeetako bat da eta Udalak espero du harrera ona izatea

**GOIATZ ARANA** | BERGARA

Martitzenean izango da bingoa, Umeen Egunean, 18:00etan, Munibe plazan (euria egiten badu, Udal Pilotalekuan).

**Nolako bingoa izango da?**

Asmoa da bingo herrikoia egitea. Parte-hartzea irekia izatea nahi dugu, adin muga barik: haurrak, gazteak, helduak... eta doakoa izango da, gainera.

**Munibe plazan izango da, jaietako azken egunean.**

Bai. Mahaiak ipiniko ditugu, gura dutenei kartoiak banatu eta hasiko dugu jokoa, bi animatzailerekin. Lineak osatu edo bingo egin ahala, opariak banatuko ditugu.

**Dirurik ez duzue emango saritan.**

Ez, dirurik ez dago eta opariak xumeak izango dira: antzerki, igerileku edo SPArako sarrerak, barraketarako fitxak... herrian ditugun bitartekoak baliatu gura ditugu. Gainera, sariak bideratzen ahaleginduko gara hein baten, irabazleetako bakoitzak bere adinera ondo egokitzen den opari bat eraman dezan etxera.

**Saria berezia izango da, noski, bingo egiten dutenentzat.**

Bai, horiek bi lagunentzako bazkari edo afaria izango dute dohain herriko jatetxeren baten.

**Udalak bingora bideratuko duen diru partida herrian bertan geratzea da asmoa, ezta?**

Hori da. Bingo egiten dutenei herriko taberna edo jatetxeren baten otordua egiteko bono bana emateaz gain, asmoa da herriko dendetan gastatzeko bale batzuk egitea, adibidez.

**Parte-hartzaileek, izatekotan, irabazi egin dezatela, galdu ez.**

Ez dugu nahi herritarrek zentimo bakar bat ere gastatzea honetan. Parte hartzera animatzea eta disfrutatzea nahi dugu, ez besterik. Nobedadea izanik, ez dakigu zer nolako harrera izango duen, baina espero dugu ondo irtetea.

**Kartoiak nondik atera dituzue?**

Musika Bandako kideek utzi dizkigute eta eskertzekoa da. Gabonetako kontzertuaren ondoren erabiltzen dituztela enteratu ginen eta eskatu egin genizkien.

**Eta Udalari nolatan bururatu zitzaion bingoa antolatzea?**

Zerbait herrikoia egin nahi genuen. Mus txapelketa bat antolatzea ere bururatu zitzaigun, baina azkenean aukera hori baztertu eta bingoaren aldeko apustua egin genuen, inolako ezagutzarik ez delako behar, edonork joka dezakeelako eta erretiratu etxeetan ere oso gustuko dutelako.

**Nagusien artean izango du arrakasta gehien?**

Nik uste dut familia giroko ekintza bat izango dela, beste ezer baino gehiago. Bazkal ondoren, eta arratsaldeko dantzaldi edo zezen saioa baino lehen, dibertitzeko aukera eskainiko du, zalantza barik.



Edurne Korta, bingoko bolatxoak erakusten. | ANDER MONEDERO

### Diru faltan, espezietan

Doakoa da Bergarako Udalak aurtengo jaiak ixteko gertatu duen bingoa; ez dute gura herritarrek ez euro bat ez bost zentimo gastatzea horretan. Baina bost egunez festan ibili eta gero, geratuko al da, bada, gastatzeko ezer? Orduko patrikak hustuta izatea izango da seguruena, baina bingoan sariren bat irabaziz gero, gaitz erdi! Dirurik ez bada ere, espezieak sikiera.

**"Parte-hartzea irekia izango da, ez dugu adin mugarik ipintzeko asmorik"**

**"Bazkalostean dibertitzeko aukera polita eskainiko du, zalantza barik"**

ibili
1942a ezkero
Aro berriko sukalderako tresneria
San Juan auzoa
BERGARA
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39
Web orria: www.ibili.net
Zorionak bergararroi!




Iturgintza - Berogintza
Laskurain
Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra
Ondo ibili jaietan!

Barrenkale 44 - BERGARA - Tel/Faxa.: 943 76 24 89 - Mug.: 610 20 54 99 - 607 76 24 89

**FISIOTERAPIA eta ERREHABILITAZIOA**

- Fisioterapia orokorra
- Fisioterapia perineala
- Fisioterapia obstetrikoa
- Kirol fisioterapia

**TEKARTERAPIA**

**DRAINATZE LINFATIKOA**

**METODO HIPOPRESIBOA**

**RPG- SGA**

**OSTEOPATIA**

**NATUROPATIA**

**GIZA ELIKADURA, DIETETIKA ETA NUTRIZIOA**

**PODOLOGIA**




Felsinee

Ibargarai etorbidea 17 behea
20570 Bergara
Tel.: 943 53 44 53

*Inkontinentziak eta halakoak ere tratatzen ditugu; partikular zein aseguruekin. Beti klinika, mediku espezialista eta profesionalekin harremanetan, taldeko lana da garrantzitsuena!!!*

***WEBGUNE BERRIA LASTER MARTXAN!***
*www.felsinee.net*



**Saunier Duval**

GUIPUZCOA
**Sematec**

**LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU OFIZIAL BAIMENDUA**

**San Lorentzo 21**
20570 Bergara
**Tel.: 943 76 06 61**

***www.sematekguip.com***
***bergara@sematekguip.com***

**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**



Iazko kontzertu bateko une bat, Bideberriko txosnagunean. | JULIO CALLEJA

# Kontzertuak, garbitasuna eta elkartasuna, gazteen aukera

## Txosnen egitarauan, baltsa jaitsiera eta bi bazkari ere badaude

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Krisiak ekarritako murrizketen aurka, "parrandarako eta borrokarako sena eta gogoa" proposatzen dute txosnaguneko jai batzordeko kideek egun hauetarako. Hala, "herritarrekin herriarentzako" egitaraua osatu du. Berrikuntzak ere sartu dituzte: kamiseta "benetan eleganteak", 5 eurotan; eta edalontzi guztiak berriz erabiltzeko modukoak eginez, ahalik eta zabor gutxien sortzeko. Horrez gain, txosnagunean hondakinak gaika bilduko dituzte.

**Bergarako musika talde batek joko du egunero**

**Musika, gauero**

Ohi bezala, gauero kontzertuak izango dira Bideberriko txosnagunean, eta aurten, "Bergarako taldeei bultzada" ematea erabaki dute jai batzordeko kideek: horregatik, egunero herriko talde batek joko du.

### TXOSNAGUNEKO EGITARAUA

**MAIATZAK 25**

**14:30** Ikasleen bazkaria San Martin plazan.

**20:30** Txosnak, zabalik.

**22:30** Kontzertua Bideberrin: Dirty Brothers, Anai Arrebak, Fiachras eta Goienetxe Anaiak.

**MAIATZAK 26, PRESOEN ALDEKOA**

**14:30** Elkartasun bertso bazkaria Miren Amuritza eta Aitzol Barandiaranekin.

**22:30** Kontzertuak Bideberrin: Truth through fight, Hardflip, Interlude, Malakaton eta DJ Makala.

**MAIATZAK 27**

**18:00** Baltsa jaitsiera, autobus geltokitik irtenda.

**19:00** Gaztetxoendako antzerkia: *Arkakusoaren zirkoa*.

**Gero:** Azkaiter Pelox & The Road Band-en kontzertua.

**Gero:** Film laburren emanaldia eta sariak.

**Gero:** Adabegiren kontzertua.

**MAIATZAK 28**

**11:30** Tabernen arteko herri kirolak, zezen-plazan.

**14:30** Herri bazkaria San Martin plazan; euria bada, Labegaraietako kiroldegian.

**20:00** Berbena Laket taldearekin.

**22:30:** Kontzertuak: Fly Shit, Willis Drummond eta Zopilotes Txirriaus.




Udako ikastaroak 2012
2012-13 ikasturterako aurrematrikula
MATRIKULA ZABALIK
Ekainaren 18tik 25era
16 urtetik gorakoentzat
Ondo pasau jaixetan!
Barrenkale 33 (Irizar jauregia) • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
HABEren dirulaguntzaz
www.udaleuskaltegiak.net
UDAL EUSKALTEGIAK
EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO ENTITATE OFIZIALA

iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL
• Fiskalak
• Laboralak
• Kontableak eta juridikoak
• Finken administrazio zerbitzua
Ondo pasa jaiak!
25.068 kolegiatu zenbakia
Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64


Ibon eta Rose Marie: etorkizun oparoa duen karatekak
Dani Barbero (Giartzu) hiru aldiz Europako txapeldun izandako Alexi Kurvanoven aurka lehiatzen
Izar, kiba-dachi posizioan
Eneko Ruiz (Giartzu) Espainiako Kyokushin karate lehiaketan (Bartzelona, 2012/05/10)
Giartzu gimnasioan gerriko beltza duten zazpi karatekaren entrenamendua
26. Europako Kyokushinkai karate txapelketa. Zaragoza, (2012/05/10)
Azkoitiko udaberri txapelketa
GIARTZU
Tel.: 943 76 30 05 / 943 76 35 71 BERGARA www.giartzu.com
Ondo pasau Pazkoetan!


Ondo pasatu Pazkoetan!
bergarako
aralar

# Ia 800 lagun paella tipikoaz gozatzeko

## Astelehenean San Martin plazan egingo den herri bazkarian koadrila mordoska elkartuko da jai giroan


Herri bazkaria jendez gainezka egon da aurreko urteetan | JOSETXO ARANTZABAL

**PEIO MADRID** | BERGARA

Pentekoste jaietan energia ugari gastatuko dute herritarrek. Eta indarrak berreskuratzeko, herri bazkari on bat bezalakorik ez dago. Azken urteotako ohiturari eutsiz, aurten ere herri bazkari handia prestatu dute Koadrilen Egunerako (maiatzak 28, astelehena).

Oraingo honetan zenbait aldaketa egon dira, bai antolakuntzan, bai programan ere. Bergarako Pikupe Produkzioak enpresa izan da bazkaria antolatzeko arduradun, kultura etxearen laguntzarekin. Ohikoa den moduan, San Martin plaza mahaikidez beteko da paellaz eta jai giroaz gozatzeko.

### Giro aparta

Aurtengo herri bazkariak zenbait aldaketa izan ditu; hori bai, denak onerako izan dira. Lehenik eta behin, musika indartzea erabaki dute antolatzaileek. Betiko txarangaz aparte, trikitiaren doinu alaiez gozatzeko aukera izango dute mahaikideek. Gero, Caino eta Angie DJek giroa are gehiago berotuko dute euren animazioarekin. Horrez gain, plazan txotx egiteko kupel handia egongo da.

Menuari dagokionez, ez du inor epel utziko. Hiru plater izango dira: entsalada, paella tradizionala, postrea, kafea eta txupitoak. Paella prastatzeko arduradunak Valentzia eta Tarragonakoak dira, sukaldari ohiak biak ere.

### Bazkari jendetsua

Pikupekoek esan digutenez, kultura etxean salgai jarri ziren 700 sarreretatik ez da bakarra ere geratzen. Udalak 700 lagunetan finkatu zuen gehienezko jende kopurua San Martin plazan egiten ziren herri bazkarietarako. Baina aurtengo harrera hain ona izanda, Pikupek Udalari beste 95 txartel kaleratzeko proposatu zion. bada, Udalak baiezkoa eman, eta martitzenean jarriko ditu salgai sarrerak.

Pikupe Produkzioak aurten sortutako enpresa da, eta Bergarako Artekalea kalean dago. Karlos Etxaniz eta Iker Muruamendiaratz dira proiektuaren gurasoak, eta, lehenengoak kontatu digunez, kultura ekitaldiak antolatu eta bitartekari lanak egitea da haien asmoa. Bikoteari zorte on eta bergarar guztiei Pentekoste jaietan primeran pasa dezaten opa diegu.

## Jaiak pil-pilean, bakailaoa plazan

Pentekoste jaietatik aldendu gabe, eta janaren gaiari helduta, zapatuan (maiatzak 26) bakailao txapelketa izango da San Martin Plazan.

Bada, ohikoa den proba horretan, Bertan Bergarako elkarteek hartuko dute parte. Hain zuzen ere, bakailaoa pil-pil erara prestatzea da arau bakarra, eta, noski, egunaz gozatzea. Lacor enpresak lapikoak eta amantalak banatuko ditu.


Herritarrak bakailaoa prestatzen. | JULIO CALLEJA











Estella ortopedia

RPS 421/97

Gurpil-aulkien eta garabien alokairua
Etxez etxeko laguntzarako altzari eta osagarriak

Matxiategi 5. Telefonoa: 943 76 19 63
consultas@farmaciaestella.com

Ondo pasau jaixetan!

25 URTEZ bergararrekin.
Eskerrik asko, gugan izan duzuen konfiantzagatik
1987-2012

# Dantza soltea jaiei hasiera emateko

## Txapelketa horren 35. edizioan, helburu nagusia gazteria erakartzea da

PEIO MADRID | BERGARA

Urteroko ohitura eutsiz, aurten ere dantza solte txapelketa izango da Pentekoste jaietan. 16 urtera arteko gazteek parte hartuko dute, bikoteka antolatuta. Sariei dagokienez, mota guztietakoak izango dira. Puntu gehien batzen dituzten lehen bost bikoteek sariak jasoko dituzte, baita lehen hirurek ere. Gero, sari bereziak egongo dira 12 urtetik beherako umeentzat eta jantzi politena daramanarentzat. Dantzarien lana epaitzeko, Euskadiko txapelketako lau epaile ibiliko dira, begiak bi modalitateetan jarrita: fandangoa eta arin-arina.

Oraingo honetan, jardunaldi berezia izango da, probak 35 urte betetzen ditu-eta. Asko aldatu da txapelketa lehen aldiz 1977an egin zenetik. Maite Lazkanok, dantzari ohi eta Euskadiko txapeldun izan denak, dantza-bikote kopuruaren beherakada azpimarratu nahi izan du. "Duela hamar bat urte, txapelketa goizez eta arratsaldez egiteko aukera zegoen. Orain, lehiakide faltagatik, arratsaldez soilik egiten dute dantza gazteek".



Gazteek gogoz egiten dute dantza jaietan. | JULIO CALLEJA

### Euskal dantza bultzatu behar

Maite Lazkano Moiazpi elkarteko ordezkariaren iritziz, kezkagarria da euskal dantzak gazteengan duen jarraipen eskasa. Gazteriak jada ez du antzinako ilusiorik erakusten. Galdutako ilusio hori berreskuratzen ibili dira Abarka dantza eskolakoak azken urteetan, baina orain Moiazpi Dantza Elkarteak hartu du erreleboa. Nahiz eta aurten ikasleen kopurua apur bat jaitsi den, Maitek –dantza irakaslea da– positiboki baloratzen du eskolan egindako berreskurapen lana: "Zenbait arazo izan ditugu aurten egoitzarekin eta antolakuntzarekin; edozelan ere, ikasleen kopurua apenas murriztu da. Joan den urtean 120 ikasle zeuden dantzatzen, aurten 100 inguru dira. Kopuruan baino gehiago, barietatean dago arazoa: ia guztiak neskak dira."

**"Moiazpi elkarteak hartu du Abarkaren erreleboa"**

### Nesken kontua?

Egun, Abarkan dauden ikasleen %90 neskak dira. "Eskolak mistoak izanda, mutilak lotsatu egiten dira. Hori dela eta, mutilentzako eskolak antolatu genituen eta emaitzak positiboak izan dira: 12 ikasle daude dagoeneko".

---

**PATXI MONTERO** | 'HERRIXA DANTZAN', SORTZAILEA

### "Gure helburu nagusia pertsona soilak dantzaren bitartez elkartzea da"



Patxi Montero. | JULIO CALLEJA

Aurtengo Pentekoste jaiek izango duten berritasunetako bat Herrixa Dantzan ekimena da. Patxi Montero arrasatearra arduratuko da bergarar eta bisitariak dantzan jartzeaz.

**Zer lortu nahi da Herrixa Dantzan ekimenarekin?**

Gure helburu nagusia herritar soilak dantzaren bitartez elkartzea da. Dantzak pertsonak elkartzeko ahalmen berezia dauka. Azken finean, Bergarako jaiak izanda, ahalik eta pertsona gehien erakartzea bilatzen dugu, giro alai eta polita sortuta, noski.

**Zein dantza izango dira?**

Dantza motei dagokienez, bereizketa nabarmena egin dugu: alde batetik, Euskal Herriko ohiko dantzak egongo dira; bestetik, Europa mailan tradizional eta ludikoak diren dantzak ere jarriko ditugu praktikan, taldeka, bikoteka eta sokan dantzatzeko antolatuak. Horiek ez dute zailtasun berezirik, edonork dantzatzeko modukoak dira.

**Eguna eta ordutegiak zeintzuk izango dira?**

Egunari dagokionez, maiatzaren 29an izango da, martitzenean. 19:30ean hasiko da dantza saioa. Animatu, ba, denak gonbidatuta zaudete-eta!

PANADERIA Y PASTELERIA ARTESANA
KONDE
PANADEROKUA



Pazko jai zoriontsuak bergarar guztioi!

Burdiñate 11 Tel.: 943 76 02 57
Tokieder plaza 3 Tel.: 943 76 14 87
BERGARA



Bergarako Udala
Ondo pasau jaixak!
San Martin plaza
www.bergara.net • bergara@bergara.net
Tel.: 943 77 91 00 – Faxa: 943 77 91 63

# Txirrindulari amateurrentzako hitzordua Pentekosteetan

## Lokatza eskolak antolatutako proban gazteak dira protagonista nagusiak

PEIO MADRID | BERGARA

Maiatzaren azken asteburuan jokatuko da Pentekoste jaietako txirrindularitza lasterketaren 77. edizioa. Aurreko urteetan bezala, 19 eta 23 urte bitarteko gazteentzat antolatu dute saria. "Gazteei laguntzea da gure helburua, haiei aukera ematea". Horrela aitortu du Miguel Angel Larrañagak, Lokatza ziklismo eskolako buru eta Pentekosteetako lasterketaren antolatzaileak. Larrañagak esan duenez, ibilbidean ez dute aldaketarik egingo, aurreko aldietako ibilbideak izan duen arrakasta eta egoera aproposa kontuan hartu ondoren.

Aurten, gainera, bailarako ordezkaritza izango du lasterketak. Joan den urtean, Euskadiko txapelketa zela-eta, sailkapen probak jokatu ziren, baina hemengo inork ez zuen lortu lehen lauren artean amaitzea. Bada, Miguel Angel Larrañagak ordezkaritzaren kontua azpimarratu du, gazteenen artean kirola sustatzea ezinbestekoa delako.



Txirrindulariak azken esprintean. | JULIO CALLEJA

### Proba gogorra

Sariaren ibilbidea, joan den urtekoekin alderatuta, ia bera da. 122 kilometro izango ditu, eta, antolatzaileek uste dutenez, hiru ordu inguru behar izango dituzte txirrindulariek lasterketa bukatzeko. San Antonion hasi eta bukatuko da proba, eta 09:30ean irtengo dira.

"Ahalik eta lagun gehienek amaitzea da gure helburua", esan du Lokatza eskolako buruak. Izan ere, badaki proba hori oso gogorra eta gaitza dela. Bada, Asentzioko igoera puntu gogorrena da, baina, aldi berean, tropeletik alde egiteko hoberenetakoa. Normalean, txirrindulariak han saiatzen dira alde egiten, helmugatik 16 kilometro eskasera baitago; horrenbestez, tarte hartan aurrera egiteak lasterketa irabazteko aukerak handitzea dakar.

### Historikoa

Euskal Herriko txirrindularitzaren barruan, Pentekoste saria zaharrenetakoa da. Bizirik daramatzan 77. urteetan, luxuzko txirrindulari ugari pasatu dira Bergaratik, profesional eta amateur mailetan. 1932an Vicente Truebak irabazi zuenetik, Bernardo Ruiz, Barrutia, Gandarias, Etxabe, Pello Ruiz Cabestany, Miguel Indurain, Herminio Diaz Zabala, Flores, Perdiguero eta beste askok eman dute izena proba historiko horretan; eta 2007an Jonathan Castroviejok irabazi zuen. Izan ere, proba polita da Pentekosteetakoa, txirrindulari ohientzat oso aproposa. Zaharra, baina gaztea, aldi berean.

### Gimnasia txapelketako finala da aurten

Pentekoste jaietako egitarauaren barruan, bestelako ohiko kirol hitzorduetako bat da gimnasia txapelketa. Bada, aurten, Euskadiko txapelketako A mailako finalean parte hartuko dute gazte, kadete eta senior kategorietako gimnastek. Eskola arteko mailan, berriz, gazte eta kadeteak lehiatuko dira eta amateur mailan, azkenik, seniorrak. Horrenbestez, gimnasia talde askok hartuko dute parte, baita bailarakoek ere, jakina. Hain zuzen ere, Arrasateko Dragoi eskolak eta Bergarako Ariznoa elkarteak ordezkatuko dute Debagoiena gimnasia txapelketan.

Maiatzaren 26an jokatuko da txapelketa, Labegaraietako kiroldegian. Hain zuzen ere, taldeek egun osoan lehiatu beharko dute: goizean, 09:30etik 14:30era arte eta arratsaldean, 15:30etik 20:00etara arte.

EuroTaller

Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Pentekoste jai zoriontsuak bergarar guztioi!

Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel-: 943 761384

autopullmans Araba




Ondo pasa jaixak!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 23 45 / San Juan auzoa 11 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

# Eskuz binakako txapeldunak Bergaran

## Titinek eta Merinok Gonzalezen eta Barriolaren aurka jokatuko dute Pazkoetako martitzenean, 17:00etan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Pilota gustuko duenak pasatzen laga ezineko hitzordua izango du Pentekoste jaietan. Hain justu ere, eskuz binakako txapeldunek, Titinek eta Merinok, Gonzalezen eta Barriolaren aurka jokatuko dute Udal Pilotalekuan jaietako martitzenean, hilaren 29an, Asperen eskutik.

Binakako txapeldunen partidua jaialdiko bigarrena izango da. Izan ere, aurretik Olazabalek eta Merino I.ak Mendizabalen eta Cecilioren aurka jokatuko dute. Jaialdia 17:00etan hasiko da eta prezioa 30 euro da.

### Pilota hitzordu gehiago

Pazkoetako egitarauaren barruan pilota hitzordu gehiago ere izango da: alde batetik, Debarroko finala jokatuko da; eta bestetik, Bergara Hiria Txapelketako finala, biak ala biak BKEko pilota sailaren eskutik.

Debarroko finalari dagokionez, etzi, domeka, jokatuko da, 10:30ean hasita, Udal Pilotalekuan.

Kadete mailan Arrasatek Debaren aurka jokatuko du; jubeniletan, Arrasatek Bergararen aurka; eta nagusietan, berriz, Bergara Elgetaren aurka arituko da.

Apirilean hasi zen Debarroko txapelketa eta urtetik urtera pilotari gutxiagok hartzen dute parte, Reyes Azkoitia pilota saileko kidearen esanetan. Azkoitiaren arabera, Bergara izan da kategoria guztietan bi bikote atera dituen eskola bakarra.



Titin, Bergarako Udal Pilotalekuan jokatutako partidu baten. | ARTXIBOA

### Bergara Hiria ere bai

Bergara Hiria txapelketako finalari dagokionez, astelehenean jokatuko da, 19:30ean, Udal Pilotalekuan. Martitzenean jokatutako norgehiagokan erabaki ziren azkeneko finalistak. Hain justu ere, pilotari hauek arituko dira nor baino nor gehiago astelehenean: gazteetan, Ortiz eta Ibarrondo Altzolaren eta Imazen aurka arituko dira; nagusietan, berriz, Jakak eta Peñak osatutako bikoteak Bisintxo Bilbao eta Uzkudun izango ditu aurkari. Sarrera debalde izango dela azpimarratu dute BKEko pilota saileko ordezkariek.

Pilota kontuekin bukatzeko, aipatzekoa da gaur, egubakoitza, beste hitzordu bat ere egongo dela: hain zuzen ere, Herri Arteko Pilota Txapelketa hasiko da, 19:30ean. Kadete, gazte eta nagusiek indarrak neurtuko dituzte Udal Pilotalekuan.

**Bergara Hiria eta Debarroko finalak ere jokatuko dira**

## Hiru aita-semek herri kirolen erakustaldia egingo dute

Pazkoetako martitzenean ohi den moduan, herri kirolen erakustaldia egongo da. 12:00etan izango da, San Martin plazan, eta hiru aita-semeren lana ikusteko aukera egongo da.

Hain justu ere, Iñaki Perurena eta haren seme Inaxio harria jasotzen arituko dira Pazkoetako martitzeneko erakustaldian. Zelai II.a eta Ioritz Zelai aizkorekin ikusteko aukera egongo da; eta *Bihurri* eta Hodei Ezpeleta ere aizkorarekin arituko dira.



Perurena aita-semeak. | GOIENA



# Oihan Vega DJ lanetan ibiliko da jaietan

DJ eta kazetari bergarrarak dantzan jarriko ditu herriko gaztetxoak jaietako disko festan


Oihan Vega, iazko Pazkoetako saioan. | GOIENA

**MAIALEN REGUEIRO** | BERGARA

Oihan Vega DJ eta kazetariak eskainiko duen disko festa maiatzaren 29an izango da, 22:30ean, Herriko Plazan. Gutxi gorabehera, bi ordu iraungo du hitzorduak, eta bi ordu horietan, gaur egungo eta lehengo abestiak jartzeko asmoa dauka.

Egun horretan Herriko Plazan gazte eta hain gazteak diren asko elkartzea espero da, jaietako egun bereziena ez izan arren. Gainera, Vegak aitortu duenez, "disko festan entzungo diren kantuen zerrenda egun batzuk lehenago egiten da". Dena den, "ikusleek beti izaten dute aukera nahi duten abestia eskatzeko edo norbaiti abesti bat eskaintzeko, nahiz eta, askotan, eskatzen dituzten kantuak ez ditugun eskuragarri; alegia, ikusleak eskatzen duen guztia egiten dugu", azpimarratu du.

**Oihan Vega laugarrengoz Bergarako Pentekosteetan**

### Antolaketa

Saio hori antolatzen dabiltzanek argi daukate zeintzuk diren ekitaldi horren helburu nagusiak: alde batetik, jendeak ondo pasatzea nahi dute; eta beste alde batetik, jai giro polita sortu nahi dute. Helburu horiek mantendu egiten dira, dauden herrian daudela. Izan ere, disko festa herri askotan ikusteko aukera dago, eta, Vegaren arabera, "herri guztiek daukate disko festa bertan izateko eskubidea".

### Disko festa

Vega pozik agertu da aurten ere bere herriko jaietarako gonbidatu dutelako. Krisia dela-eta asko eskertzen du gonbidapena, eta beste urte batzuetan ere Udalaren deia jasotzea espero du. Hura bergararra den aldetik, agertoki gainean dagoenean "beste goxotasun bat sentitzen da etxean egonda". Gainera, dagoeneko gaztetxoek ezagutzen dutela adierazi du, eta, nolabait ere, asko laguntzen duela baieztatu du.

Ez da lehenengo aldia Oihan Vegak disko festa saioa eskaintzen diela bergararrei; besteak beste, aurreko urtean ere Bergarako Pentekoste jaietan izan zen. Aurtengoa laugarren urtea izango da. Badirudi beste urte batzuetan disko festak izugarrizko arrakasta izan duela Pentekoste jaietan, eta aurten ere Udalak DJ eta kazetari bergararrari disko festa saioa egiteko aukera eskaini dio herriko gazteek eta ez hain gazteak dantzan jartzeko. Bada, hurrengo urteetan ere jaietan saioa ematea espero du.


DJon saio batean. | WWW.JONURBIETA.ES

## DJon Urbieta ere bai Bergarako jaietan

Bergarako gazteek eta hain gazteak ez direnek, beste behin ere, DJon Urbietaren musika saioaz gozatzeko aukera izango dute aurtengo Bergarako Pentekoste jaietan.

24 urte dituen gazte zumaiarrak maiatzaren 26an, zapatua, dauka hitzordua, 22:30etik 00:30era. Bi ordu horietan, Seminarioko zezen-plazan egongo da.

T. Blanco
BRIDGESTONE Firestone DUNLOP
Erakusketa eta salmenta:
San Lorentzo industrialdea. Amillaga 22. BERGARA
Tel.: 943 76 17 35 / 943 76 51 35 • Faxa: 943 76 94 59
Jai zoriontsuak bergarar guztioi!




Embalan3
Enbalaje Sistemak
San Juan Auzoa. Larramendi Industrialdea, Partzela I-1
Posta Kutxa, 5
20570 Bergara
Tel.: 943 82 94 83 - Faxa: 943 76 41 85
embalan3@embalan3.com
www.embalan3.com
ondo pasau jaixak!









Ile apaindegia
Estetika

Bolu Kalea 51. BERGARA
Tel.: 943 76 50 32

www.kizkur.com

facebook







# Konpartsak, txistulariek eta bandak piztuko dute kalea

## Bandaren Espoloiko kontzertua Pentekoste-domekan da, 12:30ean

**JON BEREZIBAR** | BERGARA

Kaleko giroa betiko moduan, eta musikari dagokionez, herriko txistulariak eta musika banda arduratuko dira, baina ez da eurena bakarrik izango kaleak girotzeko ardura: alboan izango dute Bergarako konpartsa.

Zapatuan, hilak 26, txistularien eta Elgoibarko dultzaineroen laguntzarekin Bergarako Erraldoien Konpartsa irtengo da. Aurten "berrikuntza handiekin ez" ei dira etorriko, konpartsako kide Ibon Unamunok dioenez. Konpartsak 12 urte bete ditu dagoeneko eta hasierako hiru kideek osatzen zuten taldea orain 24 bat partaidek osatzen dute. Jaietakoa, gainera, irteera berezia izaten da, nahiz eta urtero beste lau bat saio egin herrian bertan eta beste hainbeste herritik kanpo. "Herriko jaietan konpartsako kide guztiek nahi izaten dute atera, normalean inork ez du kalerik egin nahi izaten", azaltzen du Unamunok. Osterantzean, Azpeitian urtero-urtero eta azken urteetan Debako zitari ere ez diote hutsik egiten. Ekainean bertan, gainera, kontzertu berezi baten hartuko dute parte ohiko konpainia duten Elgoibarko dultzainero taldearekin eta Durangon bertako bandarekin kontzertua egingo dute.



Bandak iazko jaietan Espoloiko kioskoan eman zuen kontzertuko unea. | JULIO CALLEJA

**Konpartsak dagoeneko 12 urte bete ditu sortu zenetik**

**Bandaren ohiturak**

Bergarako musika bandari dagokionez, dagoeneko klasikoa den *Pobres y alegres* piezarekin irekiko dituzte jaiak. Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak kontatzen du haren aitaitari baserriz baserri erromeriatan jotzen ibiltzen zen bandako kide batek ekarri ziola melodia, aitaitak egokitu eta "ia betidanik" jo izan dute herriko jaien hasieran abesti hori. Hitzordu nagusia, baina, Pentekoste domekan izango da Espoloiko kontzertuarekin. Kanpoko kontzertua denez, "sonoritate handiko piezak aukeratzen dituzte, kalean ondo entzun daitezen". Fado ezagun batekin ireki, vienar musikako erakusle nagusi batekin jarraitu eta pop musikako abesti ezagunendako lekua izango dute aurtengo abestien zerrendan.

### Klasikoa, balsa eta pop kantuak

Musika klasikotik hasita, pop kantu ezagunekin eta fadoekin osatu dute Espoloiko kontzertua. Aurten, gainera, bi pieza berezi joko dituzte: bata, txirrindulari taldeari eskainitako *Lokatza* izenekoa; eta bigarrena, programan ez datorrena, *Errioxara* izena daukana, ekain aldean Errioxa aldera egin ohi duten irteeraren ereserki ofizial bihurtu dena dagoeneko.

***María la portuguesa***
C. Cano (Chirlaquek moldatua)

***Die Schöne Galathée***
F. von Suppé

***Raquel***
M. Gz. Bastida

***Virginia***
J. de Haan

***Eloise***
P. Ryan

***Lokatza***
A. Gz. Chirlaque

***Bergarako Ereserkia***
A. Gz. Chirlaque

alet Ingenieritza eta Instalakuntza
BERGARA
Energia fotoboltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia • Biomasa • Zoru Erradiatzailea
www.alet-taldea.com Tel.: 620 56 13 16 - 669 36 69 53
Ondo pasau jaixetan!

LAGUN GARAJEA
ad®
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
Ondo pasau jaixak!
Santalaitz 3. BERGARA. Tel.: 943 76 11 20

**Maddi Gutierrez** | Goitibehera pilotua

# "Emozionatu egiten naiz neska bakarra naizela entzunda"


Maddi Gutierrez, bere *golfo*-aren gainean. | MONIKA BELASTEGI

## Goitibehera lehiaketetan aritzen da eta domekakoan ere arituko da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Hamaika urte baino ez ditu, baina ausardia handia. Bergarako gaztetxo horrek goitibehera txapelketetan hartzen du parte eta Pazkoetakoan ere lehiatuko da, domekan.

**Zenbat urterekin hasi zinen?**
Iaz hasi nintzen, hamar urte nituela.

**Eta zelatan hasi zinen, nondik etorri zaizu zaletasuna?**
Anaia, Jokin, ibiltzen zen, eta orain ere badihardu. Eta hari ikusita, ba nik ere egin nahi nuen. Probatu nuen eta gustatu egin zitzaidan.

**Baina modalitate ezberdinetan aritzen zarete.**
Jokin goitibehera *pneumatiko*-an ibiltzen da eta ni, *golfo*-an.

**Eta zer da *golfo* delakoa?**
Etzanda jaisteko patinete antzekoa da, bakarka joatekoa. Hiru errubera ditu eta gidatzeko manillarra. Olentzerok ekarri zidan lehena, txikitxo bat, errodamentudun erroberekin. Baina erraz apurtzen zen hura eta gurasoek beste bat erosi zidaten, orain erabiltzen dudana. Handiagoa da eta gomadun kubiertak ditu.

**Ze abiadura har dezake?**
80 kilometro orduko, aldaparen malda eta luzeraren arabera. Kubiertek ere badute zerikusia. Anaia *pneumatiko*-arekin 120 kilometro ordura iritsi da.

**Pertsonalizatu ere egin duzu.**
Bai, margotu egin dut, berde, zuri eta gorri margotu dut, Euskal Herriko koloreekin.

**Asko entrenatzen zara?**
Ez askorik; eguraldi ona egiten duenean ibiltzen naiz. Duela ez askora arte San Juango bide baten ibiltzen ginen, baina itxi egin dute eta orain Soraluzera joaten gara, Sagarrerrekara.

**Euskal Herrian emakumezko bakarra zara *golfo* modalitatean.**
Bai, ez da beste inor animatzen -eta. Egia esan, neska bakarra naizela entzunda, emozionatu egiten naiz.

**Eta zergatik ez dira animatzen, ba?**
Ez dakit, beldurragatik-edo.

**Izan ere, errespetua, behintzat, ematen du.**
Bai, baina ibili eta ibili eta pasatu egiten da. Nik ere hasieran beldurra sentitu nuen, baina gero joan egin zitzaidan. Gainera, ondo babestuta joaten gara. Kaskoarekin eta arropa bereziarekin.

**Eta iaz hasi zinenetik, txapelketa askotan hartu duzu parte?**
Hogei baten, eta nahiko ondo moldatu naiz, hirugarren-eta egin izan dut. Gernikan, Oñatin, Lezaman, Etxeberrin... hartu dut parte.

**Domekan San Martzialen egingo denean ere parte hartuko duzu.**
Bai. Denboraldiko lehen txapelketa da bihar, Oñatin, eta bigarrena etzi, Bergaran. Hala, animatu nahiko nuke jendea parte hartzera, oso praktika polita delako.

**"Neska bakarra naizela entzunda, emozionatu egiten naiz"**

**"Jendea animatu nahi dut domekako txapelketan parte hartzera"**


Raizabal gozotegia
1908tik zuekin
eskerrik asko guztioi
eta ondo pasau jaixak!
Artekale 9 Tel.: 943 76 11 83 / Bidekurutzeta 20-22 Tel.: 943 76 12 19

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L. MARGO LANAK OROKORREAN
Ondo pasau jaixak!
Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32

# Gustu guztiak asetzeko zuzenekoak



Fiachras-ek etxean joko du; giro beroa bermatuta dago. Irudian, Eskoriatzan egindako kontzertu bat. | JULIO CALLEJA

Rock doinuetatik hasita, askotariko erritmoak nagusi; herriko taldeak egunero izango dira protagonista

## EGUBAKOITZA 25

### Dirty Brothers, Anai Arrebak, Fiachras eta Goienetxe Anaiak

Bideberrin | 22:30ean

Jaietako lehen egun handian txosnetako agertokira igoki diren lau taldeak euren artean erabat ezberdinak diren proposamenekin datoz. Dirty Brothers talde arrasatearraren punk rocka, Anai Arrebak talde pasaitarraren funkya eta hard rocka, Fiachras talde bergarararren folk erradikala eta Goienetxe Anaiak talde nafarraren rapa izango dira protagonista. Gustu guztiendako moduko kontzertua, zalantza barik.

Dirty Brothers arrasatearrak *Egun ilunak* izeneko disko berriarekin datoz. Taldekideen arabera, aurreko diskoa baino "oldarkorragoa, zuzenagoa eta landuagoa" da eta hori zuzenekoan igarriko da. Finean, Arrasateko jatorri izendapena duen punk rocka izango dugu txosnetan.

Anai arrebak taldeak, bestalde, ohikoa duen ikuskizun eroa bezain freskoa eskainiko du, hau da, Jousilouli taldean famatu egin zen Matxet eta haren arrebak ez dute inor axolagabe utziko.

Fiachras izango da beste protagonistetako bat. Jende gehien erakarriko duen taldea akaso, etxean aritzeaz gain inguruan ere hainbat jarraitzaile dituztelako. Folk erradikala eta bestelako doinu itsaskorrak, hitz landuak eta festa giroa barra-barra ekarriko dute Artola, Aldanondo eta konpainiak.

Azkenik, Goienetxe Anaiak euskaraz egindako raparekin etorriko dira, loraldian dagoen Euskal Herriko hip hopa aldarrikatzera.

## ZAPATUA 26

### Lord Witch, Katabatik eta Turboshit

Kruz Gallastegin | 19:00etan

Egubakoitzeko denetariko doinuen uholdeak eragindako ajea oraindik gainditzeke, zapatuan rock maratoia izango da protagnista. Hori bai, rocka ozeano zabala dela frogatuko dute Lord Witch, Katabatik eta Turboshit taldeek, doinuei dagokienez ezberdintasunak agerikoak direlako. Herriko taldeak dira guztiak eta beraz, ikuslegoaren babesik ez zaie faltako.

Lord Witch taldeak zortzi urte inguru daroatza dagoeneko Heavy metala agertokiz agertoki muturreraino defendatzen. Erabat sinisten dute egiten dutena eta hala bizi dute. Horregatik, asko transmititzen diote estilo hori gustuko duen ikusleari. Era berean, askoz ibilbide motzagoa izan arren metal doinuen defendatzaile sutsu moduan dator Katabatik taldea. Duela lau urte inguru sortu zen taldea baina metal doinuan eskarmentu handia dute.

Amaitzeko, Turboshit taldeak ere joko du. Disko berriarekin dator hirukote bergararra, labetik irten berri. Disko bikoitza da gainera: lehenak euskarazko eta gaztelerazko kantuak ditu –hamar kantu– eta besteak, berriz, ingelesezko kantuak –beste hamar abesti–. Hala azaldu du Iñigo Ibarzabal gitarra joleak: "Diskoak gure bilakaera osoa jasotzen du. *Kañeroa* da, indar handikoa. Eta hitzek, batez ere euskarazkoek, asko transmititzen dute".



Mikel Ibarzabal, Turboshit. | J.ARANTZABAL

## DOMEKA 27

### Azkaiter Pelox & The Road Band eta Adabegi

Txosnetan | 19:30ean

Unai Azkarate gazte bergararrak kaleratu berri duen lan berria, *Zamburleiker* izenekoa, aurkeztuko du txosna-gunean jaietako domekan. Eta nola ez, bere taldearekin egingo du emanaldia. "*Zamburleiker* diskoko abestiak orain dela urtebete inguru lantzen hasi nintzen, baina abestien ideia asko zaharrak dira. Adibidez, *Iparraldera* bidaia izeneko abestia 2004ko ideia baten oinarrituta dago. Nire lanean sinisten dut, artista bat naiz eta nire bizitzaren parte garrantzitsu bat abestietan islatzen dut", azaldu digu diskoaren gainean galdetuta. 10 kantu berrik osatzen dute Azkaiter Pelox & The Road Band taldearen lana. Estilo desberdin asko nahasten dira; hala, *Zamburleiker* diskoa grabatzera gonbidatu dituzten musikarien eragin zuzena antzeman daiteke.




UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Proiektuak · Koltxoiak · Horma-Armairuak · Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak


Anai Arrebak, Matxet. | GAUILUNAK


Azkaiter Pelox. | UNAI AZKARATE


Willis Drummond. | SONGKICK.COM

Ondoren Adabegi taldearen doinuekin gozatzeko aukera izango da. Adabegi oso proiektu bitxia da. Zestoako Ttakunpa taldeko kideetako batzuk eta beste hainbat lagunek osatutako talde erraldoia da. Orain dela lau urte inguru sortutako proiektu honetan, txalaparta oinarri hartuta, baxua, bateria, perkusioa, elektronika, dantzariak eta abeslariak daude; tartean, abeslari afrikarra eta Askoa Etxebarrieta *La Pulga* flamenko dantzaria. fusioa lantzen dute: flamenkoa, afrikarra, funka eta beste uztartzen dituzte.


Abadegi taldearen flamenko eta funky doinuak domekan. | ABADEGI

## ASTELEHENA 28

### Fly Shit, Willis Drummond eta Zopilotes Txirriaus

Txosnetan | 22:30ean

Bergarako Fly Shit taldea –1996an sortutakoa– aspaldi bihurtu zen erreferente Euskal Herriko hardcore taldeen artean. Horrez gain, *Bizitza, baina nola bizi?* lanarekin erakutsi zuten old school -etik haratago joateko asmoa zutela. *Arnas bakoitzeko ernetzen* izeneko azken lanarekin post -hardcoren eta *emo*-arekin proba egin eta bete-betean asmatu dute. Izan ere, aurkezten dihardutenn diskoa Euskal Herriko 2011ko kuttunenen artekoa da aditu askorendako. Besteak beste azken diskoko kantuak entzuteko aukera izango duzue astelehenean.

Willis Drummond iparraldeko taldeari badirudi gustua hartu diogula debagoiendarrok. Gurean, beste behin entzungo ditugu iparraldekoen doinu gordinak eta basatiak.

Zopilotes Txirriaus taldea ere sarritan gonbidatzen ditugu gure ibarrera; koadrila nafarraren dantza erritmoek alaitasuna eta umorea zabalduko dute txosna gunean.

Baina doinu gogorrei paso, Laket taldearen festa erritmoek emango diote. Trikitixak, perkusioak, kabasak, panderoak, gitarrak, bateriak, guiroak eta Maitane eta Aioraren ahots goxo eta sentsualek osatzen dute Laket, besteak beste. Emanaldia, 20:00etan hasiko da txosna gunean. Ondoren, 22:30ak aldera, beste hiru taldeen txanda izango da.


Luhartz taldearekin erromeria domekan . | WWW.LUHARTZ.COM

## Erromeriak jaietan ezin dira falta


Trikizio taldea. | TRIKIZIO

Rock eta punk doinuez gain, bada zerekin dantzatu herriko plazan. Egunero egunero izango da dantza egiteko aukera San Martin plazan, erromeria giroan. Barikuan, Aire Aire taldearekin izango da dantzaldia, 23:00etan. Zapatuan, Trikizio izango da eta bi saio egingo ditu: 20:30ean eta 23:30ean. Domekan, Luhartz taldearen doinuak, 23:00etan eta astelehenean, berriz, Liskerrekin dantzaldia. Martitzenean, aldiz, 19:30ean *Herrixa Dantzan*, Jainaga eta Narbaiza trikitalriekin.

AGIRRE
HORTZ KLINIKA
Ondo pasau Pazkuetan!
• Odontologia orokorra
• Periodontzia
• Ortodontzia
• Endodontzia
• Kirurgia
• Protesiak
• Inplanteak
• Estetika
• Hortzen zuritzea
Ibargarai 9, 1-B. Bergara Tel.: 943 76 00 23 Ordutegia: 08:00-21:00 (Eguerdian ere zabalik).
AEGON aseguroak

AZKARATE AROZTEGIA
Telleria 19, B02-B03 BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 88 40 20
K21
• Ateak
• Leihoak
• Horma-armairuak
• Tarimak
• Parket flotatzaileak
• Sukaldeak

Arotz lanetan behar duzun guztia

# PAZ KOAK 2012

**GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | JAIAK: PAZKOAK 2012, BERGARAKO JAIAK**
ASTELEHENA, MAIATZAK 28, 20:15 ETA 22:15 | TXOMIN MADINA ETA MIREN ARREGIK AURKEZTUA

**GOIENA TELEBISTA | JAIAK: PAZKOAK 2012, BERGARAKO JAIAK**
EGUBAKOITZA, EKAINAK 1, 22:40



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela. Garaje itxia. Trastelekua. Sukalde hornitua. Dena kanpoaldera begira. Igogailuarekin. 8 urte dauzka. 650 58 24 48

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zaldibar kalean, parkean bertan. Hiru logelakoa. Miren. Deitu 637 00 38 57 zenbakira

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurre kalean. Aukera paregabea. 70.000 euro. 75 metro koadro. Obra egiteko. Deitu 645 70 17 21 telefonora.

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde hornitua, jangela-egongela, bi logela eta bainugela. Jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 35 metro koadroko garajea aukeran. Inigo. 659 72 06 64

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Etxebizitza ematen da errentan. Berritua. Bi logelakoa. Igogailuarekin. 645 00 89 97 edo 645 70 80 26

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Jantzia eta egoera onean, bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Gasezko berogailu indibiduala. Erdialdean. 605 74 34 39 edo 645 00 90 03

**Costa Ballena (Cadiz).** Udarako etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bi bainu eta garajearekin. Hondartzatik oso gertu eta igerilekua urbanizazioan. Oso aproposa familian oporrak pasatzeko. Deitu zenbaki hauetara: 679 84 62 48 edo 648 03 21 53

**Donostia.** Antigua auzoan etxebizitza ematen da errentan uztail eta abuztuan. Prezio interesgarria. Kontxi. Deitu 652 76 21 63 telefonora

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bi bainugela, egongela-jangela eta sukaldea. Guztiz jantzia. Ia berria. Deitu 606 08 39 92 zenbakira

**Peñiscola.** Hondartzako lehen ilaran. 2-6 pertsonarendako. Igerilekuarekin. Jantzia eta hornitua. Hamabostaldika ematen da errentan. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza behar dugu errentan 2012-13 ikasturterako. Hiru logelakoa, jantzia eta egoera onean. Partikularren artekoa. 685 72 32 50 edo 639 72 91 50

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

**Baserria edo borda.** Bikote gazteak baserri edo borda errentan hartu nahiko luke. Ez du axola egoera txarrean badago. Prest egongo ginateke konpoketak egiteko edo baserriko lanetan laguntzeko ere. Idatzi mezu bat xibase75@hotmail.com helbidera edo deitu zenbaki hauetara: 697 75 49 73 edo 634 73 19 47

**Malaga.** Kostaldean etxebizitza hartuko genuke errentan abuzturako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 90 23 66

**Oñati.** Apartamentua behar dut errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627 39 98 46

**Oñati.** Etxebizitza behar dut errentan. Deitu telefono zenbaki honetara: 600 31 14 16

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat alokagai dugu unibertsitate ondoan. 630 71 35 83

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 620 52 94 98

**Arrasate.** Lau gelako etxea osatzeko gela bat errentan. Langileak bizi dira bertan. Etxea oso eguzkitsua da. Deitu: 653 71 44 57

**Arrasate.** Neska arduratsuak etxebizitza edo logela behar du errentan. Kontratuarekin. 634 40 64 65

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko erdigunean. Iñaki. 608 49 89 93

**Zarautz.** Pertsona bat behar da Zarautzen pisu bat konpartitzeko. Etxea berrituta dago. Hiru logela eta terraza handia eta eguzkitsua du. 658 71 66 93

## 2. GARAJEAK

### 202. EROSI

**Antzuola.** Garaje itxia erosi edo errentan hartuko nuke. Deitu 679 31 75 50 telefonora

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 15,5 metro koadroko garaje itxia saldu edo errentan ematen da erdigunean. Kontzezino-Iturbide egoitza artean. 628 14 92 74

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Neska gertu interna bezala edo orduka lan egiteko. Atariak garbitzen ere bai. 610 68 81 58

**Arrasate.** Neska gertu interna moduan edo orduka lan egiteko. Atariak garbitzen eta abar. 689 95 12 83

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zubieta 30 m². Logela bat. 60.000€.
- Irizar Enparantza 71 m². 2 logela, igogailu, berogailu, trasteleku eta garajearekin.
- Matxiategi 102 m². 4 logela. Igogailu, berogailu eta trastelekuarekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zabalotegi 55 m². Balkoia eta trastelekua. Prezio jaitsierarekin. 114.192€.
- Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395
- Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354€.
- Zubiaurre 51 m². 102.000€.
- Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Zubiaurre 65 m². 3 logela. 63.000€.
- Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Iparragirre 40 m². Apartamentua, berria.
- Zubieta 240 m², ortuarekin.
- Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€.
- Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela. Aukera ona.
- Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
- Lorentxokon pisuak estrenatzeko. 3 eta 4 logelatakoak. AUKERA ONA.

**Antzuola:**
- Sagasti 90 m2. 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Sagasti Duplexa 125 m2. Oso ondo
- Buztinzurin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**Elgeta:**
- Torrealdea 77 m2. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m2 lursaila.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO
**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
**- Profesionalen moduluak.**

**Bergara.** Neska euskalduna uztailean haurrak zaintzeko prest. Edozein ordutegitan egin dezaket lana. Haurrei buruzko ikasketak ditut. 664 46 28 18 edo 943 76 13 18

**Bergara.** 18 urteko mutila interesaturik dago ostiral, asteburu eta jai egunetan Bergaran zerbitzari lanetan aritzeko. 627 36 83 70

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu garbiketa lanak, nagusiak zaindu eta bestelako lanetarako. Ordutegi malgua. 671 21 55 26

**Bergara.** Esperientziadun gizonezkoa gertu garbiketa lanak, nagusiak zaindu eta bestelako lanetarako. Ordutegi malgua. 691 72 67 38

**Bergara.** Garbiketan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Titulazioa eta esperientzia dauzkat. 680 77 06 46

**Debagoiena.** Autoen mekanikaria naiz eta lana egiteko prest nago. Bestelako lanak ere egingo nituzke. 645 54 43 25

**Debagoiena.** Edozein porte edo bidaia egiteko prest furgonetarekin. 677 80 16 10

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lanerako gertu. Interna gisa edo etxeko lanak egiten ere bai. Esperientziaduna. Deitu 671 21 55 26 telefonora

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketan, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Ana Luisa de los Santos. 673 78 08 99

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, etxean bizi izaten zein bestela lan egiteko. Ume edo nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 682 31 97 37

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Bait agarbitasun lanetarako ere. Ordutegi malgua. Eskarmentuduna. Deitu 618 00 08 28 telefonora

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu, formakuntzarekin, nagusiak zaintzeko gertu. Gaixoak eta umeak ere bai. Etxean bizi izaten edo ordua. Deitu 634 62 41 26 telefonora

**Debagoiena.** Etxe laguntzaile titulua duen emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein orduka. Atari, etxe eta bestelako garbiketak egiteko ere prest nengoke. Eskarmentuduna. 629 80 77 73

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bizi izaten edo bestela. Legezko paperak ditut. 636 77 44 24

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. 654 94 87 26 edo 654 94 87 26

**Debagoiena.** Lan bila nabil garbiketak egiten, ume edo nagusiak zaintzen, sukaldean eta abar. Gidatzeko baimena eta autoa dauzkat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Lan egiteko gogoz dagoen Arrasateko 37 urteko gaztea lan desberdinak egiteko prest: margoketa, iturgintza, igeltserotza, lorezaintza, ortu lanak eta abar. Deitu 683 42 87 04 telefonora

**Debagoiena.** Mutil gaztea C eta C1 gidatzeko baimenarekin, banatzaile lanak egiteko prest. 683 42 87 04

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Baita ospitalean ere. Eskermentuduna. Peoi edo laguntzaile lanak ere egind itzaket. Ofimatika ezagutzak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Berahala hasteko gertu nengoke. Asteburuetan ere bai. 689 18 04 12

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 77 44 24

**Debagoiena.** Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketak egin edo nagusiak zaindu zein paseoan laguntzeko. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 zenbakietara

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko. Tituluduna: etxez-etxeko laguntza, arreta sozio-sanitarioa, higiene eta segurtasun prebentzioa eta abar. Baita hirugarren adinekoen animazio titulua ere. 619 87 95 57

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu ume zein nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo ospitalean gauak egiteko. Esperientzia eta informeak dauzkat. Autoa eta gidatzeko baimena ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzen edota atari eta bestelako lanetan jarduteko. Etxean bizi izaten edo bestela. 697 14 61 02

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko nagusiak zaintzen, garbiketa edo bestelakoetan. Tituluduna. Legezko papera ere baditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 40 64 65

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein haurrak zaindu, edota etxeko lanak egingo nituzke. 674 72 06 43

**Debagoiena.** Neska gertu tabernan lan egiteko, sukaldean edo barran. Garbiketa zein bestelako lanetarako ere gertu nengoke. Legezko paperak ditut. 603 25 12 34

**Oñati.** Mutil gazte euskalduna. Edozein lanetarako prest, bai asteburu baita astegunetan ere. 645 70 80 71

**Oñati.** Umeak udan zaintzeko prest. Arlo honetan esperientziaduna eta arduraduna. 696 30 04 28

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Border Colliea.** Hiru hilabeteko Border Collie saltzen dut. Oso polita da. 653 71 38 15

**Perikitoak salgai.** Oso prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 65 21 49

### 703. EMAN

**Border Collie.** arrazako txakurra ematen da opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 46 45 33

**Txakurkumeak Urbian.** Txakurkumeak ematen dira opari Urbiako fondan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 78 13 16

### 704. BESTELAKOAK

**Brako ertaina gurutzatzeko.** Brako ertain eta kolore ilun baten bila gabiltza gure txakurrarekin gurutzatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 29 59 65

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Almirante trajea.** Jaunartzea egiteko mutiko trajea salgai. Behin bakarrik erabilia. Traje osoa, zapatak izan ezik. 10 neurrikoa. 200 euro, negoziagarri. 618 00 08 28

**Anplifikagailua salgai.** Alvian acoustic 25c anplifikagailua salgai, interesatuak: 686 61 35 52 edo 943 53 27 20

**Aulki bikoitza.** Aulki bikoitza, adin desberdineko anai-arrebentzat salgai. Graco Stadiun Duo markakoa. 653 71 53 81

**Baserritar erropa.** Mutikoarendako baserritar erropa salgai. Urtebete eta lau urte bitartean erabiltzekoa. Praka, alkandora, blusoi beltxa, txapela, galtzerdiak eta 21 zenbakiko narruzko albarkak. 50 €. Idatzi marysea15@hotmail.com helbidera edo deitu: 653 72 22 54

**Bizikletarako umeendako aulkia.** Umeak bizikletan eramateko aulkia salgai. Etzan eta siesta egiteko ere erabil daiteke. 647 58 40 73

**CDak.** Ia berriak. 6 euroan. La Polla Records (6 cd), Serrat (5 cd), Gari Moore, Vomito, Manu Chao, Jara de palo, Prince, AC/DC..eta beste asko. Emmanuel Lantxas. 699 77 86 38

**Dena zure umearentzat.** Sehaska berria lo egiteko, balantza jolasteko eta trona jateko. Chicco etxeko kit osoa: maxi-cosia, kapota (fundarekin), apapa aulkia eta kotxearen aulkia (jaioberritik hamazortzi kilo arte). 490 euro dena. Etor zaitez ikustera konpromisorik gabe. 677 53 37 55

**Gimnasiorako bonoa.** Bi bono saltzen dira Arrasaten. 15 hilabeterako. Egunero joan zaitezke astelehenetik larunbatera, eta edozein klasera. 280 euroan bakoitza. 607 06 22 20 edo anunciointer@yahoo.es

**Karro denda.** Oso egoera onean. Sekulako aukera. 1.200 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 80 87 85

**Kristalezko mahaia.** Bulegorako kristalezko mahaia salgai. Berri-berria. Prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 87 95 57

**Lizentzia.** Taxi lizentzia salgai Bergaran. 670 41 07 24

**Piano digitala.** Ringway TG-8815 modeloa. Oso gutxi erabilia. 275 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675 00 80 33

**Piragua.** 3,50m luze den piragua salgai kubrea eta palagaz. Kirol honetan hasteko egokia. 635 75 20 08

**Relax besaulkia.** Pavia modeloa. Etzan egin daiteke eta zutik jartzen laguntzen du. Astebete bakarrik erabilia. 500 €. (Debagoienean). 670 43 16 62

**Sofa.** Hiru pertsonendako sofa polit bat saltzen da 300 eurotan. 667 06 51 16

### 802. EROSI

**Baby Jogger City Mini.** Baby Jogger City Minirako kapazoa erosiko nuke. Deitu 652 71 74 49 telefono zenbakira.

**Bugaboo bee.** markako umearendako karroa erosiko nuke. 645 00 98 09

**Bugaboo Bee.** Bigarren eskuko bugaboo bee-a erosiko nuke. 678 04 56 05

**Igel jokoa.** Igel joko baten bila nabil. Norbaitek badu deitu diezadala. 607 66 02 44

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Bizikleta botatzeko moduan badaukazu, nik jasoko dizut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

### 806. GALDU

**Estutxe beltza basoan.** Baso lanerako tresnak dituen estutxe beltza galdu nuen joan den astean Asentzio mendi azpian. Beltza da eta oinarri zirkularra du. Topatuz gero mesedez deitu zenbaki hauetara: 663 72 77 68 edo 629 73 30 28

**Motxilak galdu.** Maitzaren 11n umeen 2 motxila galdu genituen. Bat urdina eta beste kamuflaje (naranja kolerekoa). Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara: 615 79 13 21

**Patinetea galdu.** Aretxabaletako Iralabarri plazan Oxelo markako patinete arrosa galdu da. Izadi izena dauka. Aurkitu baduzu deitu mesedez telefono honetara: 699 86 17 79

**Poltsa autobusean.** Apirilaren 22an gizonezko poltsa bat utzi nuen ahaztuta Eskoriatza eta Eibar arteko autobusean, 12:15ean. Beltza da, Diesel etxekoa. Betaurrekoak, autoko giltza, diruzorroa eta abar daude bertan. Aurkitu badituzu eskertuko nuke zenbaki hauetara deitzea: 644 28 60 05 edo 943 03 95 40

**Txamarra bakeroa Oñatin.** Oñatin, umearen txamarra bakeroa galdu dut maitzaren 7an. 8 neurrikoa. Baliteke Bidebarrieta inguruan. Aurkitu baduzu deitu mesedez. 664 35 75 15. Eskertuko da.

### 807. AURKITU

**Mediku tresnak.** Tentsioa hartzeko eta auskultatzeko tresnak aurkitu genituen maiatzaren 11n Arrasateko Aldai kale inguruan. Zureak badira, deitu: 943 79 46 04

**Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea**

# BATZAR OROKORRA

**DEIALDIA**
**Data:** 2012ko ekainaren 7an.
**Ordua:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.
**Tokia:** Arrasateko Kulturateko areto nagusian.

**GAI ZERRENDA**
1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2011ko ekainaren 9ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2011ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2011ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
6. 2012ko kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.
7. Bazkide ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
8. Bazkide ekarpenen eguneraketa.
9. Jardunik gabeko bazkideen kapital ekarpena.
10. Kontseilu sozialeko kide batzuen kargu-uztea eta berrien hautaketa.
11. Errektore Kontseiluko kide berriak aukeratzea.
12. Zaintza Batzordeko kide berriak aukeratzea.
13. Galderak eta eskaerak.

Estepan Plazaola Otadui.
Errektore Kontseiluko lehendakaria.
Arrasaten, 2012ko maiatzaren 14an.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

## ASTEA GOIENAN


GOIENA

### Errepideen gaineko eztabaida politikoa

Gipuzkoako errepideen finantzazio eta ordainketaren gainean eztabaidatzeko, Larraitz Ugarte (Bildu), Eneko Andueza (PSE-EE), Rebeka Ubera (Aralar) eta Aintzane Oiarbide (EAJ) gurean izango dira. Dudarik gabe, errepideen gaia pil-pilean dago azkenaldian.
**'Tertulia'**
Eguaztena, 13:45:


JULIO CALLEJA

### Pentekoste jaien errepasoa

Asteleheneko *Magazinea*-n Pentekoste jaien inguruan arituko gara. Aurten Bergaran ospatzen diren lehen festak direnez, ostiralean ere saio berezia eskainiko diogu horri. Saioan, antolatutako ekintzak, iritziak eta abar aztertuko ditugu.
**'Magazinea'**
Astelehena, 12:30:

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 26**

**10:00** Ipupomamua
**10:26** Zorion agurrak
**10:31** 28. Klip
**10:53** Planik bai?
**11:03** AsteON
**11:33** Berbetan
**12:06** Bizitegia
**12:36** Erreportajea: Zegama-Aizkorri
**13:26** Onein: Zapoa barazkiekin
**13:56** Berriak
**14:11** Magazinea
**15:11** Gipuzkoa Kultura
**15:41** Harira
**16:11** Planik bai?
**16:21** Zorion agurrak
**16:26** Berriak
**16:41** Onein: Txangurro Krepa
**17:12** Ekogune
**17:42** Gipuzkoa Kultura
**18:12** Mendialdean Bizi
**18:37** Zorion agurrak
**18:42** Erreportajea: Zegama-Aizkorri
**19:32** Berbaz
**20:32** Beranduegi.tv
**20:47** Magazinea
**21:47** Planik bai?
**21:57** Jaiak: Mundumira
**22:27** Harira
**22:57** Gipuzkoa Kultura
**23:27** AsteON
**23:57** Planik bai?
**00:07** Ikuskizuna: Olatu talka
**01:07** Magazinea

**ZAPATUA, 27**

**10:00** Hamaika.bit
**10:30** Ipupomamua
**11:00** Zorion agurrak
**11:05** Onein: Txipiroiez betetako piperrak
**11:39** Magazinea
**12:39** Bizitegia
**13:04** Berriak
**13:19** Onein: Txipiroiez betetako piperrak
**13:53** Gipuzkoa Kultura
**14:23** Ikuskizuna: Olatu talka
**15:23** Zorion agurrak
**15:28** Berriak
**15:43** AsteON
**16:09** Gipuzkoa Kultura
**16:39** Jaiak: Mundumira
**17:09** Berriak
**17:24** Magazinea
**18:24** Harira
**18:54** Beranduegi.tv
**19:09** Magazinea
**20:09** Ekogune
**20:39** Berbetan
**21:12** Zorion agurrak
**21:17** Erreportajea: Zegama-Aizkorri
**21:17** Erreportajea: Enduro 2012
**21:52** Erreportajea: Ondarroako antxoa eguna
**22:19** Berriak
**22:34** Bizitegia
**23:04** Magazinea

**DOMEKA, 28**

**12:30** Magazinea
**13:30** Zorion agurrak
**13:35** Onein: Zapoa barazkiekin
**14:05** AsteON
**14:40** Zorion agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:10** Ur eta lur
**15:40** Erreportajea: Zegama-Aizkorri
**16:30** Mendialdean Bizi
**16:55** Berriak
**17:15** Eguraldia
**17:20** Ur eta lur
**17:49** Onein: Xankarra
**18:14** Berbaz
**19:14** AsteON
**19:49** Zorion agurrak
**19:54** Berriak
**20:14** Eguraldia
**20:17** Magazinea
**21:02** Berriak
**21:27** Eguraldia
**21:32** Harmailatik
**22:17** Magazinea
**23:02** Harmailatik
**23:47** Berriak
**00:12** Eguraldia.

**ASTELEHENA, 29**

**12:30** Magazinea
**13:25** Zorion agurrak
**13:30** Harmailatik
**14:15** AsteON
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:10** Zorion agurrak
**15:15** Harmailatik
**16:00** Onein: Xankarra
**16:25** Mendialdean Bizi
**16:48** Berriak
**17:13** Eguraldia
**17:16** Bizitegia
**17:46** Harmailatik
**18:29** Erreportajea: Zegama-Aizkorri
**19:19** Hamaika.bit
**19:49** Zorion agurrak
**19:54** Berriak
**20:14** Eguraldia
**20:17** Magazinea
**21:02** Zorion agurrak
**21:07** Berriak
**21:27** Eguraldia
**21:30** Harira
**22:00** AsteON
**22:30** Magazinea
**23:15** Erreportajea: Enduro 2012
**23:48** Berriak
**00:13** Eguraldia

**MARTITZENA, 30**

**12:15** Magazinea
**13:00** Zorion agurrak
**13:05** Harira
**13:40** Beranduegi.tv
**14:02** Erreportajea: Enduro 2012
**14:37** Zorion agurrak
**14:44** Berriak
**15:04** Eguraldia
**15:09** Gipuzkoa Kultura
**15:39** Onein: Txangurro Krepa
**16:10** Jaiak: Mundumira
**16:40** Zorion agurrak
**16:44** Berriak
**17:04** Eguraldia
**17:07** Harmailatik
**17:50** Ekogune
**18:20** Gipuzkoa Kultura
**18:50** Erreportajea: Ondarroako antxoa eguna
**19:20** Harira
**19:50** Zorion agurrak
**19:54** Berriak
**20:14** Eguraldia
**20:17** Magazinea
**20:55** Lehiaketa
**21:03** Berriak
**21:23** Eguraldia
**21:26** Magazinea
**22:04** Ekogune
**22:34** Tertulia
**23:34** Berriak
**23:59** Eguraldia.

**EGUAZTENA, 31**

**12:25** Magazinea
**13:10** Zorion agurrak
**13:15** Ekogune
**13:45** Tertulia
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:10** Hamaika.bit
**15:40** Erreportajea: Enduro 2012
**16:13** Berbetan
**16:46** Berriak
**17:19** Eguraldia
**17:22** Tertulia
**18:22** Ur eta lur
**18:54** Ekogune
**19:29** Zorion agurrak
**19:34** Planik bai?
**19:54** Berriak
**20:14** Eguraldia
**20:17** Magazinea
**20:57** Planik bai?
**21:17** Berriak
**21:42** Eguraldia
**21:45** Hamaika.bit
**22:17** Gipuzkoa Kultura
**22:47** Planik bai?
**23:07** Magazinea
**23:52** Berriak
**00:17** Eguraldia
**00:22** Planik bai?.

**EGUENA, 1**

**12:30** Magazinea
**13:15** Zorion agurrak
**13:20** Gipuzkoa Kultura
**13:50** Onein: Txipiroiez betetako piperrak
**14:24** Planik bai?
**14:44** Berriak
**15:04** Eguraldia
**15:09** Planik bai?
**15:19** Bizitegia
**15:49** Berbaz
**16:49** Berriak
**17:09** Eguraldia
**17:14** Planik bai?
**17:34** 28. Klip
**17:56** Harira
**18:26** Ekogune
**18:56** Beranduegi.tv
**19:15** Jaiak: Pentekoste jaiak
**19:55** Zorion agurrak
**20:00** Berriak
**20:20** Eguraldia
**20:25** Planik bai?
**20:45** Harira
**21:15** Berriak
**21:35** Eguraldia
**21:40** AsteON
**22:10** Berriak
**22:30** Eguraldia
**22:33** Planik bai?
**22:43** Jaiak: Pentekoste jaiak
**23:23** AsteON
**23:53** Planik bai?.

## ARRASATE IRRATIA

### Rock japoniarra Koolturi amaiera emateko

Who the Bitch taldea ikusteko sarrerak. Japoniako taldeak gaztetxean joko du eguenean Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan. Talde horrek emango dio amaiera gaztetxeko egitasmoari. Hona hemen sarrerak lortzeko bideak: *943 25 05 05, irratia@goiena.com* edo *@ arrasategoiena*.

### Makina-erremintaren biurteko azoka, zuzenean

Makina-erremintaren biurteko azokan izango da Arrasate Irratia. BECen ospatuko dute biurteko azoka garrantzitsu hau eta Arrasate Irratia bertan egongo da giroari buruz informatzeko. Gogoratu azoka astelehenean hasi eta ostiralean bukatuko dela, Maiatzaren 1ean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Zapatua, 26** | ESPAÑOL MORALES | Araba etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Domeka, 27** | RUIZ | Nafarroa etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Astelehena, 28** | ETXEBERRIA | Zurugalde 42, 44 | 943 77 16 30 |
| **Martitzena, 29** | ALBERTO AZKOAGA | Ferreiras, 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguaztena, 30** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **Eguena, 31** | CORCUERA | Arambarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| **Egubakoitza, 1** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 09 74 |
| **BERGARA** | | | |
| **Zapatua, 26** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 27** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 940 76 11 05 |
| **Astelehena, 28** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 940 76 19 63 |
| **Martitzena, 29** | MOZOS | Iparragirre | 940 76 12 15 |
| **Eguaztena, 30** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 940 76 11 74 |
| **Eguena, 31** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 940 76 16 87 |
| **Egubakoitza, 1** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 940 76 11 05 |
| **OÑATI** | | | |
| **Zapatua, 26** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 940 78 11 28 |
| **Domeka, 27** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 940 78 11 28 |
| **Astelehena, 28** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 940 78 21 16 |
| **Martitzena, 29** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 940 78 21 16 |
| **Eguaztena, 30** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 940 78 01 22 |
| **Eguena, 31** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 940 78 01 22 |
| **Egubakoitza, 1** | GARATE | Kale Barria, 42 | 940 78 05 58 |
| **ARETXABALETA / ESKORIATZA** | | | |
| **Zapatua, 26** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 940 08 11 43 |
| **Domeka, 27** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 940 08 11 43 |
| **Astelehena, 28** | FRAILE | Herriko plaza,10 (Are.) | 940 79 21 99 |
| **Martitzena, 29** | FRAILE | Herriko plaza,10 (Are.) | 940 79 21 99 |
| **Eguaztena, 30** | FRAILE | Herriko plaza,10 (Are.) | 940 79 21 99 |
| **Eguena, 31** | FRAILE | Herriko plaza,10 (Are.) | 940 79 21 99 |
| **Egubakoitza, 1** | FRAILE | Herriko plaza,10 (Are.) | 940 79 21 99 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



Max. 20º
Min. 13º



Max. 22º
Min. 16º

**ZAPATUA, 26**
Goizez eta arratsaldez eguraldi hodeitsua izango dugu. Eguna aurrera egin ahala, hodeien tinkotasuna murriztu egingo da.

**DOMEKA, 27**
Tenperaturek gora egingo dute, eta arratsalderako eguzkia espero da. Eta haizea, berriz, leun ibiliko da.

### EUSKAL HERRIA



Asteburu honetan tenperaturek behera egingo dute. Giro hodeitsuak protagonismoa hartuko du berriz ere,.

## GAZTE INFORMAZIOA

### BEKAK

**Hizkuntzak.** Eusko Jaurlaritza. Udan, atzerrian, ingeles, frantses edo aleman ikastaroak egiteko dirulaguntzak, unibertsitateko ikasleentzat. Epea: ekainak 3.

**Batxilergoko sari bereziak.** Eusko Jaurlaritza. 935 euroko 15 sari daude, eta ekainaren 13an da proba. Epea: ekainak 5.

### LANA

**Teknologia berriak.** EURES. Teknologia berrietan espezialistak diren pertsonak behar dira Danimarkan eta Suedian lan egiteko. *eures.seleccio.soc@gencat.cat.*

### LEHIAKETAK

**Erasmus.** Edibuki. Erasmus esperientziei buruzko kontakizun lehiaketa. Leonardo edo Erasmuseko ikaslea bazara edo izan bazara, idatzi eta bidali zure kontakizuna. Epea: ekainaren 4a.

**Nik nahi dudan Europa.** Idatzi gai honi buruzko testua eta irabazi interrail txartelak. Epea: ekainak 8.

***Tomorrow* egunkaria.** Deustuko Unibertsitatea. Albisteak baikortasunez idatzi eta irabazi interraileko 4 txartel! Epea: ekainak 10.

### IKASTAROAK

**Hik Hasi.** Udako Topaketak. Heziketarekin eta pedagogiarekin zerikusia duten 29 ekintza desberdin egiteko aukera uztailaren 3an, 4an eta 5ean Donostian.
*www.hikhasi.com.*

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

## HILDAKOAK

**Bitxori Arregi Lamariano.** Bergaran, maiatzaren 14an. 90 urte.
**Francisco Morales Luque.** Arrasaten, maiatzaren 16an.73 urte.
**Isabel Valle Dominguez.** Bergaran, maiatzaren 17an. 51 urte.
**Eulalia Elkoro Ugarte.** Bergaran, maiatzaren 18an. 88 urte.
**Isaac Ibabe Errasti.** Bergaran, maiatzaren 18an. 64 urte.
**M. Carmen Ojeda Diaz.** Arrasaten, maiatzaren 19an. 83 urte.
**M. Pilar Juaristi Sarasua.** Arrasaten, maiatzaren 19an. 85 urte.
**Mertxe Arenaza Lazkano.** Bergaran, maiatzaren 19an. 80 urte.
**Antonio Otero Jimenez.** Bergaran, maiatzaren 20an. 77 urte.
**Rufina Astola Nafarrate.** Aramaion, maiatzaren 20an. 82 urte.
**Prudencia Bonilla Hernandez.** Bergaran, maiatzaren 21ean. 85 urte.
**M. Rosario Reinoso Aguado.** Arrasaten, maiatzaren 22an. 71 urte.
**Pablo Zubizarreta Jausoro.** Arrasaten, maiatzaren 22an. 93 urte.
**Florencio Elorza Kortabarria.** Aretxabaletan, maiatzaren 23an. 87 urte.



## Susana eta Richard

Susana Sanchez eta Richard Lopez maiatzaren 26an ezkonduko dira Arrasateko San Frantzisko elizan. Zorionak, bikote! Familiaren eta lagunen partetik, oso ondo ibili ezkontza egunean eta ondoren New York eta Maia Erriberan. Zoriontsu izan! Bereziki, iloba Naiaren partetik.



## Maitane eta Koldo

Maitane Romero eta Koldo Erostarbe zapatuan, hilaren 26an, ezkonduko dira! Zorionak, bikote, zuen familiaren eta lagunen partetik!

URTEURRENA

### Bittori Irazabal Aranzabal



Lehen urteurreneko meza, zapatuan, maiatzaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian, ospatuko da.

**Bittoriren senideok eskertzen dizuegu zure otoitza eta oroitzapena. Mila esker.**



## Juanito eta Itziar

Arrasateko Juanito Arriaranek eta Itziar Villarrek urrezko ezteiak bete dituzte maiatzaren 24an. Familiako guztien partetik, zorionak eta ondo pasatu!



## Nerea eta Javi

Maiatzaren 26an Arrasateko Nerea Castillo eta Tolosako Javi Ortega Loiolako Santutegian ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ziur izan egun ederra pasatuko dugula!". Zuen lagunak.

URTEURRENA

### Arantxa Lizarralde Aiestaran



1927-09-09 / 2011-05-01

Lehen urteurreneko meza, zapatuan, maiatzaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian, ospatuko da.

—

*Umila zinen*
*guztien gainetik,*
*borondatean ere*
*ez zeneukan faltarik,*

*nahiz eta urrun joan*
*mundu honetatik*
*ez duzu aldegingo*
*gure bihotzetik.*

**Zure sendiak.**
**Aurrez esker on bertaratzen zareten guztioi.**

ESKER ONA

### Isaac Ibabe Errasti



Bergaran hil zen 2012ko maiatzaren 18an, 64 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko familiakoen izenean.

**Bergaran, 2012ko maiatzaren 25ean.**

ESKER ONA

### Eulalia Elkoro Ugarte



Markos Larrearen alarguna

Bergaran hil zen 2012ko maiatzaren 18an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

—

*Ez nau izutzen negu hurbilak*
*uda beteko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan.*

**Bergaran, 2012ko maiatzaren 25ean.**

URTEURRENA

### Luis Ayerbe Lizarralde



1959-09-04 / 2011-05-26

Lehen urteurreneko meza, zapatuan, maiatzaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian, ospatuko da.

—

*Aitatxo maitea, zu gabe egotean*
*arima hausten zaigu,*
*baina, zure maitasunaren oroitzapenak*
*aurrera egiten laguntzen digu.*

**Aurrez esker on bertaratzen zareten guztioi.**

ESKER ONA

### Bitxori Arregi Lamariano



Miguel Arkauz Telleriaren alarguna

Bergaran hil zen 2012ko maiatzaren 14an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2012ko maiatzaren 25ean.**

ESKER ONA

### Rufina Astola Nafarrate



Azkoagan hil zen 2012ko maiatzaren 20an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko seme-alaben, iloben eta biloben izenean.

—

*Zu sortu zitzen anpor beretik*
*sortuak gara gu denak.*

**Aramaion, 2012ko maiatzaren 25ean.**

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

**Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99**
**e-posta: *euskalduna@harrespil.net***

OROIGARRIA

### M. Rosario Reinoso Aguado



1940-10-07 / 2012-05-22

*Beti gogoratuko zaitugu*
*eman diguzun maitasun guztiagatik.*
*Beti izango zara gure bihotzetan.*

**Zure seme-alaba, biloba, familia eta Estiren lagunak.**
**Arrasaten, 2012ko maiatzaren 25ean.**

OROIGARRIA

### Rufina Astola Nafarrate



Azkoagan hil zen 2012ko maiatzaren 20an, 82 urte zituela.

*Zurekin egotea izan da guretzat oparia*
*erraza izan da zu maitatzea*
*ezinezkoa ordea zu ahaztea.*

**Zure lobak.**
**Arrasaten, 2012ko maiatzaren 25ean.**

**ÑATI Sex Museum**
Errekalde auzoko jaien barruan joko dute Sex Museum taldekoek, eta haiekin batera Gas, Sharon Stoner, The Caphces eta Arkada Social taldeek ere joko dute. Garagardo feriaren barruan izango da rock-and-roll jaialdia. Iluntzeko zortzietan hasiko da feria, eta kontzertuak 21:00etan izango dira.
Gaur, barikua, Errekalden, 21:00etan.


SEX MUSEUM


ARTXIBOA

**ARRASATE Arte azoka**
Margo taldekoek urtean zehar eginiko lanak erakutsi eta koadroak salgai ipiniko dituzte. Iaz, abenduan, udaletxeko arkupeetan egindako azoka ekimen bera izango da.
Zapatuan, Seber Altube plazan, goizez eta arratsaldez.

## MUSIKA

**ARETXABALETA Haize, egur eta perkusio instrumentuen emanaldia**
Leizarra musika eskolako haize, egur eta perkusio instrumentuen ikasleek emanaldia eskainiko dute.
Martitzenean, Arkupeko Zaraia aretoa, 18:00etan.

**ARRASATE St. Pauli eguna**
Beste Bat! Hanburgoko St. Pauli futbol taldearen aldeko Arrasateko lagunarteak jaia antolatu du. Poteoa eta bazkaria antolatu dituzte, eta musika kontzertuak. Arratsaldean (17:00) Xabi & Petti bikoteak eta Los Galerna taldeak joko dute Biteri plazan eta gauean, gaztetxean, (22:30) Dirty Brothers eta Arkada Social taldeek.
Bihar, zapatua, Biteri plazan 17:00etan eta gaztetxean 22:30ean.

**ARRASATE Errozioko kantuak**
Alegria de la Sierra abesbatza errozieroak kantu saioa egingo du Al-Andalusen. Arratsaldean elkarteko abesbatzakoek abestuko dute, kultura asteko ekintzak amaitzeko.
Domekan, Al-Andalus elkartean, 19:00etan.

## ANTZERKIA

**ARRASATE 'Hil arte bizi'**
Txalo antzerki taldeak *Hil arte bizi* lana eskainiko du. Heriotzaren gaineko komedia eta adiskidetasunaren gaineko drama da antzezlana.
Domekan, Amaia antzokian, 19:30ean.

**ARETXABALETA 'The con mujeres'**
Teatro Estudio antzerki taldeak *The con mujeres* lana eskainiko du. Sarrera, debalde.
Domekan, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan.

## DANTZA

**ARRASATE Herrixa Dantzan**
Gidatutako dantzaldi irekia, Euskal Herriko eta, oro har, Europa osoko dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: sokan, taldean, bikoteka... denetarik. Helburua da adin askotariko herritar arruntek elkarrekin dantzan gozatzea. Sarrera doan eta parte hartzea libre da. Gainera, taberna zabalik egongo da eta autobus zerbitzua ere egongo da.
Gaur, Garaia taberna-jatetxean, 20:00etan.

# NON-ZER

MAIATZA 25
MAIATZA 31

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

**ELGETA Herrixa Dantzan (ikasturte amaiera)**
Ikasturteko azken saioa da. Ikasturte amaierako txokolate-jana (18:45) eta Xut fanfarrearen CD berriaren aurkezpena egingo dira. Ohi bezala, sarrera doan eta parte-hartzea libre. Patxi Monteroren gidaritzapean, ohi bezala. 19:00etan hasiko da helduendako saioa.
Domekan, Espaloia kafe antzokian, 18:00etan.

**ARETXABALETA Haur Dantzarien Eguna**
Leizarra musika eskolak antolatuta ospatuko dute. 12:30ean alardea Herriko Plazan eta 16:30ean dantza talde guztien saioa.
Domeka, herriko kaleetan, 10:30ean.

## OSPAKIZUNAK

**ARETXABALETA Euskeriaren Eguna**
Loramendi Elkarteak Euskeriaren Eguna antolatu du. Goizean ibilbide historikoa, umeendako tailer eta jolasak, trikitilariak eta bertsolariak egingo dira. 13:20an bertsolariek eta trikitilariek lagunduta poteoa egingo dute, Barriketan taldean euskara lantzen dutenen parte hartzearekin. 14:30ean herri bazkaria plazan eta ondoren jokoak. 17:00etan umeendako *Munduan Berbena* ikuskizuna egongo da plazan eta 18:00etatik aurera bolo txapelketa bolatokian eta *Musika zaparrada: Busti Hadi!* Mitarten herriko musikariekin.
Bihar, herriko kaleetan 10:00etan.

**ARRASATE Erretiratuei omenaldia**
Herriko erretiratuei merezitako omenaldia emateko jaialdia antolatu du SUDC elkarteak. Erretiratuek bazkarira joan-etorria lasai egin ahal izateko, autobusak ipiniko dizkiete antolatzaileek. Hain justu, Garibaitik aterako dira, Iturbide paretik. 13:00etan hasiko dira eta bueltarakoak, berriz, 18:00etan, ohiko maiztasunarekin.
Bihar, Musakolako kiroldegian, 14:30ean.

## UMEAK

**ARRASATE Jolasak eta merienda Al-Andalusen**
Aste kulturalaren barruan, gaur arratsalderako umeentzako jolasak antolatu dituzte elkartekoek. Jolasak eta tailerrak egongo dira. Ekintza guztien ostean askaria banatuko dute bertan daudenen artean.
Gaur, barikua, Al-Andalus elkartean, arratsaldeko 18:00etan.

**OÑATI Ipuin kontaketa**
*Arrain batek baino oroimen gutxiago* ipuinaren kontaketa egingo dute haur liburutegian, 6 eta 10 urte bitarteko haurrendako bereziki zuzenduta.
Martitzenean, haur liburutegian, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA 'Bergara hiria' lehiaketaren sari banaketa**
Bergarako Aroztegi aretoan, 27. Bergara Hiria argazki lehiaketaren sari banaketa eta erakusketaren inaugurazioa izango da. Erakusketa ekainaren 24ra arte egongo da zabalik Aroztegin bertan.
Gaur, Aroztegi aretoan, 19:30ean.

## IRTEERA

**ELGETA Mendi irteera Axulaurko atera**
Lauzpabost orduko mendi irteera antolatu dute, Elgetako Kantsatzeke mendi talde sortu berriaren eskutik. Ibilbidea honakoa izango da: Pagomakurre-Axulaurko atea-Superlegor-Lekanda eta amaitzeko Pagomakurrera joango dira. Izena emateko *kantsatzeke@gmail.com* helbidera jo edo udaletxean galdetu. Prezioa 10 euro da.
Zapatuan, herriko plazatik irtenda, 08:00etan.


ARTXIBOA

**ESKORIATZA Amuska elkarteko antzerki taldea**
*La cenicienta que no quería comer perdices* ipuinaren moldaketa taularatuko dute. Antzerki taldeko kide dira Eva, Mari Karmen, Emi, Caty, Elvi, Pakita, Josefina eta Nieves. *Errauskine* ipuinaren ondorengoa kontatzen dute; Errauskine eta printzea ezkondu ondorengoa.
Zapatuan, Unibertsitatean, 22:00etan.



ARTXIBOA

**OÑATI** **Eduardo Baranzano**

Eduardo Baranzano gitarra-jotzaileak itxiko du 34. Musikegunetako egitaraua. Montevideon jaioa, gitarran maisu direnekin ikasi zuen. Ikastaroak egin zituen besteei entzundako musikaz, eta ikasleekin perfekzionatu zen.

Domekan, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

## HITZALDIAK

**ARETXABALETA** **Hiri hondakinen bilketari buruz**

Aretxabaletako EAJ-PNVk antolatuta hiri hondakinen gaineko berbaldia eskainiko du Maria Eugenia Arrizabalaga legebiltzarkideak.

Eguaztenean, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan.

## DEIA

**ARRASATE** **Elkarretaratzea presoen alde**

Hileko azken ostirala dela-eta presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa burutuko da herriko plazan.

*Gaixo dauden presoak kalera! Bizi arteko zigorrik ez! euskal presoak euskal herrira! Bete ditzagun plazak kartzelak husteko!* da agerraldiaren leloa.

Gaur, herriko plazan, 19:30ean.

**ARETXABALETA** **Hiri hondakinen gainean hausnartzeko kontseiluaren bilera: bigarren saioa**

Hiri hondakinen gainean hausnartzeko Udalak herritarrekin batera sortutako kontseiluaren bigarren bilera izango da gaur egingo dutena.

Gaur, Arkupeko bigarren solairua, 18:30ean.

**ELGETA** **Elgeta Zero Zabor**

Gaiarekin eta ekimenarekin loturako taldea sortzeko batzar irekia deitu dute Elgetan gaur arratsalderako.

Gaur, kultura etxean, 19:00etan.

**ARETXABALETA** **Presoen aldeko elkarretaratzea**

Hilabeteko azken ostiral guztietan legez, elkarretaratzea egingo dute presoen alde Herriko Plazan gaur.

Gaur, Herriko plazan, 19:00etan.

**ARETXABALETA** **Hiri hondakinen gainean hausnartzeko kontseiluaren bilera**

Hiri hondakinen kudeaketa sistemaren gaineko hausnarketarako sortutako kontseiluaren hirugarren saioa.

Astelehenean, Arkupeko bigarren solairuan, 18:30ean.

**ARETXABALETA** **Odol ateratzea**

Arabako odol bankuko kideak etorriko dira. Beste bi astelehenetan ere etorriko dira.

Astelehenean, Osasun etxean, 16:30ean.

**ARETXABALETA** **Antzuolara bisita herritarrendako**

Udalak herritarrekin batera hiri hondakinen kudeaketaren gainean egin gura duen hausnarketa prozesuaren barruan Antzuolara bisita egingo dute atez ateko zabor batzea ezagutzeko. Edonork eman dezake izena. 943 71 18 62 edo *ingurumena@aretxabaleta.net*.

Martitzenean, Antzuolan, 18:30ean.

## IKASTAROAK

**OÑATI** **Ganbara kantu eskola**

2012-2013 ikasturterako izen-ematea zabalduko dute ekainaren 4ean. 3 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek eman ahal dute izena. Idatzi *idazkaritza.ganbaratxiki@gmail.com* helbidera. Aurten izen-ematea *on-line* egin ahal izango da

Ekainaren 4tik 7ra bitartean, Errekaldeko lokalean.

## KIROLA

**ELGETA** **Errege Kopako finala**

Intxortako Lehoiak lagunartekoek Bolatoki tabernan ikusiko dute Kopako finala. Aurretik, 19:30ean abiatuta, poteoa egingo dute.

Gaur, Bolatoki tabernatik abiatuta, 19:30ean.

# ZINEMA

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**Battleship**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Lotte eta harri bitxien sekretua**
Zapatua: 17:00.

**Take shelter**
Martitzena: 20:30.

## OÑATI

### KULTURA ETXEA

**Men in black 3 3D (estreinaldia)**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena:19:30.

## EIBAR

### COLISEO ANTZOKIA

**Men in black 3 3D**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### COLISEO 1

**Safe**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### COLISEO 2

**Mi hijo y yo**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

## GASTEIZ

### BOULEVARD

**Men in black 3**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:45.
Zapatu eta domekan, baita: 15:45.

**Men in black 3 3D**
Barikutik domekara: 17:00, 19:15, 21:30, 23:45.
Astelehentik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.

**Cuando te encuentre**
Barikutik eguenera: 18:20, 20:20, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:20.
Zapatu eta domekan, baita: 16:20.

**El arte de amar**
Barikutik eguenera: 18:25, 20:25, 22:25.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:25.
Zapatu eta domekan, baita: 16:25.

**Sombras tenebrosas**
Barikutik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**Marvel, Los Vengadores**
Barikutik eguenera: 18:30, 21:30.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**Marvel, Los vengadores 3D**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:30.

**American Pie: el reencuentro**
Barikutik eguenera: 17:50, 20:05, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:35.

**La sombra de la traición**
Barikutik eguenera: 20:35, 22:40.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:45.

**Los juegos del hambre**
Barikutik eguenera: 18:05.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**Infiltrados en clase**
Barikutik eguenera: 18:15.
Zapatu eta domekan, baita: 16:05.

**Safe**
Barikutik eguenera: 22:35.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:35.

**Intocable**
Barikutik eguenera: 20:25.

**Un feliz acontecimiento**
Zapatu eta domekan: 15:30.

**La pesca del salmón en Yemen**
Bariku eta zapatuan: 23:30.

**Lorax**
Zapatu eta domekan, baita: 16:00.

### GURIDI

**Men in black 3 3D**
Barikuan: 20:00, 22:30.
Zapatu eta domeka: 17:30, 20:00, 22:20.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.
Eguena: 17:00.

**La sombra de la traición**
Barikutik domekara: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

**American Pie: El reencuentro**
Barikutik domekara: 17:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Los juegos del hambre**
Barikutik egunera: 19:45.

**Ni pies ni cabeza**
Barikutik domekara: 18:99, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.

**Marvel, Los vengadores**
Barikutik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**El exótico Hotel Marigold**
Barikutik domekara: 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Sombras tenebrosas**
Barikutik domekara: 17:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

### FLORIDA

**El profesor Lazhar**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Los cachorros y el código de Marco Polo**
Barikutik domekara: 17:00, 18:40.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**Un lugar para quedarse**
Barikutik domekara: 20:20, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15, 22:30.

**Los niños salvajes**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Men in black 3**
Barikutik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.

**Flores silvestres**
Barikutik domekara: 18:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 22:30.

**Plastic planet**
Barikutik domekara: 17:00, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Intocable**
Barikutik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

**Starbuck**
Barikutik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

### GORBEIA

**Men in black**
Barikutik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:15.

**Men in black 3 3D**
Barikutik domekara: 16:15, 18:30, 20:45, 23:00.
Astelehenetik eguenera: 18:15, 20:30, 22:45.

**Ni pies ni cabeza**
Barikutik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**Sombras tenebrosas**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:20, 22:40.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:55.
Zapatu eta domekan, baita: 15:40.

**Los vengadores**
Barikutik eguaztenera: 16:00, 18:45, 21:30, 00:20.

**Los vengadores 3D**
Barikutik eguenera: 18:00.

**La sombra de la traición**
Barikuan eta domekatik eguenera: 18:10, 20:15, 22:20.
Zapatua: 20:15, 22:20.

**Infiltrados en clase**
Barikutik eguenera: 20:00, 22:15.
Bariku eta zapatuan: 00:30.

**Safe**
Barikutik eguenera: 20:45, 22:45.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:45.

**American Pie: El reencuentro**
Barikutik eguenera: 20:15, 22:30.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:45.

**Los juegos del hambre**
Barikutik eguenera: 17:30.

**La pesca del salmón en Yemen**
Astelehenetik eguenera: 17:45.

**Intocable**
Barikutik domekara: 20:10, 22:20, 00:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:40, 21:50.

**Grupo 7**
Bariku eta zapatuan: 00:30.

**Los cachorros**
Barikutik domekara: 16:10, 18:10.

**Lorax**
Zapatua: 16:20, 18:20.
Domeka: 16:20.

**Soul surfer**
Barikutik domekara: 15:45, 17:50.

**Blancanieves**
Zapatu eta domekan: 15:45.

# KRITIKA

**SOMBRAS TENEBROSAS**

★★★☆☆

**Zuzendaria:** Tim Burton.
**Herrialdea:** Estatu Batuak.
**Urtea:** 2012.
**Aktoreak:** Johnny Depp, Michelle Pfeiffer, Helena Bonham Carter, Eva Grenn.
**Iraupena:** 113 minutu.



## Burton ludikoa

Tim Burton bueltan da. Oraingoan, Estatu Batuetan joan zen mendeko 60ko hamarkada bukaeran eta 70eko hamarkada hasieran arrakasta izan zuen telesail bat hartu du bere unibertsora eramateko. Telesaila ez dut ezagutzen, baina filmean agertzen dena bai. *Sombras Tenebrosas* Tim Burtonen lana da %100ean. Ezagun egiten zaizkigu agertzen diren pertsonaiak, jasaten den giroa, ikusten den estetika eta Danny Elfmanen musika ederra. Honekin ez dut adierazi nahi betiko gauza berdina ikusten ari garenik. Zuzendariaren berezko ukitua atzeman daiteke, haren mundua osatzen duten ezaugarriak agertzen dira, baina oraindik mantentzen du mundu desberdinen baten bizi diren pertsonaien istorioak azaltzeko duen ahalmena. Ondo erabiltzen ditu fantasia, umorea eta bizitzaren alde ezkutuak lan erakargarriak egiteko. Pertsonaia bakartiak dira eta arazoak izaten dituzte garai edo gizarte horretako gizakiekin harremanak izateko. Eta harreman horietan izaten dira momentuak fantasia, umorea, alde iluna eta, aldi berean, malenkonia eta samurtasunerako. Agian, zuzendariak, kasu honetan komedia eta alde ludikoa indartu du eta bere munduko alde poetikoa apur bat baztertuta geratu da. Osagai horiek faltan bota ditzakegu, baina hala eta guztiz, *Sombras tenebrosas*en agertzen diren pertsonaiak, egoerak , istorioak eta hori dena azaltzeko moduak Burtonen ukitua eta magia dute. Gustura sentitzen gara zuzendariaren proposamenarekin. Osagaiak bere puntuan daude eta agertzen diren aktore guztiak bikain moldatzen dira pertsonaia berezi horiei bizitza ematerakoan. Eta horien artean aipatzekoa da Johnny Deppen interpretazioa, argi ikusten da zuzendari eta aktorearen arteko konexioa eta hark etekin bikaina ateratzen diola bere pertsonaiari.

**ANTONIO ZABALA**

ana zubillaga ©






BUKATZEKO

# 'Conquistour' Bergarako Pazkoetan

- Aurtengo edizioko David Seco, Lobo, Isa eta Migueliz eta seigarren edizioko Esti izango dira partaideak
- 'Conquistour' Euskal Herriko bederatzi herritako jaietan egingo da maiatzean eta ekainean

**MAIALEN REGUEIRO** | BERGARA

*Conquistour* Bergaran izango da hilaren 29an, San Martin plazan. Izan ere, Julian Iantzi hurrengo *El Conquistador del Fin del Mundo*-rako partaide baten bila dabil. Horretarako, aurtengo *El Conquistador del Fin del Mundo* edizioaren partaide izan diren David Seco, Lobo, Isa eta Migueliz izango dira. Dena den, seigarren edizioko partaide izan zen Estiren laguntza izango dute haiek. Bergarako taldea, aldiz, Ndank Ndank elkartea izango da, eta *Conquistour* irabazteko asmoa daukate.

*Conquistour* bederatzi herrialdetan izango da eta lehiaketako partaide izandakoak bederatzi talderen aurka lehiatuko dira.







*El Conquistador del Fin del Mundo*-ko hainbat partaide. | GOIENA

**Probak**

Lehian, Patagonian egindako antzeko probak egingo dituzte. Hasieran, bi taldeek proba bat egingo dute eta proba horretatik irabazlea irtengo da. Irabazten duen taldeak beste taldeko partaide bat aukeratuko du eta hura dueluan parte hartuko duen partaidea izango da. Horren ostean, bazkaltzera joango dira, eta bazkalostean duelua egingo dute. Bergarako Ndak Ndakeko partaideak borroka irabaziz gero, hurrengo urteko *El Conquistador del Fin del Mundo*-ko partaide izateko hautagai izatera pasatuko da. Izan ere, *Conquistour* egiten den herri guztietatik hautagai bat irtengo da, eta horien artean bat aukeratuko da. Gainera, saio horiek telebistan emango dituzte, ekainaren 10ean hasita.

**Parte hartzeko**

Antolatzaileek maiatzean eta ekainean festak ospatzen dituzten herriak behar dituzte, eta herri bakoitzean sei pertsonako taldeak sor daitezke: hiru mutil, bi neska eta kapitaina izendatu behar dira, hain zuzen ere. Hori bai, partaide guztiek 18 urtetik gorakoak izan beharko dute. Jende ausarta behar da, bere herrian irabazi nahi duena, alegia.

AZKEN BERBA



IDOIA ETXEBERRIA

## Azken orduko damuak

*Carpe diem.* Bizi momentua. Azken eguna balitz bezala. Erraza da esatea. Baina egitea ez hainbeste. Bonnie Ware erizaina da, eta gaixo terminalekin egiten du lan Australiako ospitale batean. Bertako gaixoak elkarrizketatu ditu. Damurik baduten galdetu die. Zer egingo luketen bizitzak beste aukera bat emango balie.

Gaixo askok antzeko erantzunak eman dituzte. 1. Benetan nahi zutena egin ez izanaz damutzen dira, besteek espero zutena egiteaz. 2. Uste dute ez direla gai izan beraien sentimenduak behar bezala esplikatzeko. 3. Damu dira lan gehiegi egin izanaz, eta inportan zaien pertsonekin gutxiegi egon izanaz. 4. Zoriontsuagoak izan zitezkeela diote.

Ez dira egindakoaz damutzen, egin ez zutenaz baizik. "Bizitzan egiten dugun denak, onak zein txarrak, zerbait ikasten laguntzen digu", dio Warek. *Regrets of the dying* liburuan bildu ditu hilzorian daudenen kexuak. Eta espero du liburuak jendeari "gauzak gaur egiten laguntzea, biharko utzi gabe, gero damurik ez izateko".

Laburtuta: oraintxe da bizitza bizitzeko momentua. Zerbait egiteko gogoa baduzu, egin ezazu! Ahal bada, gaur bertan.

